

# Goienkaria

2006ko apirilaren 7a > Egubakotza > VI. urtea > 239. zenbakia > Doan banatzeko

www.goiena.net

"Prozesu politikoa atzeraezina egin behar da, konponbidea etor dadin"

Aitor Arantzabal  
Batasuna > 09



**G2a**

Bi oñatiar  
Euskadi Gazteko  
uhinetan > 43

**DEBAGOIENA**  
460 kilo hondakin sortu zuen  
iaz debagoiendar bakoitzak > 04

**DEBAGOIENA**  
Aizkorri-Aratz parke natural  
izendatu du Eusko Jaurlaritzak > 07

**KIROLA**  
Eskola kirolaren ereduaren alde  
daude ibarreko ikastetxeak > 40

**ESKORIATZA** > AZPIEGITURAK

## Onbide.org sortu dute kaltetuek

Azpiegitura lan handiek ahalik eta kalte txikiena egitea eskatzen dute > 15

**ARETXABAleta** > UDALA

## Aralarrek gobernua utzi du

Aretxabaletako Aralar alderdiak Udaleko gobernu taldea uztea erabaki du, alkateak (EAJ) Xabier Sarasua Kultura zinegotzia (Aralar) gobernik bota eta gero. EAJk esan du "egoera jasanezina zela" eta proposatu dio Aralarri beste zinegotzi bat sartzea gobernuan. Aralarrek dio "erabakia ez duela ulertzan". > 30



ITXITA Bergarako erdigunean denda asko itxi dituzte denbora laburrean. Argazkian, Bergarako dendari batzuk lokal huts baten aurrean.

LEIRE KORTABARRIA

**EKONOMIA** > MERKATARI TXIKIEN KEZKA AREAGOTUZ DOA

## Dendarien egoera "oso larria" dela salatu dute

**SALTOKI HANDIAK** Bergaran Eroski handi bat egin nahi dutela-eta, kezka areagotu egin da askorengan

**LEGEDIA** Merkataritza-guneen gaineko legeak zorrotzagoak izatea eskatzen dute > 02-03

**DEBAGOIENA** > LANA

## Langabeziak behera egin du martxoan

Langabezia tasa %4,85 da gure eskualdean > 04

### AURKIBIDEA

- Debagoiena > 04-08
- Elkarrikzeta > 09
- Iritzia > 10-11
- Gutunak > 12
- Herriak > 15-39
- Kirola > 40-42
- Kultura > 45
- Sailkatuak > 46
- Eskelak > 47
- Denbora-pasa > 48
- Gazteak > 50
- Komunikazioa > 51
- Telebista-Irratia > 52
- Non-zer > 54-55

C-MAX urtemuga  
16.800€-gatik

Ford FocusC-MAX

MUGARRI AUTOAK

Araba Etorbidea, z/g  
ARRASATE

# iKER

### SUKALDEAK:

ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43

OÑATI: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48

### BAINUAK:

ARRASATE: Zarugalde 52 / 943 79 99 42

**FAGOR**

%25 DESKONTUA

SUKALDE ALTZARIETAN

Apirilaren 15etik ekainaren 15era

EKONOMIA > BERGARAKO EROSKI BERRIAREN PROIEKTUAK KEZKA AREAGOTU EGIN DU

# Dendarieiek "egoera larria" bizi dutela eta, gogoeta sakona eskatzen dute

**ITXITA** Bergaran, azken urtean sei denda itxi dituzte erdialdean, eta bat ere ez zabaldu; Arrasaten, sei hilabetean hogeit bat denda itxi dituzte

**UDALENGANA** Arrasateko eta Bergarako dendarieiek udalengana jo dute laguntza eske, eta hitz egiten jarraituko dute elkarlan bide bat topatzeko

**IKUSPUNTUAK** Beste herri batzuetan ere kezkatuta dauden arren, handien lehiarekin bizi izatera ohitu dira, eta dendak ireki egin direla esaten dute

**LEIRE KORTABARRIA > BERGARA**  
Bergarako Leizeaga industrialdean, Eroskik 1.500 metro koadroko saltokia egin nahi du. Horrek herriko dendariak protestan jarri ditu, eta berriro Debagoieneko merkatari txikien egoeraz hausnarketa eskatzen bultzatu ditu. Izan ere, "egoera oso larria da herri guztietan", Bedelkar dendarien elkarteko presidenteak, Juanje Amasorrainek, dioskun bezala.

Kezka horrekin jo dute Bedelkarrekoek Bergarako Udalaren-gana, eta Arrasateko Ibai-Arte elkartea ere hango Udalarekin batzarretan dabil. "Dendariok badakigu gure aldetik egin behar dugula, baina laguntza behar dugu", dio Amasorrainek. Euren iritziz, ezinbestekoa da lurralteko antolaketa arauak aldatzea. Gaur egun, horiek ahalbidetu egiten dute, adibidez, Bergara bezalako herri baten 13.000 metro koadroko merkatari-gune bat zabal-tzea, eta hori herritik kanpo iza-tea. Bestetik, dagoen legedia ez dela betzen salatzen dute: industrialdeak merkatarizarako era-biltzea debekatzen den arren, saltokia ireki nahi dutenek lurra-ker eros ditzakete eta gero lur erabil-pen aldaketa proposatu udalari.

**SALTOKI ERTAINAK, REDU BERRIA**  
Merkataritza txikiaren sektorearen egoera azaltzeko faktore batzuk hauek dira: kontsumo

ohituren aldaketa, batez ere merkatari-gune handien alde; lehiakortasuna areagotu egin dela; merkatarien adin altua eta errelebu falta; merkatarien profesionalizazio maila baxua; teknologia berriak, eta denden bizi-iraupen motza. Dendarien arazoaren begi-bistako elementua

merkataritza-gune handiak dira. Arrasateko Ibai-Arte elkarteko Angel Alonsok beste ikuspuntu bat ematen du: "Gure arazoa ez da Arrasateko hiperra, Gasteizko saltoki handiak baizik. Auke-ran, hiper bat zabaldu behar badute, gurago dugu Arrasaten zabal dezatela beste inon baino".

Arrasatearrek Udalari eskatu diote "jendea herrian gera dadin baliabideak" ipin ditzala, eta jendea kontzientzia dadila "herrian egin daitezkeen erosketak herrian egitea dela onena".

Ez dira dendarieiek merkatari-gune erraldoien eredu kriti-katzen bakarrak: erakundeak

euklere zalantzan jartzen hasi dira eredu hori. Oso denbora motzean, hamarnaka mila metro koadro zituzten saltoki estali handi asko egin dira EAEn, hiri kan-pooldean, autoz joan beharrekoak hortaz. "Konturatu dira hori astakeria zela, lursail estrategikoak hartzen zituztelako saltoki horiek, eta gero espekulatu egi-ten zutelako horiekin; horko ete-kinak multinacionalendako dira, hau da, ez dira hemen geratzen", dio Juanje Amasorrainek. Hala, gehienezko hedadura mugatu egin dute, baina, dendarien esanetan, ez behar adina: hala, merkatari-tza-gune bezala konsideratzeko, 5.000 m<sup>2</sup> estali izan behar ditu.

Hala, beste eredu bat bultzatu nahi du orain Eusko Jaurlaritzak: tamaina ertaineko merkatari-guneak hiriburuetako eta eskualde-burueta erdigunean. Denda-kate handiek eta denda txiki-ek tokia izango lukete horietan; gainera, autoarekiko mendekotasuna saihestuko litzateke. Arrasaten, adibidez, nahi dute horrelako bat ipini. Dendartean Gipuzkoako dendarien elkarrekin dioenez, bere bazkideen artean denetariko iritziak daude honen inguruan.

**ELKARBIZITZAREN BILA**  
Kezka orokorra da Debagoiene-an; baina, herriaren arabera, modu batera edo bestera ikusten da. Hala, Aretxabaletan edo Oña-

## Dendariak erreleburik gabe geratzen ari dira

Debagoiendarren gastu ihesaldia ibarretik kanpoko komertzioetara begi-bistako isla du gure herrietako kaleetan. Hala, Bergaran, azken urtean, sei denda itxi dituzte erdialdean, eta oraintsu bakarrik zabaldu dute pare bat: erdialdean, lokal guztiak hartuta, 10.000 m<sup>2</sup> daude hutsik. Arrasaten ere antzeko zerbaite gertatzen ari da: azken sei hilabeteotan hogeit komertzio itxi dituzte, tartean herrian oso ezagunak ziren urte askotako negozio familiarrak. Zenbaitetan, itxi den dendaren motako besterik ez da geratu. Dendekin batera, zerbitzu batzuk desagertzen doaz: esaterako, herrietako zinemak.

Auzoetan aurreratuago dago prozesu hori. Hala, Bergarako Labegaraietan ekonomatoa dute, baina Bedelkarreko Juanje Amasorrainek iragartzen duenez, "jabea erretiratzen denean, itxi egingo da denda".

### BESTE BATZUK ZABALDU

Dendariak arduratuta daude, eta egoera larria dela azpimarratzen dute. Hala ere, herri batzuetan, egoera horrekin bizi izatera ohitu dira dendarieki, eta ez daude bereziki kezkatuta: "Garai txarragoak bizi izan ditugu", dio Aretxabaletako merkatari-elkarteko Alberto Asensio dendariak.



GALERIA Dendak itxita, herriko bizitzak galtzen du.

Oñatin ere, denda batzuk itxi dira, baina beste batzuk zabaltzekotan dira. Eurek asko komentatzen dutena da oñatiarrek Gasteizen, Donostian... erosteko joera handia dutela, batez ere asteburuetan; dendak itxtea horren ondorioa da. Euren proposamena da herriko dendak dinamizatzea bezeroei erraztasunak, promozioak, opariak... eskainiaz.



cayenne

Superb

**BERE KATEGORIAKO  
HANDIENA**

**Škoda Superb**  
1.9 TDI 105 ZP 22.020 €-tik aurrera.

Škoda Superb 1.9 TDI 105 ZP Classic, Penintsularako eta Balearrtarako gomendatutako salneurria. Garraioa, zergak, eta Prever plana barne, batez besteko kontsumoa: 5,6 l/100 km. CO<sub>2</sub> isurketa 151 g/km. Argazkia Elegance akaberadunarena da.

**UDALAITZ** Gipuzkoa etorbidea, 36 • ARRASATE • 943 71 18 70



XABIER URTEZLA

BERGARA Azken urtean, sei denda itxi dituzte Bergaran; guziak erdigunean zeuden.

#### DEBAGOIENEKO ZIFRAK

> **BIZIRAUPEN MAILA BAXUA**  
Denda berrien %11k ez dute urtebete irauten, eta %55ek itxi egiten dute bost urteko epean.

> **GERO ETA DENDA GUTXIAGO**  
Ibarrean, 1995ean 793 komertzio zeuden; 2004an, 698ra jaitsi zen kopurua, Eustaten arabera.

> **MERKATARITZA DENTSITATEA**  
Debagoienekoa EAEko baino baxuagoa da: 1.000 biztanleko 12,2 denda zegoen 2003an, EAE baino 1,7 puntu gutxiago.

> **GASTU IHESALDIA**  
Arrasaten, 9.160.800 euroko ihesaldia zegoen 2002an, hango PERCOaren arabera; Oñati, 2005ean, 10.133.700 eurokoa.

> **GASTUAREN ERDITIK GORA**  
Arrasaten, 2002an, biztanleen %33k pertsonen ekipamendurako aurrekontuaren erdia baino gehiago kanpoan gastatzen zuten.

Juanjo Amasorrain > Bedelkarreko presidente


## "Foroak sortu behar dira, eta saltoki handien ondorioak jakinarazi"

L.K. > BERGARA  
Bergarako industrialde baten Eroski bat zabaltzekotan aridirela jakin da. Herriko merkatarien elkartearren kezka areagotu egin da.

Zein da zuen kezka nagusia?  
Gu ez gaude Eroskiren aurka, merkataritza sistema berri horren aurka baizik, herritik kanpo dauden saltoki handiena, alegia.

Zer egiten ari zarete?  
Udalarenganajo dugu. Gure eskaera da Merkataritza zinegotzi bat egotea; gero, merkataritza eredu hau eztabaidatzeko foroak sor daitezela.

Zer jakinarazi nahi duzue foroetan?  
Nahi dugu jendeak jakin dezala merkataritza-guneen ereduak zer



dakarren: oso erakargarriak dira, baina autoarekiko mendekotasuna, gasolina gehiago gastatzea eta, azken baten, produktu garestiagoa; eta herriak eta, batez ere, auzoak, hutsik geratzea. Eredu hori nahi bada, aurrera; baina ondorioak jakinda.

#### BESTE EREDU BAT

## Kataluniako legea, saltoki handiekin zorrotzagoa

Eroski Barik Hobeto plataforma sortu dute, Ondarroan zabaldu nahi duten saltokiaren aurka, eta bihar, zapatua, kontzentrazioa egingo dute Abadiñon. Dendarien kezka "orokorra" da, dio Dendariean Gipuzkoako dendarien elkarreak.

Dendariek mobilizatzen ari dira, baina legedia aurka dute. 40.000 m<sup>2</sup>-ko saltoki erraldoirik ezin dira gehiago egin, baina bai, adibidez, 13.000 m<sup>2</sup>-ko bat Bergara bezalako herri baten. Dendarie askok Kataluniari begiratzen diote: han, esaterako, 120.000 biztanleko hiri baten, 1.200 m<sup>2</sup>-ko gune bat merkataritza-gune handi konsideratzen da. Gainera, guneok biztanleria dagoen lekuetan bakarrik zabal daitezke, etxebizitzaz ingurueta.

**Gune handietan erosea norberaren aukera dela onartzen dute dendariek, baina ondorioak jakinda**

**Jaurlaritzak herri erdian kokatutako saltoki ertainak bultzatu nahi ditu, eta Arrasaten egin nahi du halako bat**

tin, denda batzuk itxi dituzte, baina beste berri asko dago. Bi urtean, podologia zentro bat, umeendako arropa denda, osasunzentroa, hiru taberna... zabaldutituzte, eta gehiago irekitzeoak dira: ile-apaindegia, loradenda, bi taberna... Aretxabaletako dendarien elkarteko Alberto Asensio ordezkarriak onartzen du lehia handia dagoela, baina ez Gasteizena bakarrik: "Arrasateren era gina betidanik izan dugu", dio.

Bestetik, dendariek onartzen dute merkataritza-gune handiak "oso erakargarriak" direla, Amasorrainen hitzetan: estaliak, dena eskura, aparkalekuekin, zerbitzu askorekin, oso ordutegi zabala-rekin eta zapatuetan ere egun osoan zabalik. Hala, erosle askok han aurki ditzakete herriko dendetan faltan igartzen dituzten ezaugariak, bizitza estilo berriei egokituak. Bedelkarreko presidentearen esanetan, ordea, "jende askok ez daki eredu horrek zer dakarren: besteak beste, lanpostu asko galaraztea eta baldintza eskaseko lanpostuak sortzea; bestetik, herriko dendetan jasotzen den tratua eta zerbitzua ez dute han jasotzen".

Saltoki handien fenomenoa arrakasta eta etorkizuna duela argi dago, baina etorkizun horretan herriko dendek eta ekonomiak ere bizi irauteko modua dutela uste dute dendariek, eta horiek aurkitzea eskatzen dute.

# ION LEIHOAK

## P.V.C., ALUMINIOA ETA POLIURETANOA

- LEIHOAK • HORMA ARMAIRUAK
- ATEAK • ZOLUAK



20500 ARRASATE **Erakustoki eta lantoki berria**  
Debagoiena industrialdea. Telleria kalea 4, 11.atea. P.K.172  
Tel.: 943 79 11 35 Faxa: 943 77 31 20

01003 GASTEIZ  
Olaguibel 51  
Tel./Faxa: 945 26 71 73





KARTOIA Ohiko zaborraz gain, kartoia eta papera da ibarrean gehien birziklatu den hondakina: guztira, 2.936 tona.

**INGURUMENA > HIRI HONDAKINEN KUDEAKETA**

## Mankomunitateak iaz 28.596 tona hondakin jaso zituen ibarrean

Debagoieneko biztanle bakoitzeko batez beste 463 kilo zabor batu zituzten iaz

Ibarreko lau herritan lur azpiko zazpi edukiontzii piniko dituzte guztira 2006an

**IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA**  
Debagoieneko Mankomunitateak hiri hondakinak, etxe hondakin handiak, beira, papera eta kartoia, pilak, olio, material arriskutsuak, arropa inausketaiko hondakinak, hondakin solido geldoak eta Garbiguneak kudeatzen ditu.

Mankomunitateak 2005eko hiri hondakinen kudeaketa txostenetan aurkeztu berri du, eta txosten horren arabera, gaikako hondakin bilketaren maila ona man-

tendu da. Hondakin guztiak batuta iaz 28.596 tona jaso zituzten ibarrean; biztanle bakoitzeko batez beste 463 kilo zabor urtean; eguneko 1,27 kilo.

### AURTENGORAKO ASMOAK

Ingurumen batzordetik esan dute hondakinen kudeaketa maila onari eutsi nahi diotela eta horretarako proposamen berriak lantzen dihardutela.

Besteak beste, maiatzean hasiko dira landa auzoetako

zabor bilketa egiten. Gainera, puntu berde mugikorren eta komertzioetako kartoi bilketa- ren maiztasuna ugaritu egingo dute. Bestalde, 2006an ibarrean lur azpiko zazpi edukiontzi ipintzeko erabakia hartu du Mankomunitateak: hiri Arrasaten, Bergaran bi eta bana Eskoriatzan eta Aretxabaletan.

Gainera, etorkizuneko herri-tarrak heztekoi asmoz Eskola Agenda 21en lanean segituko dute.

### OLIOA ARRASATEN

Erabilitako olioaren eta etxe hondakin arriskutsuen bilketa zerbitzuan hainbat aldaketa izan dira eta horrek arazoak sortu ditu Arrasaten. Lehen hilabeteko bigarren eta azken egubakoitzetan egiten zuten bilketa; orain, ordea, txandakako egubakoitzetan.

tan egiten da bilketa eta horrek maiztasuna aldatzen du.

Bilketa egunak zehazteko egutegiak banatu dituzten arren, egokitzen ez den egunean edo lekuak olio potoak lagatzen ditu jendeak. Mankomunitateak herritarrei eskatu nahi die kamioirik ez dagoela ikusiz gero, olio potoak bertan ez lagatzeo.

Bide batez, datozen olio bilketak noiz eta non egingo dituzten jakinarazi dute. Apirilean hurrengoa 21ean izango da, Laubide plazan, maiatzean, berriz, 5ean Mondragones kalean eta 19an Laubide plazan. Antzuolan, Elgetan eta Eskoriatzan ere egun horietan jasoko dute; Aretxabaletan eta Eskoriatzan apirilaren 10ean eta 24an; eta Bergaran eta Oñatin, berriz, apirilaren 22an eta maiatzaren 6an.

Chevrolet Aveo berria, kanpotik miretsi edo barrutik gozatu!



**Giauto 902 345 225**

Otaola Etorbidea, 27 · EIBAR · Tel.: 943 70 08 41  
Karobi Industrialdea z/g · OLABERRIA · Tel. 943 88 51 50

[www.chevrolet.es](http://www.chevrolet.es)

Chevrolet Aveo berria

Chevrolet gehiago da



SARRERARIK GABE

**60 €/hilean – LEHEN URTEAN**

**120 €/hilean – HURRENGO 100 KUOTAK**

PREVER PLANA GASOLINA BARNE. %5,80ko UTB

**Aveo 1.4 LS 16 v**

Aveo 1.4 LS 16 v modeloa (ez da irudian datorren modelo). Salneurria 9.975,50€ (Prever Plana gasolina eta promozioa barne). Kuotak: 1etik 12ra 60€ eta 13tik 112ra 120€. Guztira finantzatutako kopurua: 12.969,39€. TIN: % 5,10. UTB: %5,80. Irelkitze komisioa: % 2,5 (249,39€). Beste promozietarako eskaintza ez da metatzen, 2006/04/15 arte baliagarria Penintsulan eta Balear Uharteetan. Finantzaketa: Banco de Credito SAK finantzatzen du, RBE: 873/06. Kontsumo mistoa (l/100 km): 6,7-7. CO2 emisioak (g/km): 160-173.

### LANA

## Langabeziak behera egin du ibarrean martxoan

Debagoienean langabe kopuruak gora egin duen herri bakarra Antzuola da

### I.A. > BERGARA

INEMeko datuen arabera langabezia tasak behera egin du martxoan Hego Euskal Herrian: %8,4tik %8,2ra. Gipuzkoan 861 langabe gutxiago zenbatu dituzte.

Ibarrean ere beherakoa izan da langabe kopuruaren joera. Urtarrilean 2.003 ziren langabeak eta martxoaren amaieran, berriz, 1.917. Tasari dagokionez, %6,46tik %6,19ra pasa da.

Datuok erakusten dute ibarreko langabezia tasa oro har txikiagoa dela Hego Euskal Herriko tasarekin alderatuz gero.

### IBARREAN 86 GUTXIAGO

Urtarriletik martxora Debagoienean 86 langabe gutxiago dago.

Ibarrean Antzuola izan da langabezia tasak gora egin duen herri bakarra; urtariletik martxora bost langabe gehiago ditu, guztira, 49.

Beherakada nabarmena, berriz, Arrasaten eta Aretxabaletan izan da: 48 eta 22 langabe gutxiagorekin, hurrenez hurren.

### Langabezia Debagoienean

Herria	Kop.	Tasa
ANTZUOLA	49	5,38
ARETXABAleta	187	5,79
ARRASATE	800	6,91
BERGARA	459	6,40
ELGETA	25	5,08
ESKORIATZA	133	6,40
GATZAGA	2	1,50
OÑATI	262	4,85
<b>DEBAGOIENA</b>	<b>1.917</b>	<b>6,19</b>

Juan Ramon Garai > Intxorta taldeko ordezkaria

## "Zauriak ez dira itxiko, 70 urte pasatu behar izan dira-eta egoera konpontzen hasteko"

UBANE MADERA > ESKORIATZA  
Atzo, eguna, Intxorta 1937 kultura taldeak berbaldia egin zuen Eskoriatzan. Besteak beste, jakinarazutzen Izen guztiak, aurpegi guztiak ekimena lantzen dabilzala orain. Horregainean galdetu digu Intxortako kide Juan Ramon Garairi.

Izen guztiak, aurpegi guztiak; zer da hori?


Oktubre Talde moduan, Belaunaldi Etena liburuan, errepresioa jasan zuten askoren izenak sartu genituen. Baino gehiago lantzen ibili gara eta konturatua gara jende askoz gehiagok jasan zuela errepresioa. Artxiboak-eta aztertzen ibili gara eta lortu ditugu askoren izenak. Adibide bat ematearen, 154 gudari atxilotu zituzten (ibarrekoak); horietatik 50i heriotza-zigorra ezarri zieten, 19 fusilatu egin zituzten eta beste 31ri konmutatu egin zieten heriotza-zigorrera eta ipini zieten 30 urteko gehi egun bateko kartzela zigorra. Guk ditugu guztiak izen eta abizenak.

Aurkitu ditugu, baita ere, Asturiastik Kataluniara eta han-dik Frantziera alde egin zutenen izen-abizenak. Guztiak elkarrekin ipini zituzten Gurs-eko konzentrazio-eremuan (Frantzian). Guztiak Debagoienekoak.

Eta fusilatuez, desagertuez... gain, errepresio handia izan zen. Besteak beste, maisu-maistra asko depuratu egin zituzten (47 ibarrekoak). Lanpostutik bota zituzten langileak ere aztertu ditugu, Zerrajerakoak, batez ere.

Horien guztien izenak ditugu; orain, izenen ondoan argazkia ipini gura dugu, beste seriosasun bat ematen diolako.

Argazkiren bat izanez gero, zer egin behar da?



Intxorta elkarteko kide izateaz gainera, Oktubre Taldeko kide izan zen Garai. GOIENKARIA

**"Konturatu gara jende askoz ere gehiagok jasan zuela errepresioa"**

**"Fusilatutakoak, desagertutakoak... kontuan hartu ditugu"**

Webgunea abiarazi dugu: [intxorta.org](http://intxorta.org). Hor ipiniko dugu gurekin harremanetan zela ipini.

Horrez gainera, zer gehiago izango da webgune horretan? Kultura taldearen estatutuak

ipini ditugu. Eta apurka joango gara dugun materiala sartzen.

**Halako ekimenekin hasi dira gerrako zauriak sendatzen?**

Zauriak ez dira sekula itxiko. 70 urte pasatu dira konpontzen hasteko, eta horrek esan gura du fusilatu zituztenen alargun gehienak hilda daudela. Bakarra bida, arrasatearra. Seme-alabak ere mordoa hil dira.

**Hurrengo hitzordua ekainean da, Arrasaten, ezta?**

Bai, ekainean ipiniko dugu erakusketa dugun material guztiarekin eta ekainaren 11n omenaldia egingo dugu.

ZERBITZUAK > SURADESAREN LAGUNTZAK

## Iogailuak ipintzeko tramatatu ditu laguntza gehienak Suradesak

Laguntza eskatu dutenen kopurua handitu egin da, birgaitze-obrak hasi baino lehen tramatatu dituztelako laguntzok

U.M. > BERGARA

Guztira, bueltatu behar bako 318.663 euroko dirulaguntzak tramatatu ditu Suradesak ibarreko partikularrendako. Eskatzaleek, batez beste, 460 euroko laguntza jaso dute eskaera bakoitzeko, eta guztira 1.061 espidente tramatatu ditu hiri birgaitzeaz arduratzen den Suradesa era-kundeak. Hala jakinarazi dute prentsa ohar batean.

Herrika begiratuta, Arrasaten tramatatu dituzte eskaera gehien: 415.

Horiek 2005eko jardunaldiari dagozkion datuak dira.

**GARAIZ EGIN BEHAR ESKAERA**

Suradesak jakinarazi digunez, bestelako urteetan baino espidente gehiago tramatatu zituzten 2005ean. Horren arrazoia da "birgaitze obren arduradun lotuta".

nak Suradesarekin harremanetan ipini direla obra hasi baino lehenago, eta baldintza hori erabakigarria dela indarrean dauden laguntzak aprobaezko".

**IGOGAILUAK ETA ETXEAK**


Dirulaguntza horiek, batez ere, igogailurik ez zuten etxeetan igogailua ipintzeko erabili dituzte, Suradesako gerente Luis Laskurainek esan digun moduan: "Bergaran, adibidez, Matxiategi kalean igogailu mordoa ipini zituzten; Arrasaten ere bai, San Andres auzoan".

Bestelako obrak ere aipatu dizkigu Laskurainek. "Aretxabaletako Andre Mari auzunean 100 bat etxebizitzaren estetika hobetu eta kondentsazioak eragiten zituen hezetasun arazoak konpontzeko lanak egin zituzten; eta bestelako obraren bat nabarmenzearren, Elgetan, Salvador kaleko etxeen atzeko partearen irudia berritu dute".

2006ko jardunerako, beriz, oraindik ez dutela gauza handirik lotuta jakinarazi digu; baina, baita ere, akaso zerbait landuko dutela datozen urteotan Elgetako zenbait fatxada-rekin lotuta.

## Datuak herriz herri

HERRIA	TXOSTEN KOPURUA	OBREN AURREKONTUA	ITZULI BEHARRIK GABEKO DIRULAGUNTZA
ANTZUOLA	32	376.332,65 €	8.679 €
ARETXABAleta	64	540.971,77 €	34.745 €
ARRASATE	415	2.108.668,25 €	108.777 €
BERGARA	338	1.683.711,16 €	56.665 €
ELGETA	51	324.640,51 €	42.003 €
ESKORIATZA	19	84.456,51 €	14.943 €
LEINTZ GATZAGA	5	62.811 €	6.795 €
ONATI	137	1.339.844,84 €	46.056 €
<b>GUZTIRA</b>	<b>1.061</b>	<b>6.721.437,45 €</b>	<b>318.663 €</b>



# URONDO

Elektrizitatea

- \* Elektragaiak
- \* Instalazioak
- \* Automatismoak

- \* Proiektuak
- \* Argiztapena
- \* Bobinaketak

Musakola auzoa 26. Kataide Industrialdea 5. pabilioia. 214 posta-kutxa • ARRASATE  
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76



ESKORIATZA Hiru lantegi ditu Tesak, bat Eskoriatzan.

GOIENKARIA

EKONOMIA &gt; ELEKTRONIKA, ETXEGINTZAKO SARRAILAGINTZAN

# Eskoriatzako Tesa enpresak 30 milioiko inbertsioak egingo ditu

Fakturazia bikoitzu egin gura du 2010erako eta etxebizitzetako sarrailagintzan elektronika sartzeko apustua egingo du

OIHANA ELORTZA > BERGARA  
Tesk 30 milioi euroko inbertsioak egingo ditu datozen bost urteotan. Dituen hiru lantegietan egingo ditu: Eskoriatzan, Madrilen eta Irunen. Inbertsioa egingo du produktu berriak garatzeko, lana berrantolatzeko eta balio erantsi handiagoa duten produktuak merkaturatzeko.

Tesk 50.000 erreferentzia baino gehiago ditu ohiko sarrailagintzan eta egungo fakturazia bikoitzu egin gura du 2010erako, 200 milioira heldu gura du. Horretarako, etxegintzako sarrailagintzan elektronika sartzearen aldeko apustua egin du.

**LINEA BERRIA ESKORIATZAN**  
Inbertituko dituen 30 milioi eta bost milioi Eskoriatzako lantegian linea berria jartzen inbertituko ditu. PVDzko azaleko akabera duten piezak egiteko linea izango da. Gainera, galvanizatu automatikoaren linea ere ezarzen ari dira. Berrikuntza horiek, piezen fabrikazio denbora murriztu egingo dute eta balio erantsi handiagoa duten produktuak merkaturatzeko dituzte.

Inbertsioetarako duten boste bost milioi euro lantegiak berrantolatzen gastatuko dituzte: bulegoak berriku egingo dituzte, laborategietan inbertsioak egingo dituzte eta makian lekuz aldatuko dituzte. Gainera, milioiak produkzio bideak hobetzeko inbertituko dituzte, eta baita produktua ateratzeko egun dituen lau linea hornitzeko eta behar dituzten baliabideak lortzeko. Fakturazioaren %4 ikerketara eta garapenera bideratuko ditu.

**790 LANGILE GUZTIRA**  
Tesk 790 langile ditu Eskoriatzan, Madrilen eta Irunen, eta produkzioaren %35 Europara, Ekialde Ertainera eta Magrebera esportatzen du, besteak beste.

&gt; ERROMESALDIA

## 09:30ean hasiko da Arantzazurako ibilaldia, eta errepidea ordubete lehenago itxiko dute

Zapatuan egingo dute Gipuzkoako elizbarrutiak urtero antolatzen duen Arantzazurako ibilaldia. 09:30ean abiatuko dira erro-mesak Soraluze hotelaren paretik. Ordubete lehenago itxiko dute Arantzazara joateko errepidea ibilgailu guztienak eta martxa pasa ahala ireki egingo dute. Joan Mari Uriarte Gipuzkoako gotzainak gidatuko du erro-mesaldia. 12:00ak aldera iritsiko dira Arantzazu gainera, eta han ekitaldi laburra zuzenduko du gotzainak. 12:20 aldera, autobusek itzulerari ekingo diote. Izan ere, Oñatira jaisteko autobus zerbitzu berezia egongo da.

&gt; 'APARTHEID'-AREN AURKA

## Auto karabana eta ekitaldi politikoa egingo dituzte iluntzean Oñatin, konponbidea aldarrikatzeko

Konponbidea aldarrikatzeko, auto karabana, manifestazioa eta ekitaldi politikoa egingo ditu iluntzean Oñatin Ezker Abertzaleak. Aste guztiaren hainbat ekintza eta hitzaldi egin dituzte Debagoieneko herrieta. Atzo, adibidez, Joseba Permach izan zen Aretxabaletan. Gaur, egubakoitz, herriz herriko martxa bukatuko dute Oñatin. 19:30erako, eskualdeko auto karabana Oñatiko plazara iritsiko da. Ondoren, manifestazioa egingo dute eta gero ekitaldi politikoa. *No apartheid* da gaia eta Mahai Nazionaleko kide batek eta Ereitzen herri ekimeneko Marijo Altubek hitz egingo dute.

&gt; EGIBAR, IMAZ ETA ARTZALLUZ ARETXABALETAN

## EAJko ordezkariak gonbidatu ditu Aretxabaletako Udal batzordeak egungo egoera aztertzeko

Aretxabaletako Udal batzordeak EAJko hainbat ordezkari gonbidatu ditu egungo egoera politikoaz berba egiteko. Gaur, egubakoitz, Josu Jon Imaz etorriko da. Hain zuen ere, egungo egoera zertan den aztertuko du eta gerora begira ere jarriko da. Due-la aste pare bat Joseba Egibar etorri zen, oraindik su-etena iragartzeke zegoenean, eta maiatzaren 18an Xabier Artzalluz etorriko da, egoerari buruz hitz egitera eta bere liburua aurkeztean. Imaz udaletxeko ganbaran egongo da gaur, 19:00etan, eta hitzaldia irekia da; galderak ere egin daitezke.

&gt; IKASLEEN GREBA

## Bologna Prozesuaren aurka eta eskubideen alde itzialdia eta greba egin dituzte asteon ikasleek

Ikasleek greba eta itzialdia egin dituzte aste honetan, Ikasle Abertzaleak taldeak deituta. Unibertsitate mailan, Bologna Prozesuaren aurka itzialdia egin dute astean HUHEZIn. Berbaldiak, konzentrazioa eta antzerkia izan dituzte, besteak beste. DBHko ikastetxeetan, berriz, ikasleen bederatzi eskubideen alde greba egin zuten egunean. "Eskubide horien artean dago euskal ikasteko eskubidea", esan digu Ane Mendikute bergararrak. Bergaran, adibidez, hitzaldiak eta xake lehiaketa izan zuten atzo gaztetxean.



# LASAGABASTER

www.lasagabaster.com

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

INGURUMENA > PARKE NATURALA

# Aizkorri-Aratz parke natural izendatu du Jaurlaritzak

19.401 hektarea ditu eta Gipuzkoako natura parkerik handiena da; EAEn Gorbeia da handiena

USOA AGIRRE > ARRASATE  
Aizkorri-Aratz parke natural izendatu du aste honetan Jaurlaritzak. 1996an esan zuen Jaurlaritzak Aizkorri-Aratz parke natural izendatu nahi zuela, eta hamar urte geroago izendatu dute.

Natura parke berriak 19.401 hektarea ditu, 15.509 Gipuzkoan eta 3.892 Araban. Besteak beste, Leintz Gatzaga, Eskoriatza, Are-

txabaleta eta Oñatiko lurra bilden du parkeak.

Izendapen horrekin lortu nahi dutena da Aizkorri-Aratzeako natura balio eta baliabide garrantzitsuak babestea eta kanpoko inpaktuak ekologian eta paisaian eragin ditzaketen kalteak saihestea. Talde ekologistek, hala ere, salatu dute natura parkeak ez duela babes perimetrorik eta natura parketik kanpo

geratu direla jada bertan harrobiak edo aisialdi guneak egitea aurreikusi diren lekuak.

## GIPUZKOAKO HENDIENA

Aizkorri-Aratz aldea Gipuzkoa eta Arabako mugan dago eta Arabako lau udalerrik eta Gipuzkoako zazpi osatzen dute. Hura da Gipuzkoako parke naturalik handiena eta EAEn bigarren handiena; lehenengoa Gorbeia da, 20.000 hektarearekin. Parkea Araba eta Gipuzkoako erakundeek kudeatuko dute eta patronatu bat sortuko dute.



nolako ikasketak, halako etorkizuna

Urtzi Agirretxe,  
Irakasle ikasketak.

"hartzen dudan formazioa gizartearren eta hezkuntzaren aldaketetara egokitzen da"

www.mondragon.edu

## kontsumoa



Espaniako zortzi kanpinen maila erdipurdikoa da.

GOIENKARIA

## Espaniako kanpinen segurtasun maila onargarria baino ez da

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA

Europako 79 kanpinen segurtasun maila neurtu ostean, Espaniakoan onargarria baino ez dela jakinarazi dute. Izan ere, Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarteak Espaniako 20 kanpinekin batera Belgika, Italia eta Portugalgoak ere aztertu ditu. Ikertu dute, besteak beste, ebakuazio ahalemena. Horren arabera, bi kanpinetan arazoak egongo liratuke, sarrerak itxita daudelako eta jende askorendako leku dagoelako. Hala, emaitzarik txarrenak ez dituzte kanpinek eurek eragin, inguruak baizik. Izan ere, kanpinak inguru arriskutsuan daude (sute arriskua, errepideak, argiteria kableak...). Horrenbestez, Espanian ikertutako 20 kanpinetatik, zortziren maila erdipurdikoa da eta gainonerakoena onargarria baino ez. Hala ere, Belgika, Italia eta Portugalgo kanpinen egoera kaskarragoa da.



## Butano bonbonen prezioa garestitu egin da

Apirilaren 1etik ekainaren 30era bitartean butano bonbonaren prezioa 1,11 euro igoko dela jakinarazi du Industria Ministerioak. Igoeraren arrazoia da lehengaien eta pleitatzate-prezioen gorakada. Hain zuzen ere, 12,5 kiloko gehienezko prezioa 11,24 euro izatetik 12,35 euro izatera pasako da.

## 'Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen gida' banatu dute

Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak kaleratutako *Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen gida* ibarreko etxeetan banatu dute. Oinarrizko eskubideez gainera, merkataritzako alor zehatzetako informazioa aurkituko dugu bertan; baita zenbait helbide erabilgarri ere.

## Automobilien matrikulazioak %7 gora martxoan

Datu guztiak kontatu gabe badaude ere, automobilien matrikulazioak %7 egin du gora martxoan, guztira 160.000 auto matrikulatzeari. Bost hilabetean salmentek behera egin ostein, bolada txar hori amaitu eginga, eta martxo arteko salmentek iazko epe berekoak gainditu dituzte.

## Lasa eta Zelai-Zabal jatetxeak Espaniako onenen artean

*Restauradores* urtekariak *Especial gastronomia* gida kaleratu du. Espaniako 1.000 jatetxe onenen gaineko informazioa agertzen da gida horretan, eta Debagoieneko bi jatetxe agertzen dira: Bergarako Lasa eta Oñatiako Zelai-Zabal. Gida horiek daude gidan bertan agertzen diren jatetxeetan.

## gure artekoak

**URDEKI** > Oñatin, Zubillagako industria-gunean, lan egiten dute hiru lagunek txorizoak eta saiheski ondu eta adobatua egiten. Orain dela zortzi urte inguru hasi ziren eta euren asmoa da ahalik eta gehien ekoiztea.

Lauran Busca Agirre

## "Urbiako fondan ere proba daitezke gure txorizoak"

IRATI AGIRREAZALDEGI > OÑATI  
Baserrieta txerria hil eta bertan egin ohi dituzte txorizoak, odolos-teak... Oñatiko Urdeki enpresan, Lauran Buscak beste bi lankiderekin jarduten du; okela erosia eta txorizoak egiten dituzte, eta ondoren supermerkatu handietan saldu.

Nola ipini zenuten abian enpre-sa?

Udalak txerrikitegi ikastaroak antolatu zituen. Orduan sortu zen txorizoak egiteko enpresa txiki baten ideia. Instalazioak aprobetxatz eratu genuen enpre-sa hiru baxkidek. Ordukoetatik ni bakarrik nago orain beste bi lankiderekin.

Baserrietako txorizoekin alde-ratuta beste era batera egiten dituzue?

Ez dago ezberdintasun han-dirik. Makinak pixkatxo bat han-diagoak izan arren, gehienak baserrieta aurki ditzakegu: haragia xehatzeko, orea egiteko eta galkatzeko makinak. Hemen hozkailuak dauzkagu produku-tuak mantentzeko. Baserrieta askok ez dituzte kameretan gor-detzen, eta hori da alde nagusie-na. Batzuetan hona ekartzen dituzte txorizoak hutsean ontzi-ratzeko, eta ikusten dut nolako-ak diren.



Lauran Busca txorizo eta saiheskiekin Zubillagako pabilioian.

I.A.

## FITXA TEKNIKOAK

## &gt; TXORIZOA ETA SAIHESKIA

Urtean 160.000 txorizo pieza egiten dituzte; baita adobatutako saiheska ere.

## &gt; LEHENGAIAK

Basatxerri elkartearren bidez larrean hazitako txerrien okela ekartzen dugu; baita Berriztik, Felix Amezuaren hiltegitik ere.

## &gt; BLOGA

Urdekiren gaineko informazioa [www.goiena.net/blogak/urdeki](http://www.goiena.net/blogak/urdeki) helbidean aurki dezakegu.


## Nola merkaturatzen dituzue zuen produktuak?

LBE-Xare enpresaren bidez beste zenbait produkturekin bate-ra. Merkataritza-etxe handiera banatzen dugu batik bat. Ingru-roko denda txikiren batzuetan ere aurki daitezke eta Urbiako fondan ere proba daiteke.

## Etorkizunerako asmoak?

Produkzioa handitzea da gure nahia. Baino produkzioa handitzeko makina berriak beharko genituzke; eta horixe nahi dut nik, makina modernoagoak eka-rrri gure lana arintzeko.

## begi-bistan



Olandixo loretan  
(Arrasate)  
2006/03/29

Argazkia: Xabi Urtzelai  
Testua: Iraitz Agirreazaldegi

Zuhaitzak eta belardiak loretan ikusteak alaitasuna ematen du udaberrian. Beste batzuek, ordea, ez dituzte batere atsegin loretak, udaberriko landareen polena alergia iturri baita askorendako.

Har ezazu parte:  
Argazkia eta azalpentxoak  
bidali honako helbidera:  
[goienkaria@goiena.com](mailto:goienkaria@goiena.com)

## etxeko leihotik



Iban Arantzial > Goienako Telematika zuzendaria

## Herrixaren proiektu izatiak dakazen penak

Zailla da komunikabide baten lanian jardutia guria moduko leku politizauan. Goienan egiten doguna da: gertukua, ezaguna, Debagoieneko irakurri-xena, infor-maziñua lortu eta emoten dabena eten barik, albistie bezain-bestea iritzixai lekua egiten dotsan hedabidiez osatutako komunikaziño zerbitzu bat gara (irratia, telebista, Internet eta prentsa), aisiajdirako lekua beti daukagu gure medi-xuetan... Zailla da, benetan, danen gustorako lana egittia, baiña ez da hori proiektu honen helburu nagusixena. Edo bai. Bainaz zeiñen gustoko?

Baztarrekuen ahotsa jaso-tzia eginbiharra da guretzako, eta baztarrekua esandakuan ez dihardut politikaz edo alderdi politikuez bakarrik. Hor dare eskola publikua eta pribaua, hor dare erljiño pentsakera batekuak eta erljiño berbia entzuterik ez dabenak gura, badare Debagoiena kontzep-tuaren aldekuak eta kontrakuak...

Eta guk honen aldeko edo bestiaren aldeko dihardugu? Ba ez! Edo baita! Baiña batez be lan soziala dago gure egi-tekuen zerrendan gorengo. Komunikaziñua lantzen dogu herrixarendako eta herritarren datorren babesarekin.

**"Herritarrendak o sortzen dogu informaziñua, ez alde bateko hau edo hori pozteko"**

## &gt; Ahots differentiak

etara guran jarduten  
dogu beti, zurixaren eta  
baltzaren billa erreali-dade  
guztiei lekua  
egiteko. Zuri eta  
baltzaren billa Goienan,  
nahiz eta jakin grisa  
dala gehixenon kolore.

## &gt; Tokiko telebistak

jarriko dira hiriburue-tan. Harei be eskatzen  
dotset: ez deilla kontra-boteriaren telebistarik  
ez boteriaren telebista-rik sortu. Izan deixela  
herritarren telebista  
euskaldun bateratua.

## izen propioak



Aintzane  
Agirre  
ESKLATZAILEA



Jesus Mari  
Lazcano  
PINTOREA



Sergio Lopez  
MUSIKARIO

Gasteizko Hegaoalteko teklatu jotailea da Sergio Lopez. Apirilaren 3an kale-ratutzen *El Sueño y la Traición* taldearen lehen diskoa. Aurkezpen kontzer-tua bihar, zapatua, egingo dute Oñatiko g a z t e l e k u a n . Aurrez A pesar del tiempo eta Viento del norte maketak egin zituzten.

Bilbao Exhibition Center erakustazio-kak konbentzio-gelen gunea zabaldu du. Orain, hura izango da sarrera nagusia, eta itxura egokia emate aldera koadro bat ipini dute: Jesus Mari Lazcano pintore bergararraren *Bizkaialana*. Bizkai-ko mendiak ager-ten dira.

Marlaskaren autoaren debe-kuarekin, erabakitzeko Batasunak zer egin, baina bi gauza

egin gura ditu domekan: urtarrilaren 21ean BECen egin behar zuengauza bera, Bideginez pro-

zesuaren amaiera ekitaldia, ale-gia; eta Mahai Nazional berria aurkeztea. 38 lagunek osatuko

dute. Aitor Arantzabal bergararra Gipuzkoako arduraduna eta koordinatzailea izango da.

Aitor Arantzabal > Mahai Nazionaleko kidea

# "Prozesu politikoa atzeraezina egin behar da, konponbidea eterriko delako"

OIHANA ELORTZA > BERGARA

Lanean eszendentzia eskatu eta ilusioz eta gogoz ekin dio Aitor Arantzabalek datozen lau urteotarako hartu duen konpromisoari. "Herri honek bizi duen gatazka politikoa konponbidean jartzear" du helburu.

Bake prozesua, normalizazioa, konponbidea. Zerk du lehen-tasuna?

Ez dugu eragozpenik konponbide prozesuari bake prozesua deitzeko, baina ez dugu joko dialektiko hori ulertzen, EAJren iruzurra dela iruditzen zaigu. Normalizazioaren eta baketzearen joko arau demokratikoan Batasuna nola sartzen den ikus-teko erabiltzen dute. Guk beste guztiekin modu adostuan martxan jarri gura dugun prozesua-ren helburua da gatazkaren konponbidea ekartzea, marko demo-kratikoa eraikitzea adostasunean.

Politikarien lana bulegoetan, bileretan badago, nola hartu behar du parte herritarak prozesu horretan?

Elkarritzketak izan behar du gatazka gainditzeko bidea. Horretarako mahai bat edo foro bat eratu behar da. Herritarak, batetik, ordezkatuta egongo dira eragiletan eta, bestetik, kaleko mobilizazioak ere hor daude. Bilbon 80.000 lagun batu ginen eta ikusi zen badagoela baldintza sozial nahikoa prozesuari ekiteko. Euren hitza eta erabakia, herri kontulta bidez erabakiko dena, Madrilgo eta Parisko gobernuak onartzea errespetatzea izango da azken emaitza.

Ibarretxek ahalik eta azkaren gura du alderdien mahaia eratu. Zapaterok dio horrek ez duela presarik. Zuk zer iritzi duzu?

Ibarretxek esan du lehenengo egiazta egin behar dela su-etenia, eta horretan bat datoz biak. Su-etenia eta ETaren disoluzioa eskatuz pasa dituzte urteak; su-etenia etorri da eta orain egiazta-tu egin gura dute. Urratsak egin ordez, pilotu ETaren teilatura bota gura dute berriro. Ezker abertzaleak azken asteotan izan duen jazarpenarekin, ikusten da eurek ez dutela su-etenik eman, benetako estortsio ekonomikoa egiten dutela. Urratsak egin beharrean, ardurak ezkutatzenten dituze. Gure iritziz, lehentasuna alderdien mahaia du eta horre-tan bat gatoz Ibarretxerekin. Guri



Aitor Arantzabal bergararrak ilusio handiz eutsi dio Mahai Nazionaleko kide lanari.

O.E.

berdin digu noiz baina oinarri-sendoak jarri behar dira, aurre-akordioa egin behar da erabakitzeko nolako mahaia eratu, mahaieren forma eta metodolo-gia erabaki... Baina hori ere egin egin behar da, ezin da egiaztatze prozesuari begira egin eta pau-sorik eman ez. Presarik gabe baina etenik gabe pausoak emanez egin behar dugu aurrera.

**Ze jarrera hartuko du PPK?**

Orain artekoa erakutsi dute. Hemendik aurrerakoak, berriz, ez gaitu askorik kezkatzen, beti eurei begira egonez ez dugulako ezer aurreratuko.

**Possible izango da aurrera egi-tea PP barik?**

Bai. Gainera, PPren jarrera moldatzen ari dela uste dut. Oraingo mezuak hasierakoak baino lasaiagoak dira, leunagoak. Konturatu dira datorrena oso handia dela. Ekimen horrek ahal-bideratzen du prozesu politikoa martxan jartzear eta prozesu

**HELBURUA**

**"Marko demokratikoa eraiki behar da adostasunean, gatazkari konponbidea emateko"**

**ALDERDIEN MAHIA**

**"Mahaia eratzeak du lehentasuna, eta oinarri-sendoak jarri behar dira horretarako"**

**HERRITARRAK**

**"Herritarren hitza eta erabakia Madrilen eta Parisen errespetatzea da azken emaitza"**

horretan denok egon beharko dugu, eurak barne; eta sartzen ez badira, herritarak zigortu egingo ditu. Estatuan tirabirak izan dituzte, eta erregeak berak belarrietatik tira egin die. Marko politiko, juridiko eta demokratikoa eratu behar dugu, eta nork bere proiekta defenditu; hori lor-tzeko prozesuan sartzen bada, oso ondo.

**Presoen egoera hobetuko da?**

Asko kezkatzen gaitu gai horrek, oso gai delikatua da gure-tako. Sufrimendu handia dago eta norabide horretan asko joka-tuko dute, baina prozesu demokratikoa ezin dugu klabe horre-tan ulertu. PSOEk sinatuko luke bakea presoen truke, baina pre-soak espetxeen daude helburu politikoengatik. Badakigu mugimenduak egongo direla epe labur eta ertainean; adibidez, uste dugu 70 bat preso laster kalera-tuko dituztela, baina ekintza hori izango da gure artean kon-traesanak sortzeko. ETAk su-

etenai eman duela eta orain gober-nuak presoak gerturatu behar dituela pentsatzea kezkagarria da guretako. Oso mingarria da esatea, baina guretako lehenta-suna ez da hori, prozesu politikoa bera baizik. Prozesu politikoa ondo bidean baoa eta helburua lortzen badugu, presoak aske geldituko dira. Gure pun-turik ahulena presoak dira, eta min egingo digute. Askatuko eta hurbilduko dituzte batzuk, baina beste askori Parot edo *Gazta* eredu aplikatuko diente. Helburua da mahaia eratzea, hortik akordioren bat sortzea eta hor-tik herritarren hitza eta erabakia errespetatzea.

**Urtebete barru dira hautes-kundeak. Hasi da kanpainia?**

Askok diote sasoi txarrean egin direla urrats hauek, baina noiz ez dira hauteskundeak herri honetan? Momentua heldu da eta heldu egin behar diogu, eta guk dena emango dugu horregatik. Batasuna han egongo da.



zabalik

Estepan Plazaola

## Urte hasierako poz eta penatxoak

Urte hasierak askorentzat poz eta esperantza iturri handia den berria ekarri digu. Baino zurrara handirik izan barik, sortu didate niri poz eta nahiezik beste kontu batzuek ere. Penatxo hartu nuen GOIENKARIAKO hil-berri laburtxo batean, oraintxe hilabete, Felix Aranzabal Angiozarko itsuaren heriotzaren berri jakin nuenean. Etxean entzuna nuen astoan eramatzen zutela soinua jotzera Udalako jaietara. Espaniako Akordeoilarien Elkarteak 2 orrialdeko biografia polita du bere web gunean. 100 urte bete dira otsailean Elgeta, trikitilarien maisu handia, jaio zela. Gure herrietai hainbeste musikazale eta hainbeste hedabide izan arren, biek ere kankoan oihartzun handiagoa izan dute gure inguruari baino.

Haserre nabil aspaldian euskal-gintzako erakunde zenbaitekin elebietan edo gaztelaniaz bidaltzen dizigute-eta udalera beren idatzia. Euskara bera bakarrik nahikoa ez, antza. Baino, euskara dela eta, badut pozerako motiborik ere. Arratsaldeko 7etan Arantzadi ikastolako patioan dabil, jolasean Ayoub Aboubi, Marokotik orain dela urte eta erdi inguru etorritako 13-14 urteko mutiko gaztea. Euskaraz dihardu.

Garazi alabak, berriz, Ubaid Pakistandik orain dela hilabete beren gelara etorritako 7 urteko mutikoaren kontuak esaten dizkigu. Pozik dago lagun berriarekin. Udan pakistandar eskolak hartu nahi lituzke. Euskaraz moldatzentzira.

Lapurrik dabiltza Marbellan. Lapurretek ere ez digute zirrarakit eragiten. Ohituta gaude. Bergaran, norbaitek 2005eko Erramu Zapatu egunean Zubietako Zampantzarrerai bi dunba harrapatu omen zizkien eta durbok bueltatzea eskatu diote eskuluzeari: laga ditzala "diskreto handiz" hartutako lekuak, Zubietakoak aurten dunba guztiak joan daitezzen. Utziko ote ditu?

### "Urte hasierak poz eta esperantza iturri den berria ekarri digu"

### "Pena hartu nuen Felix Aranzabal Angiozarko itsuaren heriotzaren berri jakin nuenean"

## Goienkaria

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE  
Lehendakaria Estepan Plazaola Zuzendarri nagusia Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate Saitetako arduradunak Ubane Madera (Herriak), Edu Mendibil (G2a), Iñaki Iturza (Diseinua), Gotzon Arzelus (Publizitatea) **Erredakzia** Iker Barandiaran, Mirari Altube, Xabi Urtzela, Oihana Elortza, Leire Kortabarria, Aintzane Irizar, Iñaki Agirre Alzaldegi **Oinarrizko diseinuia** Goi Arana **Maketazioa** Alex Azkarate **Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundihaino, Natali Martinez, Zortzi Martín, Imanol Elortza, Ibaso Bereizbar **Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazioa** Agurtzane Gaintzaran, Ane Bereizbar, Iratxe Bengoa

#### EGOITA NAGUSIA

**BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • 132 posta-kutxatila • Tel.: 943 25 05 01 • Faxa: 943 25 05 13  
Posta-e: goienkaria@goiena.com

#### ORDEZKARITZAK

**ARRASATE** 20500 Otarra Lizentziatura 31 • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89  
Posta-e: arrasate@goiena.com

**ARETXABAleta** 20550 Durana 11 • 151 posta-kutxatila • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 45  
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93  
Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Posta-e: harpidetza@goiena.com  
**Lege Gordailua:** NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 18.935 ale • **Difusioa:** 17.680 ale.

OID erakundea  
ikuskatutako astekaria

#### LAGUNTZAILAK

Eusko  
JaurlaritzaGipuzkoako  
Foru AldundiaArrasateko  
UdalaBergarako  
UdalaOñati  
UdalaAretxabaleta  
UdalaEskoriatzako  
UdalaAntzuolako  
UdalaAramaioko  
UdalaElgetako  
UdalaLeintz Gatzagako  
Udala

## herritarra galdezka

OÑATIKO OLAKUA AUSOKO JOLASPARKEA

**Oñatiko Olakua auzoan, Txiki Txoko haurtzaindegiaaren ondoko jolaslekua apurtu egin dute aparkalekuak egiteko. Irakurle batek, kezkatuta, deitutdigugaldetzen ea betiko kendu duten. "Jolasleku berria egingo dute gero?", galdeztzen du.**

Erantzunaren bila jo dugu Oñatiko Udalera eta Oñatiko Udaleko Hirigintza Departamentuak erantzun digu baietz, gero jolaslekua berria egingo dutela, horixe onartu duela Tokiko Osoko Batzordeak. Beraz, aparkalekuko lanak bukatzen dituztenean, jolasparkea egingo dute berriro ere gune horretan.

#### DANBAKA

**"Aurten egingo dute Danbaka musika lehiaketarik?", galdeztzen du GOIENKARIAren irakurle gatzte batek.**

Iker Barandiaran Danbaka lehiaketako koordinatzaileari galdeztu diogu eta hona hemen erantzuna: "Bai, aurten egingo da Danbaka musika lehiaketa,

horrela agindu baikenuen bere garaian, hau da, bi urtetik behin antolatuko genuela. Dagoeneko lanean hasiak gara eta harremetan jarri gara Debagoieneko musika taldeekin jakiteko animatuko diren edo ez, eta geuk ere egiteko estimazio bat ibarrean diren taldeena. Lehiaketa udazkenean hasiko da eta datorren urteko urtarrilean jokatuko da finala. Lehenengo edizioaren ildotik jarraitu eta ez ditugu aldake-

#### Galdera egiteko:

Zerbaitetaz arduratuta bazaude eta gai horren gaineko informazio gehiago jaso nahi baduzu, bidaligu galdera eta geu jarriko gara harremetan dagokionarekin. Galdera egiteko bideak:

- Telefonoz: 943 25 05 01
- Faxe: 943 25 05 13
- Postaz: Goienkaria. Irizar jauregia. Barrenkalea 33. 20570 Bergara.
- Posta elektronikoz: goienkaria@goiena.com

ta handirik egingo; hori bai, lehiaketa hobetze aldera berrikuntza bat edo beste egingo dugu. Nabarmeneko da, esate baterako, webgunea sortuko dugula eta aurki sarean egongo dela. Lehiaketaren gaineko informazioa ez ezik, musikarekin lotutakoa ere jasoko du; bloga izango da eta musika talde zein bakalariek ere aukera izango dute euren blog pertsonala sortzeko. Beno, oraingoz hori, baina jarraituko dugu informatzen". Badakizue, hortaz, ibarreko musika taldeok: hasi lehiaketarako prestatzen.


#### ELGETAKO PILOTALEKUA

**Udal pilotalekua berritudetela-eta herritar batek zera jakin nahi du: izango da berogailurik frontoian?**

Udaletxera deitu dugu eta baietz esan digute: "Elgetako da lehen frontoi estalia irradiazio bidezko berogailu sistema duena. Hamaitetan egongo da berogailua; beraz, ikusleak 20 gradutan dauzen bitartean pilotariek ez dute berotasunik igarriko, giro-temperaturan egongo baitira, hamar gradutan, esaterako".

## marrakiz

Alex Ugalde



## Erretiroa eta erreforma

### Usoa Agirre

[www.goiena.net/blogak/tuttifrutti](http://www.goiena.net/blogak/tuttifrutti)

**O**saba Inixiok erretiroa hartu du. Berez oraindik ez ditu 65 urte bete, baina lantegiko lana utzi du (baserrikoak ere utziko lituzke, baina zailagoa izango zaio hori). Erretiroa ospatzeko bildu ginen atzo familiaok Baztarrikan. Zahartzaroa, erretiroa, lana... horrelakoak izan genituen mahaiaren bueltan berbetarako gaiak.

Josek esan zuen Portugalen erretiratzeari "reformar" esaten diotela. Pozik entzun zuen hori osabak eta inguruko ei ginen zien keinua; berak

erreformatzeko ordua duela eta baserriko lanak egin beharko dituela besteren batek. Gutxik entzun zuten esandakoa, inork ez zuen-eta aipamenik egin.

Erretiroaz ari ginela, galdera pare bat etorri zitzakizidan: Noiz hartu ahal izango dugu guk erretiroa, etxea ordaintzen 50 urte eman behar baditugu? Egongo da norbait guri erretiroa ordaintzeko prest?

Osaba Inixiok ere zalantza horiek zituen orain gutxi arte,

baina berak erretiroa hartu duenean aurkitu du soluzioa: egin ezazue guztiok lan 70 urte bete arte! Hori dioen legeren bat ateratzen badute baietzko bozkatuko dut nik. Asaldatu egin ginen guztiok. Baino, aizue, ez dut uste hain gaizki dabilenik.

## Loreak

Eneko Bidegain

[www.goiena.net/blogak/barraraino](http://www.goiena.net/blogak/barraraino)

**Z**ertarako dira loreak hirietako bide bazterretan, bide gurutzeetan eta

## plazara

Su-etenaren ondoren bizi dugun egoera berriaz idatzi du EAJKo ordezkarriak. Normalizazio politikoaren aurretik, bake prozesua

blindatzeak daukan garrantzia mintzo da eta bai bakea eta baita normalizazioalortzeko bidean, alderdi politiko guztien eta gizar-

teko eragileen lanak daukan garrantzia nabarmentzen du. "Herriz herri eta kalez kale piztu beharrean gaude bakearen sua".

Markel Olano \*

## Politikaren eta demokraziaren ordua

**E**Taren su-etenaren etorri da azkenean, eta ekarpen ika-ragarria da, baina ezin du ekintza isolatua izan. Kontua da eragile politikoaren eta gizarte osoaren implikazioa gaurdanik eman behar dela egiazko bake prozesuari bidea zabaltzeko.

Euskal Herriaren ibilbide politiko eta soziala azken hamarkada luzeetan markatu duen dinamika gainditzekeko unea bizi dugu. Ideia politiko eta euren defentsa politikoa, alde batetik; eta bortizkeriaren erabilpen politikoa, bestetik, nahasten ibili diren estrategiak gainditzekeko unea da gaurkoa.

ETAK Ezker Abertzalearen ideia politikoak armen bidez gauzatzeko ahaleginean jardun du, borroka armatuaren erabilrerarekin egitura politikoaren protagonismoa eta eraginkortasuna erabat indargabetuz. Logikak eta diseinu estrategiko armatuak nagusitasuna lortzen duenean, bide politiko eta zibilen aldeko apustua egiten duten ahalegina erabat geldiarazten da, mugimendu politiko orok ezinbesteko duen herri babesa nabarmen murriztuz eta aurkezten diren prozedurak erabat deslegitimatzu.

**BIDE POLITIKOEN ALDE**

Aipaturiko errealtitate ukaezin hori barneratzeko unea 2001eko maiatzaren 13an iritsi zitzaien ezker abertzaleari. Garai hartan, ETAK Lizarra-Garazi garaian sortu zen esperantza hankaz gora bota eta estrategia armatuari eutsi zion berriro, Batasunaren ibilbidea seko geldiaraziz eta herritarren babesera erdira



MIKEL ARROIABE

ekarri. Lezio gogor hori ikasi ondoren, badirudi bide politiko eta demokratiko hutsen aldeko apustua barneratu dela, eta hori gure herriarentzako berri ezin hobea dugu.

**IDEIAK ETA ARMAK NAHASTU**

Baina ez da, aipatutakoa, politika eta indarkeria nahasteko dagoen ahalegin bakarra. Espainiako estatuan hainbat eragile dago bide horretan. PPk eta PSOEk bultzatu eta onartu zuten Alderdien Legearen oinarrian, ideia politikoak jarduera armatuarekin nahasteko estrategia argia zegoen. ETA zein Batasuna gauza bera ziren, ideia berberak defendatzen zituztelako;

**"Politikaren eta demokraziaren aurka dauden eragileek porrot egingo dute, gizartearen gehiengoak bakearen aldeko apustu sakona egiten baldin badu"**

**"Alderdien mahai osatuko da eta gizarteak protagonismo handia izan beharko du"**

are gehiago, abertzetasun osoa identifikatzen zen ETArekin, ustez ideia berdinak partekatzen zituztelako.

**LEHENTASUNA: BAKEA**

Oraindik ere entzun daiteke horrelakorik, Ibarretxe lehendakariak euskal gatazka zaharra konpontzeko mahai gaineratzen duen alternatiba (Euskal Herriaren eta bere erabakitzeko esku-bidearen errekonozimendua) kakaztu nahi dutenen eskutik.

Bake prozesu sakona martxan ipintzeko izan dezakegun oztoporik handiena hortik etor daitekeela iruditzen zait: komunikabideetan zein epaitegietan, lehentasuna ideia eta egitura politikoaren suntsipena izatea, bakea eta berradiskidetza izan beharrean.

**ALDERDIEN MAHAI ETA GIZARTEA**

Oztopo horiek gaintitu ditzakagu, ordea, herritarrok oinarritzko ideia eta azterketa hauei gogor eusten badiegu. Politikaren eta demokraziaren aurka dauden eragileek porrot egingo dute, gizartearen gehiengoak bakearen aldeko apustu sakona egiten baldin badu.

Izango ditugu bakearen alde lan egiteko aukerak eta tresnak. Alderdien mahai osatuko da eta gizarte eragileek nahiz sindikatuek protagonismo handia izan beharko dute. Herriz herri eta kalez kale piztu beharrean gaude bakearen sua.

\* EAJKo Gipuzko Buru Batzarreko kidea

## zer deritzozu?

www.goiena.net

PP barik posible da normalizazio politikoa?

BAI	%40
EZ	%60

## &gt; KATALUNIAN ERE BAI

Bai, zergatik ez? Katalunian ere onartu zuten estatutua PPkoen babes barik. Ez badute karrora igo nahi, zer egingo diogu ba?

Lauri

## &gt; DENEN ARTEAN

Komenigarria da alderdi guztien artean eztabaidatu eta irtenbideak aurkitzea normalizazio politikorako. Hortaz, PPkoekin ere kontatu beharko genuke. Ixiar

## &gt; PPREKIN KONTATU

Konponbidea eta normalizazio politikoa denon artean adostu behar da. Halere, PPkoek ere eman beharko dute zerbait, ez denari ezetz esaten ibili. Iñaki

## &gt; BORONDATIE

Ezpadadea gure, zer egingo-tsegu ba? Borondatide biher da arazuek konponketako eta, bistan da, PPkuek eztaude gure Euskal Herriaren pakie egotie eta geure borondatzie errespetatzie. Nagore

**DATORREN ASTEKO GALDERA:**

**Hipoteken prezioa igotzeak kezkatzen zaitu?**

Eman zure iritzia **www.goiena.net** atarian. Datorren astean argitaratuko ditugu hemen erantzun interesgarrienak.

## koplak

Maialen Madariaga

### Aste Santua, oporen enkantua

Aste Santua zer den ez, baina noiz den dakigu seguru, santu-santuak nahiz gutxi egon guztiok jai hartzen dugu.

Euskaldunok beti izan gara opor kontuan azkarak, ustekabeen bihurtu gara Europako txinatarra.

Komeni denez egiten bada bidaia agentzira buelta, atea zabaldu ta hasten da bidaiaaren ordainketa.

Joan aurretik gastatzen dugu hilabeteko soldata, egun onak emateko ere ordaindu egiten da ta.

Kanpora joan ta nahi genuke egon etxeen bezela, herriko batek betetzen baitu gure alboko logela.

Nahiz astebetean ezin dugun guk bisitatut mundua, urrun ez bada ere gozatu dezagun Aste Santua.

konbentzitua naiz bizia lasaiagoa eta ederragoa dela estetikari eta gune berdee garrantzia ematen dieten hirietan.

**Denboren kudeatzaileak**

Luistxo Fernandez

www.eibar.org/blogak/luistxo

barretxe lehendakariak esaten digu: "Guztiok lan egin behar dugue Bake prozesuaren alde". Benetan? Nik, egia esanda, eszeptizismo

handiarekin hartzen dut une politiko berria. Su-etenaren betirako balitz, hobeto. Baino horretarako neuk pertsonalki lan egin behar dudala ez dut sinesten. Nahiko lan badut nik neur egunero koarekin... Eta dexenteko desilusioa ere hartu nuen aurreko su-etenaren hautsi zenean. Oraingoan, ez, hausten bada, ez nauz sorpresaz hartuko.

Eta Ibarretxek edo beste inork nahikoa lan egin ez izana leporatzen badit (guztiok egin behar omen dugunez), ba, tira, kritika jan, eta hor konpon. Nik badakit ez dela nire errua izango.

lorategietan? Loreek ez digute jatera ematen, ez digute bidea erakusten... Eta zertarako behar dute zerbaitera kalo balio izan? Loreek edertasun bat ematen diote gure inguruari.

Ni umore onez jartzen naiz goizeko zero urdinak edo ilunabarreko eguzkiak argitzen dituen loreak ikusten ditudanean.

Bai, umore onaren iturri dira loreak. Alai jartzen naiz zuhaitzen lehen osto berde freskoak atera direla ikustean, alai gerezi ondoak loretan ikustean. Bai, alai. Eta konbentzitua naiz bizi sano baterako baitezpadakoak direla loreak,

## AHTren mamua gelditu!

**Unai Mendizabal**

(Arrasateko Batasunaren izenean)  
Arrasate

Badatorrela diote, badatorrela herri zahar honen bizkarrezzarra goitik behera aldatuko duen punta-puntako azpiegitura, Abiadura Handiko Trena. Isilka-misilka administrazio ezberdinak politikari ezberdinak beraien bizitzako negozioa izan daitekeena aurrera eramatzen ari dira despotismo ilustratuaren egongo bagina bezala, *Herriarentzako, herria aintzakotzat hartu gabe*. Diru mordoa dago jokoan eta gure herriaren etorkizuna ere bai. Baino goazen errepasatzera mamu erraldoi honen ageriko gezurrak maila ezberdinetan.

Europari begira, instituzio europarrek ez dute Euskal Herria lehenetsi lotura edo pasabide moduan, horregatik ez dizkiote oraingoz sosak bideratuko espainiar gobernuari trenbide zati hau egiteko. Estatu frantziarrak, bestalde, ez du inolako asmorik erakutsi bere *abiadura* handia Hendaia-raino ekartzeko, Bordelen jarraituko du muga izaten. Beste kontu bat da bi "abiadura azkar" horiek bateragarriak ote diren. Horrela, gure ustezko trenbide azkarraren bidea Irunen hilko litzateke Lapurdi zeharkatu ezinik.

Euskal Herriari begira, eta soilik ikuspuntu ekonomikotik sekulako diru inbertsioa suposatzen duen mamu baten aurrean gaude. Eta nondik aterako da Nafarroako eta Euskal Autonomia Erkidegoko gobernuak gastatu nahi duten dirua? Betiko lekutik, herritarren poltsikotik. Horrela, diru piloa egongo da azpiegitura erraldoi hau egiteko, eskuzabal banatuko dena betiko artean premia sozial eta kulturalak larru gorritan utziz. Ikusi bestela zer gertatu den Itoizko urtegiko sosekin edota konturatua gaitezen Erkidegoko *clientelismo* politikoaren hedaduraz. Betikoek, betikoezin negozioa egiten, baina desberdintasun batekin, oraingoan AHTrekin egin dezaketen negozioak besteak txiki utziko dituen diruzalekeriarekin. Azpiegitura honek onura ekonomikoa ekarri ordez, gure herriaren etorkizuna hipotekatuta utziko du hurrengo belaunaldientzako.

Baina aipatu ditzagun Arrasate mailan bota izan diren gezurrak. Badira hilabete dezena agerraldi bateratua egin zutela alkateak, Garraio sailburuak eta MCCko ordezkarri batek ibarreko tranbiari

## Aukeratzerik ez... aukeran

Ibai Redondo Beitia (Euskal Herriak Bere Eskola) > Bergara

**E**gunon! Bonjour! Buenos días! Hauek dira Euskal Herriko haur eta gazteek egunero kotasunean erabilten dituzten hizkuntzak. Euskaraz dakinenek gaztelegra edo frantsesa ere badakite, guziek! Hau da, euskarazko irakaskuntza aukeratzen duten gurasoek bakarrik aukeratzen dute beraien seme-alabak elebidunak edo eleanitzak izatea.

Eusko Jaurlaritzak ereduen politikaren hutsuneak onartzen ditu; hala ere, ez du berau baztertzeko intentziorik azaldu, gurasoek aukeratzeko eskubidea dutela diote, baina hau iruzur hutsa da, aukeran dauden ereduek ez dutelako legeak EAErako dioena betetzen, hau da, eskolak euskaldun du egin behar duela: A ereduaren matrikulatuak dauden ikasleen %100 eraldun elebakar ateratzen dira eskolatik; B ereduko %66 berdin; tamalez D ereduak ere ez ditu haur guztiak euskalduntzen, nahiz eta helburutik gertuen dagoen eredua den.

Egoera honen aurrean, Eusko Jaurlaritzan agintean daudenak (PNV, EA eta IU) ezer gutxi egiten ari dira egoerari buelta emateko. Eta ez egoera ez dutelako ezagutzen (goiko datuak beraiek emanak dira), gaiari lehentasunik ez diotelako ematen baizik.

Zer esan Nafarroako agintariei buruz, UPNkoei buruz, euskararen etsai amorratuak dira, Frantziako gobernukoen parekoak; beraz, hauen jarrera are eta okerragoa da, euskara desagerrarazi nahi dute!

Aurrerapausoak eman direla esaten dute batzuek, eta egia da. 1960an 500 ikasle zeuden ikastoletan, 1978an 172 Ikastola zeuden Euskal Herrian (Frankismo garaian). Ondoren, D ereduko lerroak ere ireki dira Eskola Publikoetan, osoki euskaldundu ere kasu batzuetan. Herritar askoren ahaleginaren ondorioa, beraz, Bergara dugu horren adibide garbia.

Baina zer egin dute EAEn eta EH osoan agintea dutenek azken 30 urteotan? Ahal zutena baino askoz gutxiago, gaur egun eskolak Euskal Herrian ikasleen %31,8 euskalduntzen du (Eusko Jaurlaritzaren datuak). Euskal Herrian dauden giza baliabide eta baliabide ekonomikoekin (nahiz eta politikoak mugatuak izan), borondate politiko argirik balego eskolak dagoeneko euskaldundu egin beharko luke.

Beraz, ikusiak ikusi, herritarroi tokatzen zaigu berriz txanda hartzeara agintari politikoei belarritik tira egitea. Eskolak euskalduntzearen alde martxan jarri den sinadura bilketa erraldoiarekin, Euskal Herrian agintzen dutenen agendan gai hau sartu beharra daukagu. Ez dezala hezkuntza sistemak beste 25 urtean euskaldundu gabe segi... Sina zank! Bergararrok ere Bai Eskolak Euskalduntzeari! 1.000 baietz.

buruzkoa. Bertan, tranbiarekin batera, Abiadura Handiko Trenaren proiektua saldu ziguten. Gainera, alkateak eta MCCko ordezkarriak Abiadura Handiko Trenaren geltokia eskatu zioten Garraio sailburuari merkantzia eta bidaariak garraiatzeko. Baino nola da posible horrelako eskaera bat egitea arrasatearen izanean? Europaren ez dago tren azkarrik merkantziak garraiatzeko Italiaren salbuespenarekin. Bilboko portuak ez du aurreikusita abiadura azkarreko lotunetik, Pasaiako egin nahi duten beste super-portuak antzera. Nola sartu merkantziak bidaiai tren batean? Erantzunaren zain geratu beharko dugu aulkia batean eserita? Arrasateko geltoki fantasmarekin bukatzeak beste kontutxo bat. AHTren egitasmoak Euskal Hiriaren ikuspe-

gia du, hau da, herrialdeko hiriburu guztiei lotura zuzen eta azkarra ematea, Garraio sailburuak esana. Horrela bada, hiriburuen arteko bidaia hain azkar eta motz hauetan ezinezkoa da bost minuturo geldialdiak egitea, adibidez Arrasaten. Urpegia izango dute PNVkoek datozen udal hauteskundeetako programan Arrasateko AHTko tren geltoki fantasma egingo dutela esateko?

Ez da zerura begira geratze ko garaia. Abiadura Handiko Trena gure bizkarrera egin nahi dute, horrelako makro-azpiegitura bat inposatu nahi diote Euskal Herriari buruan negozioa soilik dutenek. Orain ez da denbora tren honen balizko ibilbideez eztabaidatzeko, arazoak ez da ibilbidea, proiektua bera baizik planteatuta dagoen eran. Lehenengo,

proiektu zanpatzaile hau gelditu behar dugu. Eztabaidea zabaldu eta beste arlo askotan moduan, Herriari hitza eta erabakia eman. Baino ezin garenez ezezkora mugatu, ezker abertzalea beste zenbait eragilerekin alternatiba lantzen ari da, gizartearen beharrei hobeto erantzungo dien trenbide sozialerako sarea eraikitzeko apustu irmoa eginez. AHT ez! Trenbide soziala bai!

## Esparzaren kioskoa

**Jon Ander Loidi Garitano**

(Aralarkidea)  
Debagoiarena

Aspaldiko partez berriz ere ilusio garaiak bizi ditugu. Hala ere, jakina da ahalegin hau boikoteatzeko interes handiak daudena. Oraingoan baina, nik espero ez nuen lekutik jaso nituen lehenengo ostikadak; Jose Mari Esparza Zabalegi jaunaren eskutitza irakurtzean (*Gara*, 06-03-24).

Distentsiorako garaia da. Elkarritzka ezinbestekoa da edozein bake prozesuk bere bidea egin eta azken helburua lor dezan: bakea. Hortik aurrerakoak, inongo garrantzirik kendu barik, beste lorpen batzuk dira. Zuhurtziaz eta errespetuz jokatu beharra ezinbestekoa izango delakoan nago, beraz.

Zuk, aldiz, Esparza jauna, guztiotzako izan duzu perlatxoren bat. Denon patua pronostikatu duzu, inor ahaztu barik: Estatua (nik bi estatu zirela uste nuen arren), biktimen elkartek (alde bateko ezharduzula dirudi), EAJ, Ertzaintza (Atutxa eta Balza), Ezker Batua, Elkarri eta Lokarri, ELA, EA, Aralar, Nafarroa Bai..., alde batetik eta bestetik ezker abertzalea.

Berriz ere zuri-beltzko irakurketa: batzuek dute gakoa eta gainontzekoak desagertzeko zorian daude/gaude. Ezetza ba, Esparza jauna, Euskal Herria koloretakoa dela. ETAk garbi utzi du azken komunikatuan ideia guztiekin izan behar dutela lekua joko politikoan. Hala ere, zuk batzuk desagertza aurreikusten duzu, beste batzuk lapidatu egin dituzu (tamalgarria iruditzen zait Lokarri-Hilarri hitz-jokoa) eta beste batzuk parora bidali dituzu.

Hitz hori da klabea, paroa. Etsai asko ditu bakeak. Igor Angulo hil zutenetik bakearen aurka egon daitezkeen zerrenda pertsonala egiten jardun dut: bizkartzainak, polizia, espoxe funtzionarioak, epaileak, kazetariak... Parado-

xikoa bada ere, guztiak mantendu ditu borroka armatuak. Makinatxo bat eman dio jaten ETAk, ederki gizendu du Espainiako Estatuaren zerria. Baino bada Esparza jaunaren artikulua irakurri arte langabeziaren mamua bizkarrean ikusten ez nionik. Aralarkoo egiten digun erreferentziak zabaldu dizkit begiak: "Algune deberá retomar la idea de abrir un kiosco. La hora del paro ha llegado". Ez, ez, ez dihardut Aralar eta Elkarriko langileei buruz. Tamalez, ziur nago gehienek gustura hartuko luketela lanpostu aldaketa. Argitaletxe monokromatikotako editoreak ere langabeziaren beldur ote zareten iruditu zait zure tonuan, Esparza jauna.

Zaude lasai, loratzera doan udaberri koloretsu honek hazirik emango badu, izango du zu bezalakoentzako zer jorratua. Eta ezer ematen ez badu, zure liburuentzako kiosko faltan bazaude, esan eta kito, guk kolore guztiak liburuak onartzen ditugu.

## Denon Aberria

**J. I. Etxebarria**  
Arrasate

Garai berriak dira, itxaropen garaiak, elkarlanean soluzioak topatzeko garaia. Eta garai berrian, Aberri Eguna baten atarian gaude. Euskal Herrian bizi garen aberriaren eguna.

Gustatuko litzaidake indar abertzaleez gain, besteek ere ospatzea Aberri Eguna, normalizaziorantz goazen seinale izango zelako. Aberria guztiun artean eraikiko dugulako eta eraiki behar dugulako, izan gorri, urdin, berde edo more kolorekoak; izan eskumako zein ezkerrekoak... Alderdi guztiak ospatu beharko lukete Aberri Eguna.

## OHARRA

Datorren astean  
eguaztenean  
argitaratuko dugu

Aste Satuko oporturak direla-eta, datorren asteko GOIENKARIA ez dugu egubakoitzean argitaratuko, ohikoa den moduan. Eguaztenean argitaratuko dugu. Hortaz, oporren aurretik jasoko duzue hurrengo zenbakia. Bestalde, datorren astekoaren ostean, hurrengo GOIENKARIA apirilaren 28an argitaratuko dugu. Bestalde, Asteloheneko Goienkaria oraingo astelohenean argitaratuko dugu, eta hurrengo zenbakia apirilaren 24an, oporetatik bueltan.



T ▲ A  
M ● A  
Y □ O

J. URIARTE

ORAIN OLARTE KALEAN GAUDE  
ARRASATE  
DENDA BERRIA, SAIL BERRIAK!

Papertegia - Arte Ederrak



Mont Blanc



Scrapbooking



Larruzko poltsak



Olarte 10 • ARRASATE • Tel.: 943 77 03 80

\* Euskaltel Hautaketa edo Euskaltel Leihoa bezerezitako PSPa, batiere 31/5/08 baino lehen kontratatzeko badute orditzen ordaintzako epeko zerbitza, 6 €-ko hileko kontsumo minimoarekin, eta 18 hilabetez irauteko kompromisoa hartzen badute. Muga: 100 unitate.

# Orain, eskuak bere lekuak



Esku libreko  
kita



Motorola V360  
Bluetooth-a, Bideo-kamera, GPRS

= 0\*

€



ROUTER  
COMUNICACIONES, S.L.

Errebal, 15  
Eibar

943 700 369

Maalako Errebala, 8  
Arrasate

943 712 781

Euskaltel

-en Banatzaile Ofiziala

# “Gomendatzen dizut...” SARIA

[www.aizue.com](http://www.aizue.com)

## Konta egiguzu hor zehar ikusi duzuna!

Hondartza, mendi hori...  
Aterpetxe, kanpaleku, ostateu hau...  
Ibilbide, paraje, paisaia hura...  
Herri, hiri, txoko hura...

### Saria:

Zure gustuko oporralditxoa.

**Gomendioak jasotzeko azken eguna: irailaren 28a**

### Informazio zehatzagoa:

- [www.aizue.com](http://www.aizue.com)
- Arrasateko Gazte Bulegoa: 943 77 00 65  
edo [www.gaztebulegoa.com](http://www.gaztebulegoa.com)
- Bergarako Gazte Informazio Gunea: 943 77 91 57  
edo [gzerbitzua@euskalnet.net](mailto:gzerbitzua@euskalnet.net)

Zure gomendioaren zain gaude!

Argazkian: Bled (Eslovenia)  
Argazkiaren egilea: Aimar Elortza



ARRASATEKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN



BERGARAKO  
UDALA



# UDA BERRI - UDAKOMODA

Zeurea da jadanik.

Bukatu da itxaronaldia: hemen da Boulevard  
dendaguneko udaberri-udako moda.

Zatoz eta begiratu, ukitu, erakutsi, zeure azalari erantsita daramazu.

## ...sentitzen duzu?



# Herriak

Arrasate > 18-23 Bergara > 24-29 Aretxabaleta > 31-33 Eskoriatza > 34-35  
Antzuola > 36 Aramaio > 37 Elgeta > 38 Leintz Gatzaga > 39



## > ARRASATE

Biteriko aparkalekua Aste Santu ostean zabalduko dute > **18**



## > ARETXABAleta

Aralar Gobernutik kanpo, zinegotzia kanporatu dutelako > **30**



## > ARAMAIO

Bihar, zapatua, Arabako Bertsio Lehiaketako kanporaketa > **38**



## > GATZAGA

Garraio zerbitzua abiarazten dutenerako guztia gertu > **39**

ESKORIATZA > AUTOBIDEAREN ETA AHT-REN PROIEKTUAK HOBETZEKO EKIMENA

# Onbide.org elkartea sortu dute, azpiegiturak kaltetutakoei laguntzeko

## INFORMAZIOA

Bi azpiegitura proiektu horien gainean duten informazioa zabaltzeko asmoa dute

## AUTOBIDEA

Eibar-Gasteiz proiektuarekin buru-belarri dabilta lanean orain

### IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA

Eskoriatza, Arrasate, Aretxabaleta, Aramaio eta Bergarako hainbat lagunek Onbide.org elkartea sortu dute. Eskoriatzako kultura etxearen aurkezta zuten elkartea eguztenean. Elkarte horren helburua da hurrengo urteetan Deba-goienean egin gura dituzten azpiegitura proiektu erraldoiek kaltetutakoei laguntza ematea. Hain zuzen ere, kaltetutakoen alde indarrak batu eta koordinatzeko ideia hori autobideak kaltetutakoen eta AHTren eraginak jasango dituzten hainbat herritarrena izan da.

### EZ DAUDE AZPIEGITUREN KONTRA

Elkarte horren bultzatzaileek azpi-marratu zuten kaltetuak asko direla. Hain zuzen ere, "desjabetuko dituzten lurjabeen gain, beste jende asko ere kaltetu da, bere auzu-nea asko aldatu behar dutelako edo azpiegitura horrek bere bizitzan eragin behar duelako, adibidez".

Horrez gain, honako hau azpi-marratu zuten behin eta berriro: "Ez gaude autobidearen ezta AHTren proiektuen kontra. Gure helburua da azpiegitura horiek ingurumenean eta debagoienda-rren bizi baldintzetan kalte txikia-boa egitea".

Eibar-Gasteiz autobideari dagokionez, nabarmendu zuten kaltetutakoek "autobide modernoa eta egokia" gura dutela. Horrekin batera, gogoratu zuten "autobidearen gainean administrazioak eta alderdi politikoek agindu zigutena erakundeei behin eta berriro exijitzeo" lanean dabilta-



IBARREKO ORDEZKARIAK Prentsurrekoan parte hartu zuten Maite Beitiak, Gotzon Arregik, Pedro Lasagabasterrek eta Jesus Osinagak.

IKER BARANDIARAN

## WEBGUNEA

### Azpiegituren eta elkarteararen gaineko informazioa sarean

Elkartea sortzeaz gain, webgunea ere estreinatu dute, oraindik hornituta ez dagoen arren. [www.onbide.org](http://www.onbide.org) helbidean batuko dute AHTren eta autobidearen proiektuen gaineko informazioa, aurkeztutako alegazioak, lur desjabetzeak, beste herrialde batuetan egin dituzten azpiegituren nondik norakoak, eta abar.

Horrez gain, planoak eta kartografia ere landuko dituzte. Horien artean nabarmendu zuten "Bidegik Eskoriatzako Udaleko webgunetik kenarazitako fotomuntaketa" ere sartuko dituztelako. "Zentsura saihesteko ahalegin guztiak egingo ditugu", azaldu zuten.

## JAIALDIA

### Gaur, egubakoitza, pilota jaialdia egingo dute

Iragarri moduan, Onbide.org elkartea mota askotako ekitaldiak antolatuko ditu. Lehengoa gaur, egubakoitza, egingo dute Eskoriatzako pilotalekuaren eta honako leloa izango du: *Autopista habe baten alde. Administrazioa bete zure hitza.* 17:00etan Leintz Gatzaga eta Eskoriatzako gaztetxoa arituko dira pilota jokoan. 19:00etan hainbat amateurrek jokatuko dute. Eta 21:30ean pilotari profesionalen bi partida egingo dituzte: alde batetik, Zabala eta Herizek osatutako bikotea Errarte eta Iñurrategiren kontra; eta bestetik Mikel Goñi ospetsua eta Lazkano arrasatearra Ubera II.a eta Medinaren kontra.

la, eta hori lortu arte lanean jarraituko dutela.

### INFORMAZIOA ZABALDU

Onbide.org elkartea jardunaldi, berbaldi, erakusketa eta kultura eta kirol ekitaldiak antolatzeko asmoa dauka. Horien bitartez, gori-gorian dauden gaien gainean herritarra sentsibilizatzen saiatuko da, eta azpiegituren gaineko informazioa zabalduko du.

Elkartearen bultzatzaileen esanetan, oso garrantzitsua da herritarrek azpiegitura proiektu horien gaineko informazioa eskuratzea, horregatik "guk eskura daukagu informazio eta dokumentazioa zabaltzen saiatuko gara".

Bestalde, elkartekoek jakin badakite herritar askok inguru-menarekin lotutako eskubideen gaineko ezagutza txikia dutela. "Horiei guztiei laguntza eskainiko diegu, egin beharreko izapide eta eskaerak bideratzeko edo bes-

te edozein agiri ofizial bete ahal izateko", azaldu zuten.

### AHTREN GAINEN ERE LANEAN

Aitorrutziz, une honetan Eibar-Gasteiz autobidearen proiektuarekin buru-belarri dabilta, baina AHTren gainean hainbat egitasmo dituzte. "Dagoeneko Madrilgo Sustapen Ministerioaren harremanak egin ditugu, eta epe laburrean eurekin elkarteko asmoa daukagu. Uste dugu ez dute la kontuan hartu Eibar-Gasteiz autobidea ere alboan egongo dela eta, besteak beste, hori jakinari gura diegu guzti onerako izan dadin", azaldu zuten.

Horrekin batera, honako hau azaldu zuten: "Askotan ikusi dugu administrazio desberdin artean ez dagoela informazio ezta koordinazio askorik. Jaurlaritzaren eta Aldundiaren artean halakorik ikusi dugu. Horrek herritarri egiten dio kalte handien".

**zerbitzuak****GUARDIAKO FARMAZIAK****ARRASATE**

Zapata, 8	Español	Araba etorbidea	943 79 18 65
Domeka, 9	Ruiz	Maala 31	943 79 14 09
Astelehena, 10	Zabola	Zarugalde 42-44	943 77 16 30
Martitzena, 11	Azkoaga	Ferrerias 1	943 79 15 15
Eguaztena, 12	Azkoaga	Iturriozt 17	943 79 79 99
Eguena, 13	Corcueria	Maisu Aranbarri	943 79 22 26
Egubakoitzta, 14	Español	Araba etorbidea	943 79 18 65

**BERGARA**

Zapata, 8	Guallar	San Antonio 5	943 76 11 05
Domeka, 9	Guallar	San Antonio 5	943 76 11 05
Astelehena, 10	Estella	Matxiategi 5	943 76 19 63
Martitzena, 11	Mozos	Iparragirre 2	943 76 12 15
Eguaztena, 12	Camacho	Oixondo 4	943 76 11 74
Eguena, 13	Zabala	Barrenkalea 25	943 76 16 87
Egubakoitzta, 14	Guallar	San Antonio 5	943 76 11 05

**ONATI**

Zapata, 8	Anduaga	San Lorentzo 3	943 78 21 16
Domeka, 9	Anduaga	San Lorentzo 3	943 78 21 16
Astelehena, 10	Barrenetxea	Kale Zaharra 1	943 78 01 22
Martitzena, 11	Barrenetxea	Kale Zaharra 1	943 78 01 22
Eguaztena, 12	Garate	Kale Barria 42	943 78 05 58
Eguena, 13	Garate	Kale Barria 42	943 78 05 58
Egubakoitzta, 14	Garate	Kale Barria 42	943 78 05 58

**ARETXABAleta**

Zapata, 8	Iturrealde	Belorrieta auzoa 1	943 08 11 43
Domeka, 9	Iturrealde	Belorrieta auzoa 1	943 08 11 43
Astelehena, 10	Juan Fraile	Herriko Plaza 10	943 79 21 99
Martitzena, 11	Juan Fraile	Herriko Plaza 10	943 79 21 99
Eguaztena, 12	Juan Fraile	Herriko Plaza 10	943 79 21 99
Eguena, 13	Juan Fraile	Herriko Plaza 10	943 79 21 99
Egubakoitzta, 14	Juan Fraile	Herriko Plaza 10	943 79 21 99

**TELEFONO JAKINGARRIAK****((112))  
SOS DEIAK****OSASUNA ETA LARRIALDIAK**

Osakidetza (Larraldia).....	943 46 11 11
DYA (Antzuola).....	943 78 71 57
Gurutze Gorria (Elorregi).....	943 76 55 76
Suhiltzaileak.....	943 78 28 00
Ertzaintza.....	943 53 47 20
Osasun etxeak.....	
Arrasateko ospitala.....	943 03 53 00
Antzuola.....	943 76 62 23
Aramai.....	945 44 53 40
Aretxabaleta.....	943 71 19 59
Bergara.....	943 03 54 00
Elgeta.....	943 78 90 27
Eskoriatza.....	943 71 44 52
Leintz Gatzaga.....	943 71 47 46
Onati.....	943 03 54 30
Udalzainagaok.....	
Antzuola.....	943 76 62 46
Arrasate.....	943 79 14 39
Aretxabaleta.....	943 71 18 63
Bergara.....	943 77 91 06
Eskoriatza.....	943 71 44 07
Leintz Gatzaga.....	943 71 47 46
Onati.....	943 78 04 11

**GARRAOAK**

PESA.....	902 10 12 10
Taxiak.....	
Arrasate.....	943 79 12 22
Aramaio.....	945 44 50 33
Aretxabaleta.....	943 77 12 64
Bergara.....	943 79 12 22
Eskoriatza.....	943 71 40 59
Onati.....	943 78 03 65

**DEBAGOIENA**

Mankomunitatea.....	943 79 33 99
Hildegia (Zubillaga).....	943 78 15 12
Nekazaritza ganbera.....	943 76 10 15
Zerga Bulegoa.....	943 76 58 63
Hondakindegia alternatiboak.....	
Arrasate.....	943 77 11 43
Bergara.....	945 76 44 42
Onati.....	943 78 36 67

**URBANOAK**

Kultura Etxeak.....	943 76 60 65
Aramaio.....	945 44 53 74
Arrasate.....	943 77 01 05
Aretxabaleta.....	943 71 10 27
Bergara.....	943 77 91 58

**URBANOAK****ARRASATE**

Gorostizatik Eroskira (2 Linea)	
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.	
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguín B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biterrí, Legarre, Musakola eta Eroski.	

**Eroskitik Gorostizara (2 Linea)**

08:35, 09:35, 10:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.

IBILBIDEA: Eroski, J. Bengoa, S. Teresa, C. Obregon, Oñate, Makazenta, Iñarra, S. Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguín A eta Gorostiza.

**Gorostizatik Eroskira (1 Linea)**

08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30.

IBILBIDEA: Gorostiza, Erguín B, Zarugalde, Muxibar, S. Frantzisko, Iñarra, Makazenta, Obregón, C. Oñate, Galizia, Bengoa eta Eroski.

**Eroskitik Gorostizara (1 Linea)**

08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05.

IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibai, San Andres, Arimazuri, Alecop, Uribarri, Erguín A eta Gorostiza.

**ARAMAIO****> II. Liburu Azokarako liburuak uzteko aukera**

Gazte batzarra liburu azoka antolatzen dabil hilaren 29rako, eta herritarrei dei egiten diete behar ez dituzten liburuak emateko, udaletxeen (goizetik) edo liburutegian (arrasotakoak).

**BERGARA****> IATEko langileen bi eguneko lanuztea**

Bergarako IATEko langileek ez dute lanuk egingo egun osoan apirilaren 11n eta 12an, lan hitzarmena dela eta, protesta moduan.

**ESKORIATZA****> Irudi digitalen tratamendua, ikasgai**

Iru digitalak lantzen irakatsiko dute gaur, egubakoitzta, KZgunean, 17:00-20:00. Ikastaroaren lehen atala da honakoa.

**LEINTZ IBARRA****> Bezperak errebatuko dituzte parrokian**

Garizumako egubakoitztak guztietan bezala, mezaren ordez Gurutzete-bidea errebatuko delar.

**eguraldia****DEBAGOIENEAN****Zapatua, 8**

Eguraldian hobekuntza nabarmena igarriko dugu; goizean laino altuak izango ditugu eta arratsaldean tartekatu egongo dira lainoak eta zeru garbiak.



## kale inuesta

### Zeinen edo zeren aldeko lagunartea sortuko zenuke?



Xabier Sansebastian  
Langilea  
Antzuola



Leire Azkarragaurizar  
Ikaslea  
Elgeta



Begoña Zabaleta  
Langilea  
Bergara



Jose Inazio Beloki  
Langilea  
Gatzaga



Iraia Beitia  
Ikaslea  
Aramaio

Inoren aldeko lagunartekorik. Halako bat sortzeko merezi duen norbait egon behar du. Inguruan ez dut inor ikusten meritu berezirik egin duenik. Beraz, ez nuke jakingo zeinen aldekoa sortu.

Realaren aldekoa. Datorren asteburuan, gainera, Real Madrilen aurka jokatu beharko du eta azkenaldian zela dabilen ikusita, Realak animu handiak behar dituela uste dut.

Ez naiz halakoak sortzeko batere zalea, hortaz, ez nuke ezeren eta inoren aldekorik egingo. Ez dator bat nire ideologiarekin. Nire ustez, halakoak egitea alienazioa da.

Ni neu pilotu irakaslea izanda pilotari bat aukeratuko dut, Irujo. Lagunarteeak giroa sortzen dute herrian, eta Irujoren lagunartea asko motibatuko lituzke gaztetxoa al jokatzen jarraitzeko.

Joane Somarribaren aldekoa egingo nuke nik, neska bat txirrindularitzan ikustea gauza handia delako. Horrez gainera, ez da neska askorik ikusten txirrindulari moduan.

## txaloak eta txistuak



UBANE MADERA

### Autoak, molestatzen



Behin baino gehiagotan iritsi zaigu kexua gaizki aparkatuta uzten dituzten ibilgailuak direla-eta. Oraingo horretan, gaizki aparkatzeaz gainera, autoa traban uzten ditugulako iritsi zaigu kexua. Bergarako Fraiskozuri eta Matxiategi inguruetaen askotan gertatzen da hori.

## bertako berbak

Juan Martin Elexpuru

### "Ipurtariñ"

Geldi egon ezin den pertsona.  
- *Mutil sinpatikua da, ipurtariñ samarra izatia eze.*



Marrazkia > Jon Iraegi

## asteko datua

# 4.984

Arrasateko kirolegiaren era-biltzaileen datuak jakinarazi dizkigute. Horren arabera, ibarrekoen artean, bergararrak dira Arrasateko kirolegia gehien erabili dutenak: 4.984. Aretxabaletatik 2.604 lagun joan ziren, Oñatiitik 902 eta Eskoriatzatik 266.

## 5 galdera...

### Olga Jauregi

Liburuzaina  
Aramaio

**1.** Badirudi azkenaldian baino indartsuago datorrela aurten Liburuaren Eguna; jendearen irakurzaletasunean igartzen da gorakadarik?

Gazteek ez dut pentsatzen gehiago irakurtzen dutenik. Badaude batzuk irakurtzen dute-nak, baina orokorrean irakurtzen dute eskolan behartzen dietena bakarrik. Helduei dagokienez, berriz, pentsatzen dut apurtxo bat gehiago irakurtzen dutela orain.

**2.** Oraindik ere jarraitzen dute emakumeak eta umeak izaten gehien irakurtzen dutenak?

Emakumeek oraindik gizonezkoek baino gehiago irakurtzen dute, baina proportzioa jaitsi egin da apurtxo bat. Gazteen artean, berriz, heltzen direnean, lehen baino mutil gehiagok jarraitzen dute irakurtzen. Generoari begiratuta, berriz, dibertsifikatu egin da. Emakumeek lehen gehiago irakurtzen zituzten maitasun nobelak. Orain, historikoak, intrigazkoak, auto-laguntzakoak... irakurtzen dituzte.

**3.** Aramaioko liburutegian ere Harry Potter da errege?

Askorik ez da mugitu, baina badira batzuk itxaroten daudenak. Harry Potter irakurtzen dute irakurzaletasun handia dutenek, gainerakoendako ez da horren erraza. Hemen oso modan egin da Dan Brown idazlearen *El Código Da Vinci* liburua.

**4.** Sasoi batean esaten zuten Internetek liburuak baztertuko zituela; igarri da zerbaitetan Interneten eragina?

Ez, osagariak dira. Interneten informazio asko dago, hortaz, osatu egin dezake liburuaren gaineko informazioa. Gazteek biak erabiltzen dituzte.

**5.** Internetek ez bada, zerka baztertzen ditu liburuak?

Pentsatzen dut askoz ere samurrago sartzen zaigula, adibidez, begietatik, inolako ahaleginik egin barik. Irakurtzeak ahalegina eskanzen du, kontzentrazioa.



HIRIGINTZA &gt; BITERIKO APARKALEKUA

# Aste Santuan beharrean, maiatzean zabalduko dute Biteriko aparkalekua

Aparkalekuak egiten dabilen Bikani enpresatik jakinarazi digute aparkalekurako sarrerako obrek eragin dutela atzerapena; obra horiek egin ahal izateko, apirilean itxita egongo da Maalako Errabala kalea

**UBANE MADERA > ARRASATE**

Aste Santurako zabaldu behar zuten Biteriko aparkalekua, baina aparkaleku sarrerako lanekin estu samar dabilza epe hori betetzeo. Horren ondorioz, eta Udalatik jakinarazi dugutenez, aparkaleku ezingo dugu estreinatu, gutxienez, maiatzera arte.

Halaber, oraingo astean bertan itxi egin dute Maalako Errabala, sarrerako lanok egiteko. Hain justu ere, hasierako asmoa zen Garibaitik egitea aparkalekurako sarrera; orain, berriz, Maalatik dabilta sarrera egiten. Hala jakinarazi digute lanon ardura duen Bikani enpresatik: "Batez ere zirkulazioari traba txikiagoa eragitearren, askoz ere erosoagoa da sarrera Maalatik egitea".

**APARKALEKUAREN GAINΕAN**

Biterik 550 aparkaleku izango ditu. Horietatik 150 izango dira txandaka erabiltzekoak, publikoak. Eta beste 400ak pribatuak izango dira. Guziak ere garaje irekiak dira.

Hori guztia hiru solairuko eraikinean banatu dute, lur azpian. Barruko lan guztiak bukatuta daudela jakinarazi digute Udalatik. Nabarmendu dute "oso txukun utzi dutela, kolore biziak margotu dute".

**'ALDE ZAHARREKO ATEA'**

Aparkalekuak egiteaz gainera, Biteri inguru guztia berrantolatzen dabil Udala. "Alde zaharra merkataritza-gune irekia da; bada, gura dugu Biteri inguru hori iza-tea Alde Zaharreko Gune Komertzialaren Atea", adierazi digu Hirigintza Saileko buru Juan Antonio Urdangarinak. Jakinarazi digu gune horren diseinuaz Gasteizko arkitektu batzuk arduratu diren arren, Udalaren webgunean zen-bait herriarrek egindako proposamenak kontuan hartu dituztela: "Batzuek gune horren gainean beste kontzeptu bat zuten, Kondekua parkearen moduko bat egin gura zuten. Ideia hori, esaterako, baztertu egin dugu. Beste batzuek, berriz, proposatu zuten parke horretan umeendako jola-



**PARKEA** Aparkalekuaren barruko aldea bukatuta dagoen arren, gaineko aldeko lanak, parke berrikoak udarako bukatzea aurreikusi dute.

U.M.

sak ipini beharko genitzkeela, eta, hain zuzen ere, ideia hori geureganatu egin dugu".

Izan ere, Udal lan handia har-tzen dabil obra horrekin: "Lana gogotik egiten gabiltza, justu, gune hori herriko alde zaharrerako *atea* izango delako. Horregatik, parkearen diseinua ondo lantze-

az gainera, hor eraikitzen dabil-tzan etxeen irudia ere zaintzen ibili gara, etxeek ere zerbaite berezia izan dezaten; horren harira, esa-terako, eraikitzen dabiltzan dorre-txeak beste aire bat ematen dio, eraikin polita da. Eta etxe berrien azpian kafetegiak-edo ipintzen baditzute, aukera emango diegu terrazak ipintzeko. Izan ere, gura dugu gune hori izatea *meeting-point* bat, edo, bestela esanda, herritarrendako elkargunea".

**ESTALKIA ELEMENTU NABARMENENA**  
Erabilera askotariko estalkiak garrantzi berezia izango du parke berri horretan: "Elementurik nabariena izango da; balioko du egunero erabiltzeko eta baita ere ekitaldi bereziak egiteko: Santa-masetan, kale antzerkiak egiteko... Gainera, Udalean gabiltza aztertzen akaso baserritarren azo-karako ere erabiliko dela estalki hori. Ez da itxia izango, argi sarre-rak izango ditu; egileen esanetan, argiekin eta kerizpeekin jokatu dute, balizko *baso* balitz bezala. Eta jakina, neguan argi artifizia-larekin ere argiztatuko dugu". Gaineratu digunez, berdegunea ere izango du parkeak, zuhaitze-kin, "eta umeendako jolas tradi-zional horietakoak ere bai".

Horrez gainera, Garibaiko dorrearen eta aparkalekuaren artean eraikin bat egiten dabil-tza; bada, eraikin horretan kios-

koa, loradenda eta ONCEko sal-tokia bateratuko dituztela ere esan digu Urdangarinak.

**GOIKO PARKEA, UDARAKO**

Bestalde, inguru horretan ikusi-ko dugun beste aldaketetako bat izango da autoen joan-otorria desagertu egingo dela. Hau da,

obrak egiteko Garibai etorbidearen hasierako zatia itxi zutenean eten egin zuten zati horreta-ko zirkulazioa. Bada, obrak buka-tu ostean ere berdin jarraituko du. "Bakarrik egongo da pasabi-dea garraio publikoaren dako. Eta hori aprobetxatuta, egin behar duguna da egiten gabiltzan parke berria errepidearen beste alderaino handitu".

Horrenbestez, ibilgailuek Uri-barri etorbideketik pasa beharko dute, orain arte moduan.

Hori guztia udan estreinatu ahal izango dugu, ordurako aurreikusten du-eta Udalak par-keko lanak bukatzea.

**LAUBIDEKO TXUKUNDU ETA TAO**

Bestalde, Biteriko aparkaleku zabaldu ostean, Laubideko itxi egingo dutela gogorarazi digu Hirigintzako buruak: "Aurpegia alda-keta behar du Laubideko aparka-lekuak; esaterako, orain igogailua ipintzeko lanak egiten dabilta, margotu egin beharko dute...".

Bukatzeko, aparkaleku berria zabaltzen dutenean, Arrasateko erdi-aldean TAO (OTA) ipiniko duten zurrumurrua entzun da kalean. Bada, udaltzain-buru Jose Luis Etxeberriak jakinarazi digu-nez, TAoren gaineko txostena egin dute, baina oraindik ez da dagokion batzordetik pasatu; hau da, Udalak oraindik ez du horren gaineko erabakirik hartuta.

## DATAK

### Aparkaleku orain zabalduko dute eta parkea, berriz, udan

Aparkaleku maiatzaren 1etik 15era bitartean zabaltzea aurreiku-si du Bikani enpresak. Aparkalekuaren gaineko aldean egiten dabiltzan parkea (*meeting point* edo *Alde Zaharreko Atea*, Udaleko-en esanetan), berriz, udan estrei-natu ahal izango dugu. Parke horrek izango dituen ezaugarrien artean, nabarmentzekoa da estalki handi bat ipiniko dutela han, herriarren erabilerarako. Gainera, Udal aztertzen dabil baserrita-ren azokarako ere erabiltzea estalkia. Horrez gainera, Garibaiko etorbidea zeharkatu eta errepi-dearen beste alderaino iritsiko da parke berria. Hala, besteak beste, Garibaiko etorbidearen hasierako zati horretan behin betiko eten dute zirkulazioa.

## DATUA

# 200

### APARKALEKU

400 aparkaleku pribatu izango ditu Biterik. Erdiak inguru daude saldua (50 urterako emakida), 15.000 euroren truke (BEZA barne), beraz, beste 200 bat daude oraindik saltzko; garaje irekiak dira.

## DATUA

# %10

### BEHERAPENA

Biteriko aparkaleku zabaldu baino lehen (maiatzaren hasiera) garajea erosten duenak %10eko beherapena eskuratu du. Arrasate Inmobiliaria dabil garajeak saltzen.

ZERBITZUAK > HILETA ZIBILAK

# Hileta zibilak egiteko lekua eskatu dute

Aralar udal taldeak egin dio eskaera alkateari; alderdi horrek pentsatzen du zerbitzu publikoa izan behar duela

U.M.-> ARRASATE

Honakoa da Aralarren eskaera zehatzia: "Arrasaten, edozein hiritarri azken agurra emateko leku egokia, eta hil-kutxa bertan egonik (hala nahi badute hildakoaren lagun edo senideek), lagunek hitz, kantu edo antzeko ekitaldik egin ahal izatea". Aralarrek ez du eskaaten leku jakin bat egokitzea horretarako, baizik eta "beste hainbat ekitalditarako baliagarrria dena aurreikus daiteke". Horren harira, bide egokia iruditzen zaie, esaterako, Biterin

egiten dabiltsan parkearen estalkia erabili ahal izatea.

Bestalde, horrekin batera, Aralarrek eskatzen du ezkontzeten egiten den moduan, "hiletaren ekitaldi horietan zerbait irakurri, esan edo unetxo horretan familiari laguntzeko" geruza egongo diren boluntarioen zerrendaren bat izatea Udalak. Adibide moduan, Eibarko kasua aipatu digu Aralarko zinegotzi Joxe Etxeberriak: "Udal horretan alkate eta zinegotziek betetzen dute zerrenda hori, betiere familiak hala eskatutik, eta beste inor ezean". Gaineratu digunez, Eibarren Errepublika ezkerro egiten dituzte hileta zibilak eta Arrasaten, halakoetarako oihitura handia ez dagoen arren "jende gaztea datorren neurrian, euren artean, Elizatik pasa bako asko dato". Gaur egun ahal duten moduan moldatzen dira, mendian eginez, adibidez".

> PRESOAK


## Gaur aterako dira Arrasatetik Kordoba eta Granadako kartzeletara elkartasuna adierazteria

Kezka handia dute Jose Inazio Gaztañaga *Gazta* eta Unai Parot preseoen senitartekoek eta lagunek, haiei ezarri gura dieten "bizi arteko espelte zigorra dela-eta". Prentsurreko egin zuten martitzenean, bien egoera salatu eta asteburuan haiei elkartasuna adierazteko antolatu duten martxa iragartzeko: "Preso arrasatearrei zuzenean berotasun eta elkartasuna adierazteko". Gaur joan dira.

> IRAKURLEAREN ASTEA

## Martxoaren 27tik apirilaren 7ra bitartean liburuak dira protagonista Arizmendiko guneetan

Astelehenean haur eta gazte literaturaren eguna egin zuten; ikasleek ipuinak kontatu zizkieten gazteagoei. Handik aurrera, gaur arte, denetarik egin edo izan dute Arizmendiko ikasleek: Lehen Hezkuntzan ipuin erraldoia; Baseazpi gunean antzerkia eta magia saioak, eta, besteak beste, Virginia Imazek ipuinak kontatu zizkien Santa Teresa gunekoei eta gauza bera egin zuten Gazteluondan Maite Francok eta San Viator Txikin Maider Galartzak.



Anton del Campo, orain arte argitaratu dituzten bi liburuxkekin; LSKS argitaratu ditu liburuok.

U.M.

**Anton del Campo** > Ingeniari industriala

## "Uste dugu seinale osagarri batzuk ipini beharko liratekeela"

UBANE MADERA > ARRASATE

Bi urteotan bi liburu idatzi dituzte Anton del Campo (Arrasaten biziden bilbotarra) eta Aitor Iartzak (arrasatearra). LSKS langileak dira biak; lankideak eta ingeniarri industrialak, hain justu. Zalantzatxik aztertu dituzte liburuotan:

**Aurreratze Maniobraren Zinematika** izena ipini diozue liburuari; zer da, formula matemатiko baten gaineko edo?

Formula fisikoa. Haren bitartez, gure ustez lortu dugu jakitea zehazki non kokatu behar diren seinale horiek, hau da, aurreratzea debekatzen duten seinaleak non ipini behar diren.

**Zuen ustez, seinaleok jeneralean txarto ipinita daude, ezta?**

Bai. Behintzat leku askotan ikusten da nahiko leku txikia daukazula aurreratzeko, eta, gainera, ez dakizu ziur maniobra posible den edo ez... Horregatik hasi ginen hori lantzen. Nahi genuen ikusi zer erabiliko genukeen guk seinale horien kokapena zehazteko. Formula batzuk atera genituen, gero formula horiek erabili, auto-

en modeloak elkarren artean konparatu... Hala, datu batzuk eskratu genituen. Eta gero, aurkitu genuen Herrilan Ministerioak egoera berean proposatzen dituen kopuruak. Eta gure kopuruekin konparatu genuen. Eta ikusi dugu oso desberdinak direla.

**Beraz, ez da egoten aurreratzeko distantzia nahikorik?**

Guk ateria dugu maniobra egiteko behar den denbora; konturatu gara irauten duela sei-zortzi segundo... Maniobra horrek dauka hasiera eta bukaera eta seinaleek bakarrik adierazten dute bukaera non izan behar den, ez dute esaten non izen behar den hasiera; ondorioz, gidariak arriskatu egin behar du, bakarrik daki

**"600 bat ale atera genituen; oraindik baditugu batzuk LKSn"**

**"Liburu teorikoa da, baina benetan gertatzen dena islatzen du"**

seinalea dagoen lekuaren bukatu behar duela maniobra. Uste dugu kalkulu hori ez duela gidariak egin behar eta beste seinale osagarri batzuk ipini beharko liratekeela. Esaterako, hemendik kanpora, zenbait errepidetan badira gezi batzuk lurrean margotuta adierazten aurreratzeko maniobra horrek bukatu egin behar duela. Horrela ez da ezer kalkulatu behar.

**Liburu horrez gain besteren bat ere argitaratu duzue, ezta?**

*Santa Luzia, eguna motza eta gaua luzia* izenekoa. Astronomia kontuak dira. Aztertu dugu, besteak beste, egun motzena ez dela beranduen hasten den eguna, baizik eta dela Santa Luzia eguna. Hori zergatik den aztertu dugu. Lagun bat sortu zitzaison zalan-tza dela-eta idatzi genuen.

**Datorren urterako beste bat?**

Bagabiltza. Pilota aukeraketa-ri buruz. Pilota motela edo bizia dela esatea orain subjektiboa da, arautu barik dago. Pisua eta tamaina, berriz, araututa daude. Botea, marruskadura... aztertu eta arau-tu gura ditugu guk.



Meatzerreka 5 bis - 246 posta-kutxa  
Tel.: 943 77 09 92 Faxa: 943 79 78 14  
ARRASATE



Maalako errabala 2  
Tel.: 943 79 20 56

JAIAK &gt; FESTA GALEGOA

# Galizia aldeko nortasuna fresko-fresco Laubide plazan

Hiru eguneko festa galegoa antolatu dute, gaur hasita; Galiziako zuzenean festarako ekarritako produktuak saltzeko standak ipiniko dituzte, besteak beste

**UBANE MADERA** > ARRASATE  
Gaur, barikua, 18:00etan gastronomia galiziarraren erakostokien azokatxoa inauguratuko dute, Laubide plazan. Modu horretan emango diote hasiera hiru eguneko festa galiziarrari.

**NEKORAK ETA BESTE**  
Musika, dantza eta gastronomia izango dira protagonista. Produktuak Galiziako zuzenean ekarriko dituzte, justu festarako. Egongo dira olagarroa, nekorra, txangurrua, almendrazko tarta, ogia, gazta, ardoa (Riberoa, Albariño...), txorizo, txurraskoa... Guztia etxean eginda. Hala adierazi digu festa antolatzeko ibili den Moreiras arrastearrak: "Coruñañan badago enpresa bat halako azoketan ibiltzen dena produktu freskoak-eta erauzten. Hura etorriko da Arrasatera. Esaterako, tartak hango



BERRESKURATUTAKO JAIA Sei urteko etenaldia izan du festa galegoak; argazkian, azkeneko aldiz ospatu zenekoa. MOREIRAS

okindegia batean egingo dituzte hona ekartzeko".

Hori guztia salgai ipiniko dute, Laubide plazako saltokietan, "produktu guztiak prezio herrikoietan", zapatu eta domekan, 11:00etan hasita.

Horrez gainera, oihitura izaaten dute halakoetan azokara ekarritako produktuekin doaneko dastatzea egiteko, eta Laubiden

ere egingo dute, festa galegora doaznen artean.

## BESTELAKO EKITALDIAK

Bestalde, musika eta dantza ekitaldiak ere antolatu dituzte. Zapatuan, 12:00etan, Arrostaitz dantza taldeak saioa egingo du eta arratsaldean, Os Galaicos folklore-talde galiziarrak, 18:00etan. Hain ostean, Eibarko Galiziako Etxe-

ko As Burgas gaita-joleek, dantzariak eta *pandereiteira eta cantareira* taldeek saioa egingo dute.

Bukatzeko, 23:00etan Queimada Handiaren txanda da. Galizatik etorritako jende espezializatuak egingo du.

Domekan, berriz, 18:00etan Adunia folk taldearen saioa izango da eta 21:00etan atzera ere queimada jango dute.



## Goiuru baseria bota egin dute; azkena izango da

Garaia Berrikuntza Gunea eraikitzeko lanak abiada bizian doaz azken hilabeteotan. Horren adibide da oraingo astean Garagartzara bidean zegoen Goiuru baseria bota egin dutela. Ugarte-Markaide familiarenan zen Goiuru. Eraiste horrekin, beste sei hektarea eta erdi lursail gehiago eskuratu dituzte Garaiarendako. Goiuru baseria zegoen inguru horretan biribilgunea

eraikitzea da asmoa, errepidetik Garaia Polora igo ahal izateko.

Udaletik jakinarazi dugutenez, Garaia Poloa egiteko Uribarri auzoan botako duten azkeneko baseria da Goiuru. Iaz, eta Uribarri baserri auzoko bizilagunen penarako, beste bi bota behar izan dituzten: Urra etxea eta Gautxori.

## INGURUMENA

### Erabiltzen ez ditugun objektuak birziklatu

Ezker Batuak proposamena egin dio Udalerri zerbitzu hori abiarazteko

**U.M. > ARRASATE**  
Erabiltzen ez ditugun eta opari egin gura ditugun objektuak birziklatzeko aukera eskaintzeko esku dio EBk Udalerri. EBk proposatu duena da Udalerriaren webgunean aukera izatea herriarrek objektu horien berri emateko, gero birziklatu ahal izateko. Joseba Ugalderen esanetan, "Freecycle sarean dago inspiratuta eskaera. 2003an abiarazi zuten, AEBetako Tucson hirian, zaborra gutxitzeo". Ugaldeak jakinarazi duenez, *freecycle*-k aukera ematen die herriarrei eta irabazi asmo bako elkarteei behar ez dituzten objektuak birziklatzeko. Edozein motatako objektuak sartzen dira zerbitzuan, betiere, doakoak, legezkoak eta adin guztietarako egokiak badira.

## > OBRAK Zarugaldeko aparkalekuak lekuz aldatu dituzte

Zarugaldeko lanak egiten dabilta azkenaldian. Kalearen hasierako zatian autoen joan-erorrria bideratu gura dute. Izan ere, gaur egun, ibilgailuak kalea zeharkatu ezinda edo zeharkatzeko zaitasun handiekin ibiltzen dira.

Hori saihesteko, batetik, pibotak ipiniko dituzte espaloietan, aparkatzea galarazteko. Bestetik, aparkalekuak lekuz aldatuko dituzte, eskuematik ezkerrera, hango garajeendako egokiagoa delako.

## > OBRAK Muxibarko biribilgunea hiru hilabetez itxita

Oraingo astean itxi egin dute Muxibarko biribilgunea, eta itxita egongo da datozten hiru hilabeteotan, Aramaio errekkako saneamendu lanen eraginez. Horren ondorioz, Kanpanzarrera edo Meatzerrekaera ezingo da handik joan; Udalak abisatu du Epeleko bidea hartu behar dutela gidaiek. Horrek esan nahi du herri kanpotik bakarrik joan ahal dela aipatutako bi leku horietara.

**IKER BARANDIARAN > ARRASATE**  
Des-Kontrolek izen handia hartu du.  
Atzerrian jotzeaz gain, laugarren  
lana kaleratu berri du. Hilaren 13tik  
22ra bira egingo du Euskal Herrian,  
AEBetako Dryheavers taldearekin.

Zer ikasi duzue AEBetan eta  
Alemanian egindako biretan?

Gauza asko. Punk-oi! musika  
atzerrian zenbatek jarraitzen  
dut, kontzertuak zelan egiten  
dituzten... Ikusi dugu gure musi-  
ka atzerrian ere bizirik dagoela.

Zuek uste duzue Arrasateko  
punk-oi! musika esportatzeko  
modukoa dela?

Bai. Orain arte eszenatokia  
partekatu dugun atzerriko talde-  
ek esan digute Des-Kontrol gus-  
tuko dutela, eta AEBetara eraman  
genituen disko guztiak saldu geni-  
tu. Orain dela bi aste Oñatin  
Ingalaterrako talde batekin jo  
genuen, eta Inglaterran bira egi-  
teko gonbidatu gaituzte. Horrek  
erakusten du nahiz eta euskaraz  
abestu egiten dugun musika  
esportatzeko modukoa dela. Eta  
dagoeneko atzerriko hainbat bil-  
dumatan esku hartu dugu.

Taldeak 10 urte bete ditu. Zer  
balantze egiten duzue?

Balantze positiboa. Hasi gine-  
nean jotzeko aukera gutxi zeuden  
eta Euskal Herrian gure tanke-  
rako oso talde gutxi zeuden. Poli-  
ki-poliki berpizten joan da eta  
gaur egun halako talde asko dau-  
de Euskal Herrian. Asko aldatu  
da egoera.



Joan den urtean AEBetan (argazkian) eta Alemanian egin zituzten birak. Orain dela bi aste, *Duintasunez eutsi* disko kaleratu dute.

DES-KONTROL

#### Des-Kontrol > Musika taldea

## "Euskaraz abestu arren, badakigu guk egiten dugun musika esportatzeko modukoa dela"

**Joan gaitezen harira. Zer  
moduz grabazioa Phocasekin?**

Ondo. Jean Phocasek urte  
asko daramatza zeregin horretan,  
eta hori igarri egiten da. Hark graba-  
tu zuen Cicatrizen *Inadaptados*. Horrek ilusioa eragin zigun,  
nahiz eta jakin Oskorriren lanak  
grabatu dituela. Estudioa ikara-  
garria da, espaziuntzia dirudi, eta  
emaitzarekin oso gustura gaude.

Zer dela eta aukeratu duzue  
Oihuka diskotexea?

Argi geneukan behingoz dis-  
ko Euskal Herrian ondo bana-  
tzea gura genuela. Aurrelik lan  
egin dugun Bronco Bullfrog eta  
Potencial Hardcore diskotexee-  
kin ez genuen hori lortu. Hemen-

go diskotxeak ez dira gure musi-  
kakendako egokienak, baina  
banaketa ziurtatu gura genuen.

**Duintasunez eutsi. Zeini zuzen-  
duta dago?**

**"Oihukarekin disko  
kaleratzeko arrazoia da  
Euskal Herrian ondo  
zabaldu gura dugula"**

Gure kontzertuetara joaten  
direnei eskainita dago. Haiek  
barik gu ez gara ezer. Jendeari  
esaten diogu ez aldatzeko eta  
rock-and-rollean jarraitzeko.

**Zer asmo daukazue orain?**

Dryheavers taldeak erdibana  
disko bat kaleratzea eskaini digu.  
Kaliforniako diskotexe batek kale-  
ratuko luke eta European ere bana-  
tuko genuke. Baliteke ingelesez-  
ko kanturen bat grabatzea, atze-  
rian banatuko delako.



**Kalitatezko ametsak**  
**DENDA BERRIA  
BERCARAN**  
**bede®**  
**Dendak**



ESKUBALOIA &gt; IGOERA FASEA

# Igoera fasean, gipuzkoarren arteko derbian asko dago jokoan

Donibanek eta Ford Mugarrik lidertzak eskuratzeko ahalegina egingo dute bihar, Pasaien

Urdanetak eta Urdulizek, berriz, bizkaitarren arteko derbia jokatuko dute asteburuan

**XABIER URTZELAI** > ARRASATE  
Igoera fasean pare-parean daude indarrak. Oraindik hiru norgehiagokoa baino ez dituzte jokatu, baina ez dago faborito argirik, lau talde daude-eta lau puntuarekin berdinduta. Asteburuan, baina, aldatu egingo da hori, aurrealdean dabiltzan lau talde horiek elkarren kontra jokatuko dute-eta: gipuzkoarrek alde batetik eta bizkaitarrek bestetik.

Hala, Ford Mugarri Arrasatek ondo baino hobeto ezagutzen duen Donibanerren kantxan jokatuko du: "Azkeneko hiru urteotan jokatu ditugun norgehiagoketan, gehienez, bi goleko aldeagatik irabazi edo galdu dugu; berdindu ere askotan berdindu



BI GOLEKO ALDEA Ligako azken jardunaldian elkarren kontra jokatu zuten Ford Mugarrik eta Donibanek (26-24). J.A.

dugu. Argi dago oso maila antzerakoa daukagula", esan digu Arrasateko entrenatzaile Andoni Arandok. Ford Mugarrik etxetik kanpora jarraian jokatzen duen bigarren norgehiagokoa izango da biharkoa: "El Pilarri irabazi egin genion, eta pasaitarei euren kantxan bi puntuak kentzea demasa izango litzateke. Batetik, sailkapenean aurrera

egingo genukeelako, baina besetik, psikologikoki indarra ematen duelako horrek".

#### MIN HARTUTAKO BAKARRA

Arandok ia talde osoa izango du eskura: "Manu Carrasco min hartuta dago, baina gainontzeko jokalariak Pasaiara etorriko dira. Joan den astean hainbat jokalari egon ziren zigortuta,

baina oraingo astean ez dago horrelakorik".

Hala, indarrak berdinduta egongo diren horretan, detaile txikiak berebiziko garrantzia izango dute: "Atezainetako batek egun biribila badu, horrek erabaki dezake norgehiagoka. Donibanerren aurka defendatzea ez da erraza, eta hor egon beharko dugu sendo. Eta erasoan kalerik ez egin, noski".

> SASKIBALOIA  
**Mugarri Alkesak Santutxun jokatuko du bihar arratsaldean**

Sailkapeneko azken postuan dagoen Ocaso Berrio Otxoa taldearen kontra jokatuko du Mugarri Alkesak bihar (19:30).

Santutxuko taldeak eman du ezustekoren bat edo beste; kontuz, horrenbestez. Horrekin batera, Zurututzaren mutilak Askartza eta Tabirako Baque taldeean arteko norgehiagokaren emaitzaren zain geratuko dira.

> FUTBOLA  
**Azken postuan dagoen Allerru izango da Atxabalpen**

Hamaikagarren postuan dagoen Mondrak garaipena behar du denboraldia amaitzeko geratzen diren norgehiagoketan, etxearen, zapore gozoa usteko. Eta, azkeneko postuan dagoen Allerruren bisitak horretarako balio behar du, itxura txukuna erakusteko. Joan den astean Zestotik ekarri-tako puntuek balio handiagoa izango lukete horrela.

> BESAIDE  
**Besaide Mendi Elkarteak mendiko eski irteera egingo du**

Besaidekoak mendiko esku egingo joango dira asteburuan Pic Ardidenera (Frantzia).

Eski estazioetan dagoeneko elurra ez dago onenean, baina Pirinioetan oraindik gura beste elur dago, eta mendiko esku egingo ez dago inongo arazorik. Ez da izango urteko azkeneko irteera, maiatzaren 13ko eta 14ko asteburuan Anetora joango dira-eta.

> ERRUGBIA  
**Oso gaitza bada ere, Plentziaren ahaleginduko dira bigarren sailkatzen**

Igoera fasean dabilen Arrasatek aukera txikiak ditu hirugarren postutik bigarrenera jauzi egiteko. Oraingo asteburuko kontrario Kakarraldo dago bigarren postuan, baina hainbat puntuoko aldea dago bi taldeen artean. Kontuak kontu, helburu horrekin joango dira domekan Plentziara. Azkeneko norgehiagokoa liderraren kontra jokatuko dute: Eibar.

## futbitoa zaldibar

### EMAITZAK

Tomahawk - Fuxxon .....	2-3
Arrano Taberna - HLB 108 .....	6-7
Saukelu Scream - Lasagabaster .....	3-1
Iriztu Taberna - Abokajarro .....	1-1
Berdes Bremen - AC Surcos .....	2-4
Pippol - Iluntz .....	2-2
THC - Irish Pub Dublin .....	0-5
Billy & The Cowboys - Aurrera Bolie .....	2-4
Iriztu Taberna - AT Celaya .....	10-2
Betrayer - Abokajarro .....	5-7

### PARTIDUAK

Apirlak 1, zapataua

09:50 THC - HLB 108	AT Celaya
11:00 AT Celaya - Iluntz	THC
12:00 Berdes Bremen - Irish Pub	Iluntz
13:00 Tomahawk - Lasagabaster	Irish Pub
16:00 Billy & The ... - Fuxxon	Dribbling
17:00 Dribbling - Abokajarro	Fuxxon
18:00 Arrano Taberna - AT Celaya	Aboka.

Apirlak 2, domeka

10:50 Betrayer - AC Surcos	Pippol
12:00 Pippol - Iriztu Tab.	AC Surcos
13:00 Saukelu Scream - Iluntz	Iriztu

### SAILKAPENA

	P	J
1. Dribbling .....	40	15
2. Betrayer .....	34	15
3. Lasagabaster .....	34	14
4. Iriztu Taberna .....	29	14
5. Saukelu Scream .....	28	15
6. Abokajarro .....	27	15
7. Pippol .....	26	15
8. Fuxxon .....	25	15
9. AC Surcos .....	24	14
10. Iluntz .....	22	14
11. AT Celaya .....	21	14
12. Arrano Taberna .....	21	14
13. Irish Pub Dublin .....	21	14
14. Tomahawk .....	18	15
15. Billy & The Cowboys .....	18	15
16. Aurrera Bolie TMT .....	15	14
17. HLB 108 .....	15	15
18. Berdes Bremen .....	9	15
19. Txoponbeixe .....	6	15
20. THC .....	0	14

## Bi norgehiagoka jarraian, eta biak garrantzitsuak

AT Celaya eta Iluntz taldeek gogotik egin beharko dute lan asteburuan. Bi norgehiagoka jokatu behar dituzte, eta biak garrantzitsuak. Hori gutxi balitz, elkarren kontra ere jokatuko dute, eta bata bestearen jarraian daude sailkapenean. Hala, bihar 11:00etan izango da norgehiagoka hori. Arratsaldean, berriz, Celayakoek Arrano Tabernakoak izango dituzte kontrario. Iluntz, berriz, ez ditu bi zeingehiagokak batera jokatuko; domekan dute partidua, Saukeluren kontra (13:00).

> SASKIBALOIA  
**Mugarri Alkesak Santutxun jokatuko du bihar arratsaldean**

Sailkapeneko azken postuan dagoen Ocaso Berrio Otxoa taldearen kontra jokatuko du Mugarri Alkesak bihar (19:30).

> FUTBOLA  
**Azken postuan dagoen Allerru izango da Atxabalpen**

Hamaikagarren postuan dagoen Mondrak garaipena behar du denboraldia amaitzeko geratzen diren norgehiagoketan, etxearen, zapore gozoa usteko. Eta, azkeneko postuan dagoen Allerruren bisitak horretarako balio behar du, itxura txukuna erakusteko. Joan den astean Zestotik ekarri-tako puntuek balio handiagoa izango lukete horrela.

> BESAIDE  
**Besaide Mendi Elkarteak mendiko eski irteera egingo du**

Besaidekoak mendiko esku egingo joango dira asteburuan Pic Ardidenera (Frantzia).

Eski estazioetan dagoeneko elurra ez dago onenean, baina Pirinioetan oraindik gura beste elur dago, eta mendiko esku egingo ez dago inongo arazorik. Ez da izango urteko azkeneko irteera, maiatzaren 13ko eta 14ko asteburuan Anetora joango dira-eta.

> ERRUGBIA  
**Oso gaitza bada ere, Plentziaren ahaleginduko dira bigarren sailkatzen**

Igoera fasean dabilen Arrasatek aukera txikiak ditu hirugarren postutik bigarrenera jauzi egiteko. Oraingo asteburuko kontrario Kakarraldo dago bigarren postuan, baina hainbat puntuoko aldea dago bi taldeen artean. Kontuak kontu, helburu horrekin joango dira domekan Plentziara. Azkeneko norgehiagokoa liderraren kontra jokatuko dute: Eibar.

### S. CARRASCAL S.L.

Guk egindakoak:  

- Sukalde altzariak
- Horma-armairuak
- Trastelekurako armairuak

Erakusketa berria

Ekutio kalea pab. 14-15  
Uribarri auzoa 4  
Tel. faxa: 943 79 01 82

**ad** **ibabe**  
**IBABE GARAJEA**

**MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA**  
Gesalibar auzoa z/g.  
Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

**Txitxine**

Berezitasunak  
Kazuelatxoak  
Ogitarteko  
hotz eta beroak  
Arrasate pasealeku 33  
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

**OGARAN jatetxea**

Garagartza auzoa  
Tel.: 943 79 76 58

ARRASATE

kanpotarrak arrasaten

Gabriela Bojamowska > Ingeniaria  
Poloniarra

# "Harritu egin nintzen elurragatik herria geratu egin zela ikusita"

XABIER URTZELAI > ARRASATE

Aspaldiko negu goxoenia igaro du Gabrielak Arrasaten. Eta ez hark bakarrik, Poloniako beste zortzi lagun daude-eta herrian: "Hemen goea ez da negua!", esandigu, barreka: "Negua beharrean etengabeko udaberria izan da guretako".

Ingeniaritza Mekanikoko goi mailako ikasketak egiten dabil Gabriela, eta urria ezkerro dago Arrasaten. Mutil-laguna ere poloniarra da, Bartosz, eta eskolatik edo lanetik intendakoan espainolezko eskoletara joaten dira. Hilabeteak daramatzate hemen, eta ez dute denborarik galdu: "Anda-

luzian ibili gara, eta baita Madril-en ere". Horrekin batera, Euskal Herriko hainbat txokotan egon dira, bai kostaldean eta baita mendietan ere.

Dagoeneko udaberrian bagaude ere, Gabrielari negua ez zaio luzea egin: "Poloniako negua, hura bai gogorra! Lehenengo

**"Baserriak, mendiak, ardiak... asko gustatu zaizkit, eta baita sagardotegiko txuleta ere!"**



Gabriela Bojamowska.

elurtea bota zuenean harritu egin nintzen, eskolak bertan behera utzi zituzten eta herriaren marxa geratu egin zen. Polonian ez da horrelakorik gertatzen".

**BASERRIEIKIN TXUNDITUTA**

Euskal Herrian gehien gustatu zaizkion gauzen artean baserriak aipatu dizkigu, eta baita mendiak ere. Hori bai, berehala etorri zaio gogora sagardotegian jandako txuleta, baina esan digu, baita ere, Poloniako ogia igartzen due-la faltan: "Hemengo ogia ona da, egunean bertan jateko". Baserriko ogia probatzeko esan diogu.

Jendearekin zelan konpontzten diren ere galdu egin, eta euskaldunok irekiak ei gara: "Iku-si dut jendea laguntzeko gertu dagoela. Zerbait jakin gura nue-nean lagunei edo etxekoei galde-tu eta ahalegin handia egiten zuten erantzutearren. Eurek erantzuna ez bazekiten, han eta hemen galdetzen zuten erantzuna jakin arte". Uztailera arte egongo dira gure artean.

bere ustez




Oihan Zubizarreta

## Bizitzako gauza txikiak

**B**izitzako gauza txiki-en-gatik ez balitz... Halaxe kantatzen du Her-tzainak musika taldeak taberna zuloetako txikita-sun horiek dastatzen egoten garenetan.

Esaldi borobila benetan, gure zaharragoen bizimolde hain ezberdin baina ikasia den horretatik ateratakoa seguruenik. Eta nire egune-roko plazer txikiak hartu ditut gogoan: doministik egitea, egunkaria irakurtzea, unibertsitateko lagunak goi-zero ikustea, kafe batzen zapo-

hau be badaukou!



TXATXILIPURDI

**Eneritz Salcedak ederki botatzen ditu piropoak, entzun ere egin beharko ditu...**

Urtxintxa aisialdi eskolak Euskal Herri mailan piropo lehiaketa antolatu du. Eta, horretaz baliatuta, Okendoko ludotekako gaztetxoek ere lehiaketa propioa egitea era-baki zuten. Hala, neska-mutikoek 52 piropo aurkeztu zituzten, eta epaimahaiak erabaki zuen guz-tien artean Eneritz Salcedaren zu kafe eta ni esne, biak batera kafes-ne piropoa zela onena. Jarraian, ludotekakoek 52 piropoak aurkez-tu zituzten Urtxintxaren lehiaketa-ra, eta han ere, Eneritzena fina-lerako sailkatu da. Orain, 18 urte-tik beherakoek [www.aisia.net](http://www.aisia.net) webgunean bozka dezakete piro-po onenaren alde.

rea zigarro baten kearekin nahastea, hemerotekako egunkarien paper-orrietan galtzea, gustuko kantu baten doinuak deskubritzea, film laburrak ikusi eta erdizka ulertzea, pisukidearen gaue-roko muxua...

Ze guay-a den gure bizi-tza! Eta hain gauza handiek inguratzen gaituze bizi-tzan... ez baitugu jakiten zer garen horien alboan. Gauza txikietan indarrak bilatuko bagenu eta zoriantasun apur bat baino ez, gauzak handi bilakatuko genitzke.

Txoko honetan idaztea ere zein gauza txikia den baze-neki... nire plazer txiki bat delako ez balitz... Eta hain gara txikiak, zu eta ni, eta gure herria, eta hitz hauek.



943 711768

**UGARTE**  
AROTZETIA-ALTZARIAK



Arotz lanak orokorrean  
• Horma armairuak  
Altzariak • Leihoak • Ateak

**ALTZARI DENDA**  
Ikerleku zeharbidea • BERGARA  
Tel.: 943 03 46 30

**ERAKUSKETA ETA TAILERRA**  
San Juan 1A • BERGARA  
Tel.: 943 76 54 91/ Faxa: 943 76 08 44



ZAHARBERRITZEAK

PVC, ALUMINIOA, EGURRA

**Erakusketa eta biltegia:**  
Kale txiki 3 beheha (Musakola)  
Tel. eta faxa: 943 77 11 20

**Metal aroztegia eta PVC**

Leihoak eta itxierak

**Egur aroztegia**

Leihoak  
Ateak  
Armairu enpotratuak  
Armairu-fronteak  
Mota guztiako zoruak  
Lixatua eta bernizatua

**Osagarriak**

Neurriira egindako alfonbrak  
Gortinak, mahaiak eta aulkiaik



FERIA 09:30etik aurrera egongo dira ikusteko moduan feriako postu guztiak.

GOIENKARIA

OSPAKIZUNA &gt; ERRAMU ZAPATU EGUNA DA BIHAR

## Aberez eta artisau ez beteko dira erdiko kaleak

Zirkulazioan eta aparkalekuetan aldaketak egongo dira; gaur hustu behar dituzte kale batzuk

OIHANA ELORTZA > BERGARA  
100etik gora abelburu ekarriko dituzte biharko feriara. Seminarioa eta Ibargarai kalean egongo dira, 09:30etik aurrera. Txakur-leren eta makinaria erakusketa ere seminarioan jarriko dituzte. Euskal Labeleko produktuen postuak, berriz, herriko hainbat kaletan jarriko dituzte, baita artisau-

nak ere; 40 bat artisau postu egongo dira guztira. Goiz osoan, Zubietako zanpantzarrak ikusi eta entzungo dituzte kaleetan gora eta behera eta 13:00etan, luma-gorri oilaskoen erakusketa, dastatzea eta salmenta egingo dute seminarioan. Urteroko txorimalo lehiaketa ere egingo dute eguerdia bitartean.

Arratsaldean, zezen txikiekin, txerriekin eta hainbat jostailurekin egingo dute jolas umeek herriko plazan. Eta gauean, urtero bertso saioa egingo dute, 22:30ean hasita. Enaitz Alustiztak bertsotan jarriko ditu Egaña, Lizaso, Mendiluze, Arzallus, Colina eta Lujanbio. Sarrerak 5 euro balio du.

**ALDAKETAK ZIRKULAZIOAN**  
Azokaren eraginez, erdiguneko zirkulazioan eta aparkalekuetan aldaketak egongo dira bihar. Aurretan ere, erdiko kaleetan jarriko dituzte, batik bat, Erramu Zapaturu feriako postuak, eta horrek trabak sortuko ditu zirkulazioan. Gainera, erdiguneko kale batzuk erabat itxita egongo dira. Ibargarai, adibidez, goizean, eta San Martin plaza egun osoan. Horrekin batera, ibilgailuak erdiguneko hainbat kaletatik kentzeko dei egin du Udaltzaingoak. Ibargarai kalean, adibidez, ez da ibilgailurik utzi behar, Migel Altunatik autobusen geltokiraino, zapatuko 06:00etatik aurrera. Zirkulazioa Zurradero eta Matxiategi kaleetik bideratuko dute udaltzainek. Bestalde, Herri Lagunak eta Irala kaleetan, Telefonicako aldatapik Gaspar jatetxeraino, ezin da autorik apartatua gaur, egubakoi-tza, eta bihar.

## ORRASKI solarium

San Pedro 6  
Tel.: 943 76 47 01  
BERGARA

*Eguzkia neurrian hartzen  
jakin behar da*

### Aste Santurako eskaintza berezia

**6 saio + 1 doan  
42 € bakarrik**

Zentro honek betetzen ditu 1002/2002 (BOE 243, 2002/10/10) Errege Dekretuan ezarritako araudia eta 265/2003 (EHAA 222, 2003/11/13) Dekretua.

Beltzaren jartzeko aparatuene UVA izpiek eragina izan dezakete azalean eta begietan. Ondorioak izpien izaeraren eta intentsitatearen araberaokoa izango dira, baita pertsona bakoitzaren azalaren sensitibitatearen araberaokoa ere.

### > AURREKONTUAK

#### Urteko aurrekontuak oraindik onartu gabe egotea salatu du Bergara Aurrera plataformak

Aurtengo aurrekontuak oraindik onartu gabe daudela salatu du Bergara Aurrerak, eta oraindik zirriborrorik ere ez egoteak udal gobernuaren gestio eskasa adierazten duela esan du. Bitartean inbertsioak egiten ari direla ere salatu du, zenbait kasutan inbertsio handiak, besteak beste igerilekuak, Arrizuriagako jauregian liburutegia jartzea eta auditorioa. Plataformak zirriborroa lehenbailehen egitea eskatzen du, herritarren iritzia kontuan hartuta.

### > SINADURA BILKETA

#### Eskolak euskalduntzearen eta giltzurrun gaixoen alde batuko dituzte Erramu Zapatuaren

Bihar mahaiak jarriko dituzte kaleetan eskolak euskalduntzearen aldeko sinadurak batzeko. Une honetan, hiru ikasletik batek bakarrik daki euskaraz ikasketak bukatzean. 30.000 sinadura batu gura dituzte Euskal Herrian; 1.000 Bergaran. Dagoeneko 800etik gora lortu dituzte. Herriko hainbat eragilek eman diote babesak ekimenari. Bestalde, giltzurrunetako gaixoen aldeko sinadurak ere batuko dituzte, transplanteen sentsibilizazioa zabaltzeko.

### > ERREPIDEA BABESTEKO HESIAK

#### San Martzialera doan bide-ertz zati baten hesiak jarriko dituzte, Askatzu baserriaren parean

San Martzial auzora doan bideko zati baten hesiak jarriko dituzte. Askatzu baserri parean jarriko dituzte hesiak bide-ertzean, baserria baino aurrerago eta 100 metro inguru, gutxi gorabehera. Errepidearen babeserako jarriko dituzte hesi horiek. Carpinteria del Bidasoa Laister SL empresari adjudikatu dio Udalak lan hori eta 9.100 euroko aurrekontua du, BEZA barne. Empresa horrek Udalaren erabakia jakin eta hilabete barruan jarri beharko ditu babeserako hesi horiek.

### > BERBA KANPAINA

#### 100etik gora herritarrek hartu dute konpromisoa euskaraz egiteko eta bizi izateko

100etik gora herritarrek hartu dute euskaraz egiteko eta bizi izateko konpromisoa. Jardun, AEK eta Euskal Herrian Euskaraz taldeek elkarrekin egindako Berba kanpaina lehen balorazioa da. Abenduaren hasieran abiutu zuten kanpaina. Orduan 30 lagunek eman zuten euren konpromisoa; harrezkero, etxez etxe eta herriko komertzioetan zabaldu dute ekimena eta 100etik gora lagun konprometitu dira guztira. Bergara euskalduntzen jarraituko dute hiru taldeek, euskararen normalizazioaren alde lanean.



EDU MENDIBIL

## Kontxi Larrañaga, omenduta

Kontxi Larrañagak Jaurlitzaren Osasun Saileko plaka jaso du. Izan ere, Odol Emaile Handia izendatu dute, 65 odol emate egin baititu 1978tik hona. Bergarako Odol Emaileen Elkarteko lagunek plaka eman zioten martitzenean. Argazkian Kontxi Larrañaga Bergarako Odol Emaileen Elkartean lanean ari den koadrilarekin.

EUSKARA > JARDUNEK, EUSKALTEGIEK ETA UDALAK BULTZATUTAKO BERRIKETAN EKIMENA

# Euskaldun berrieik euskaraz egiteko ekimena abiarazita

Helburua da euskaldun zaharrak eta berriak harremanetan jarri, eta berba egiteko aukera eskaintza

Euskaltegietako ikasleez gain, euskara egiteko premia edo gogoa duenak esku har dezake ekimenean

IKER BARANDIARAN > BERGARA  
Jardunek, bi euskaltegiek eta Udalak euskaren erabileren eta ezagutzaren arteko tartea murriztea erabaki zuten. Horretarako, Berriketan programa sortu zuten, eta euskaldun zahar eta berriei dei egin zieten esku hartzeko.

Lehenik eta behin, mahai ingurua antolatu zuten, beste herri batzuetako halako esperimentziak jasotzeko. Herritarrek oso ondo erantzun dute. Hain zuzen ere, 16 euskaldun zaharrek eta 21 euskaldun berrik eman dute izena ekimenean. Hala, berba lagunen hamar talde dazkate, eta beste zazpi euskaldun zahar prest daude euskaraz egin gura dutenei laguntzeko. Horregatik,



EDOZEIN EKINTZA Berba lagunek eurek erabakitzentz euskaran berba egin bitartean zer egin.

BERRIKETAN

Berriketaneko arduradunak dei egin die euskaraz egiteko premia dutenei, izena eman dezaten. Intresatuek Jardunera jo dezakete, eta telefoonoz (943 76 36 61) edo e-postaz ([berriketan@topaguinea.com](mailto:berriketan@topaguinea.com)) ere jar daitezke harremanetan arduradunekin.

Berba lagun bakotza euskaldun zahar batek eta euskaldun berri bik osatzen dute. Eurek erabakiko dute noiz elkartu eta

zer egin (kafea hartu, paseatu, erakusketaren bat ikusi, txikiteo egin, parkean egon...). Baldintza bakarra da astean behin ordubetez euskaraz egitea.

## ASTEBURURAKO EKINTZAK

Bestalde, Arrasateko Zahar Berri ekimenean berba lagunak osatzearaz gain, berba taldea ere badute. Talde horretako kideek asteburueta bestelako ekimenak egi-

ten dituzte (museoetara bisitak, mendi irteerak, bazkariak, bertso-afariak, irteerak...). Berriketaneko asmoa da irteera batzuetan Bergarako eta Arrasateko kideak batzea.

Bestalde, gaur, egubakoitzak, Berriketanen esku hartzen dabiltsan lagun guztiak mahaiaren bueltan batuko dira Oixirondo elkartean. Interesa duenak jo dezala Jardunera izena ematera.

> MUSIKA  
**Gaur, egubakoitzak, Apirilean Musika-ko emanaldi gehiago**

Bergarako Musika Eskolak antolatutako Apirilean Musika ekimena aurrera doa. Gaur, egubakoitzak, instrumentuen tailerra, Gazte Bandaren kalejira, gitarra ikasleen emanaldia eta Akordeoi Orkestra eta Orkestra Sinfonikoaren kontzertua egingo dituzte, besteak beste.

> ERAKUSKETA  
**Mentxu Galen margolanak hilaren 30era arte ikusgai**

Irungo Mentxu Gal margolariak erakusketa dauka ikusgai Aroztegi aretoan. Gal oso margolari ezaguna da, eta laster bere omenezko museoa zabalduko dute jaiotterian, Irunen. Bergaran, Irungo museoan jarriko dituzten hainbat lan daude ikusgai hilaren 30era bitartean.

> LEHIAKETA  
**Koldo Eleizalde lehiaketan esku hartzeko azken asteak**

Udaleko Euskara Sailak antolatutako Koldo Eleizalde lehiaketan izena emateko azkeneko eguna hilaren 28a izango da.

Lau kategoria daude horren barruan: ipuinak, bertsoak, komikiak eta ipuin-kontaketa edo antzerkia, hain zuzen ere.

## GOIERRI AUTO GIDARIEN ESKOLA



Edozein eratako gidabaimenak atera ditzakezu

Fraiskozuri plaza 5 Tel.: 943 76 41 50 BERGARA

## KONDE PANADEROKUA



Burdinatze 1  
943 76 02 57  
Toki Eder plaza 3  
943 76 14 87  
BERGARA

## POL-POL Taberna



943 76 07 78. Bergara

## JOXAN ARRAINDEGIA



Ibargarai 24. Bergara. Tel.: 943 76 70 29

## BERGARA Margoak



Kalitatea eta zerbitzua.

Amillaga 1, 1 pabilioia, goiko solairua. 162 posta kutxa, 20570 BERGARA  
Tel.: 943 76 97 31 Faxa: 943 76 97 32. [bergara.margoak@terra.es](mailto:bergara.margoak@terra.es)

Zubiaren mutilek  
lidearren etxeen  
jokatuko dute bihar;  
irabazi egin behar dute  
aldea txikitzeo

XABIER URTZELAI > BERGARA  
Bergara futbol taldea bigarrena  
da dagoeneko. Joan den astean  
Zumaiako mendean hartuta  
mahoneroek Preferentera igotze-  
ko txartela eman dezakeen pos-  
tura egin dute jauzi, baina hori  
ez da segurua. Kontua da, ora-  
ndik erabakitzeko dagoela dato-  
ren urtean Preferentean 18 edo  
20 talde egongo diren. Eta, horrek

FUTBOLA > ERREGIONAL MAILA

## Bigarren postuak ez du ezer ziurtatzen, lehenak bakarrik

zuzenean baldintzatuko du erre-  
gionaleko txapelketa ere. 18 tal-  
deko txapelketaren alde egiten  
badute, erregionalean bigarren  
sailkatzen denak ez du saririk  
izango, ez du Preferentera igotze-  
ko kanporaketa norgehiagoka  
jokatuko.

Hala, lehenengo postuak ema-  
ten du igoerako segurtasuna, bai-  
na horretarako Bergarak 6 pun-

tura dagoen Urola harrapatu  
behar du. Eta, oraingo asteburu-  
uan izango dute alde hori txiki-  
tzeko abagunea. Bergarak lide-  
rraren kantxan jokatuko du: "Zai-  
la da, baina oraindik posible da  
Urola harrapatzea. Lau norgehiag-  
goka geratzen dira, baina gure  
ostean Zumaiakoren eta Ilintxa-  
ren kontra jokatu behar dute,  
eta horiek ere talde gogorrak

dira." Zubiak, baina, aldaketak  
egin beharko ditu defentsan:  
"Defentsa goitik behera aldatu  
beharko dut, *Xurra*, Iker Azko-  
naga, Txomin eta Josu zigortuta  
daudelako". Urolaren gainean  
ere egin digu berba: "Eurendako  
berdinketa ere emaitza ona da,  
sei puntura jarraituko genuke-  
lako. Ez dute arriskatuko, baina  
guk garaipena behar dugu".

## Seniorretan, Bergarako lau pilotari finaletan

Gaur arratsaldean jokatuko  
dituzte, Bergarako Udal pilotale-  
kuan (19:00), Udaberri Txapelke-  
tako hainbat final. Hain zuzen ere,  
seniorretako bi kategoriatako eta  
gazte mailako finalak izango dira.  
Eta aipatzeko da seniorretako bi  
partiduetan Bergarak ordezkaritz-  
a izango duela. Hala, bigarren  
mailako seniorretan, Eneko  
Mugurutzak eta Joseba Herranek  
Elgoibarko pilotariak izango  
dituzte aurrean. Eta, lehenengo  
mailako seniorretan Ander  
Mugurutzak eta Igor Gutierrezek  
egingo dute txapelaren alde lan.  
Erretratu, Joseba Herran eta  
Eneko Mugurutza.



REYES AZKOTIA

### > PILOTA Debarro Txapelketako partiduak domekan

X.U. > BERGARA  
Oraingo asteburuan Bergarako  
eta Elgoibarko pilotarieki  
behin baino gehiagotan iku-  
si behar dute elkar, Udaberri  
Txapelketako finalekin bate-  
ra, Debarro Txapelketan ere  
indarrak neurtuko dituzte-  
eta. Hala, domekan (11:30)  
gazte mailako Bergara II bikoteak  
Elgoibar izango du aurrean,  
eta seniorretako lehenengo  
partiduan ere Bergara II  
bikoteak herri bereko ordez-  
karien kontra jokatu behar-  
ko du. Seniorretako azken  
partiduan izango da nobeda-  
dea, Iñarrak eta Gutierrezek  
Aretxabaletako pilotariak  
izango dituzte-eta kontrario.

Jakin, apirilaren 18an  
hasiko dutela Bergara Hiria  
Pilota Txapelketa.

## ESKUBALOIA

### Kopako kontrario gogorrena bisitan

Kopa ezin hobeto  
hasita, Bergarak  
Urolaren kontra  
jokatuko du etzi

X.U. > BERGARA

Bergarakoek Kopara begira  
egin zuten Ligako azken txan-  
pa. Bolada onari heldu gura  
izan zioten Kopa Txapelketa  
indartsu hasteko, eta badiru-  
di horrek emaitzak eman  
dituela. Bergarak Kopan  
jokatu dituen bi norgehiago-  
kak irabazi egin ditu, eta  
dagoeneko mahoneroak lide-  
rraren atzean daude.

Hain zuzen ere, lehenengo  
postuan dagoen Urola  
izango da domekan Labega-  
raietan (12:15). Zumarragako-  
ek hiru partidu jokatu dituze-  
ta (Bergarak atseden izan  
zuen lehenengo jardunaldi-  
an), eta horiek ere denak  
irabazi dituzte. Igoera fase-  
ra gutxigatik sailkatu ez zire-  
lako amorratuta, Urolak ere  
Kopa gura du.

## ETXEAN JOKATZEA ALDEKO

Bergarak azken hilabeteotan  
erakutsitako mailari eusten  
radio Urolak kontrario gogo-  
rra izango du. Bi talde horiek  
erakutsi dute gorputzaldi one-  
nean dauden taldeak direla.  
Kopa, baina, talde bakarrak  
irabaziko du.



Garbiketa, Administrazioa eta Konponketak

- Era guztietako garbiketak
- Zuen komunitateko administrazioa
- Konponketa orokorrak
- Eskatu aurrekontuak konpromisorik gabe.

Tel.: 653 70 45 47 OÑATI



SONIA TRIGUERO

Psiologoa / Psikoterapeuta

Edozein konsulta egiteko:  
Zuzendu Estetika eta  
Errehabilitazio Zentroa.  
Tel.: 943 72 52 62  
Poltsikoko tel.: 616 31 84 24

**CAMACHO**  
Drogeria  
Usaindegia

Bidekurutzeta 24  
BERGARA  
943 76 13 35

**ETXEBERRIA**

**ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA**

Bidekurutzeta 16 BERGARA  
Tel.: 943 76 23 94 / 943 76 12 65

**GAK**  
Garbiketa, Administrazioa eta Konponketak

Era guztietako garbiketak  
• Zuen komunitateko administrazioa  
• Konponketa orokorrak  
• Eskatu aurrekontuak konpromisorik gabe.

Tel.: 653 70 45 47 OÑATI

**SONIA TRIGUERO**  
Psikologoa / Psikoterapeuta

Edozein konsulta egiteko:  
Zuzendu Estetika eta  
Errehabilitazio Zentroa.  
Tel.: 943 72 52 62  
Poltsikoko tel.: 616 31 84 24

**MUJIIKA** FERRETERIA

UNIFE KOOPERATIBAKO KIDE

BERGARAKO ENPRESA ETA HERRITARREN ZERBITZURA

Bidekurutzeta 8. 943 76 28 67. BERGARA

**ANTIA**  
HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,  
txerri, bildots,  
untxi eta  
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA  
Tel.: 943 76 15 09

**OGIZUN**  
koop. elk.  
okindegia


Ibargarai 44-46 Zubillaga 10  
BERGARA OÑATI  
943 76 45 53 943 78 24 13

# POLTSIKO GUZTIETARAKO AUKERAK!!!

LORTU EZAZU  
ORAIN PREZIORIK  
ONENEAN.

Arrasate Pasealekua 35-37  
20500 Arrasate (Bolintxoren ondoan)

Tlf./Fax. **943 08 26 87**  
[itziarugarteoptika@euskalnet.net](mailto:itziarugarteoptika@euskalnet.net)



ITZIAR UGARTE  
*optika*

**nire bidaia hora****Saioa Sasiain**

Frantzia, Belgika eta Holandara &gt; 2005eko udan

# "Jende askok Inter-rail bidez egiten duen bidaia autoz egin genuen, baina ez zen astuna izan"

IRATI AGIRREAZALDEGI &gt; BERGARA

Saioa Sasiainek eta beste lau lagunek autoa goraino bete eta Europa aldera egin zuten bidaia iazko abuztuan. Frantziar, Belgikan eta Holandan ibili ziren eta makina bat txoko polit ezagutu zuten.

Bost lagunen asmoa zen jende askok *Inter-rail* bidez egin ohi duena autoz egitea. Horrela ekin zioten bidaia 2005eko abuztuan. "Bergaratik irten eta Amsterdamerako iritsi nahi genuen egun bakarrean, baina Paris egunez pasatzea asko kosta zitzai gun, auto mordoa zegoelako. Belgikara iristeko oraindik tartea geratzen zitzai gun. Gainera, kontuan hartuta Frantziarekin alderatuta han apena dagoea seinalerik, autobideko zerbitzugune batean lo egitea erabaki genuen. Batzuek autoan eta besteok lurrean", kontatu digu Saioak.

**AMSTERDAM ETA BRUJAS**

Atsedenaren ostean, Amsterdamerako hurrengo egunean iritsi ziren, eta bertan hartua zuten lotarako lekuak. Saioak esan digunez, "hirietan gazte aterpetxeetan egin genuen lo; jende pila bat zegoen bertan, baina ondo moldatu ginen. Kosta aldera joan ginenean, berriz, kanpinetan. Denetariko kanpinak aurkitu genituen: hiru izarreko kanpinak eta baita gaua pasatzeagatik sei euro ordaindu genituenak ere".

Amsterdamekin Brujasera joan ziren: "Ez dago konparatzeko, hiri lasaiagoa da Brujas Amsterdam baino, eta prezioetan ere sekulako aldea dago, lo egiteko bikoitzak ordaindu genuen Amsterdamen". Nahiko desilusio haratu zuten Amsterdamekin: "Bestelako izango zela uste genuen eta ez zitzai gun horrenbesteraino gustatu; aukeratzekotan Brujasekin geratuko ginateke. Gauza bitxia gertatu zitzai gun han: txalaparta hotsa entzun eta plaza batera gerituratu ginenean, nafar batzuk ari ziren txalaparta jotzen".



Saioa, Naiara, Amaia, Gotzon eta Andoni Brujaseko plazan.



Saioa Sasiain.

Handik Parisera egin zuten bidaia. Saioak zertxobait ezagutzen zuen hiria; beraz, "askoz errazago mugitu ginen hirian barrena metroan. Bi egunean leku ezagunenak bisitatu genituen: Garaipen Arkua, Eiffel dorrea..."

**KOSTALDERA**

Parisetik Normandiara barrutik kosta aldera egin zuten jaizia: "Normandian, Etretaten egon ginen. Bertan kala batzuk daude, oso politak direnak. Kostaldeko bideari jarraituz batik bat toki turistikoen bisitatu genituen". Mont Saint Michelera joan ziren gero. "Uharte txiki bat da, eta bertara iritsi ginenean asko harritu ginen. Autoak besterik ez genituen ikusi, eta jende pila bat. Ordu txarrean iritsi ginen bertara, marea aldaketaren orduan. Marea goran urak errepeidea ere estaltzen du eta autoak kendu behar zirenez sekulako pilaketa izan zen. Ez zitzai gun askorik gustatu", azaldu digu Saioak.

Handik Frantziako puntatxo batera, Granito Arrosaren Kostara abiatu ziren, eta Saioaren esanetan, "oso leku lasaia eta polita da; merezi du hara joatea". Kostaldean barrena Bretainiara egin zuten bidaia gero: "Carnac-en, menirrak dauden lekuak izan ginen, Asterix eta Obelixen ipuinaren bezalaxe".

Bidaia Landetan amaitu zuten, Duna de Pilan. "Ez genuen kanpinik aurkitu eta gaueko 10etan erabaki genuen autoa haritu eta Bergarara orduan bertan bueltatzea; izan ere, hiru ordu baino ez ziren falta".

Bidaia autoan egitea ez zitzaien batere pisutsua egin. Bost lagun joan ziren eta horietatik bik gidatu zuten. Bidaia gomendagarria da, Saioaren esanetan; gainera, ez zitzaien bateare garesti atera. "Kanpinetan lo egin genuen eta janaria etxeko modukoa ez izan arren, ongi moldatu ginen".

**bere ustez**

Iñigo Iñurrategi

'Phuntzionariat,  
47. mailako  
izakia'

**H**ala diño oin dala hogei ta hamar urteko Itoitzan diskuak.

Berdin berba ein geinkie EHU, Osakidetza, Ertzaintza, Udal administraziñoko langile... danetaz.

Ez naiz ni inok hobera eitten dabelako enbidixiak iota tarrapata batzen hasiko. Poztekua izan biharko litzake. Bainaz zeozer ez dago bere lekuak.

Aitta jubilau barri dogu, berrogeitaka urte geratu barik lan ein ondorian.

**"Ez naiz ni inok  
hobera eitten  
dabelako enbidixiak  
jota tarrapatan  
hasiko; poztu ein  
biharko nintzake"**

Soldatik konparatzeko ez, lan jardunak eta gainontzeko gutxiao... Zergak majo pagau, bestiak beste goian aittatutako kuadrilla guzti horri jaten emoteko...

Eta nago kasu horretan sindikatuek lartxo eitten dabela langile batzun alde eta ez horrenbeste beste batzun alde.

Ze, bestiak beste, gure aittan alde eittia litzake funtzionarioiak lana fundamentuz eittia exijitzia eta herriko zerbitzura daren heinian pribilegio berezirik bareko lan baldintzak negoziatzia. Eta ez dittut horretan ikusten buru belarri sindikatuok.

Ta hurrengo baterako lagako dogu lan postu publikuen jabetza pribatuak kontua...

**MIZPILDI**  
  
**OKINDEGIA**

Matxiategi 1. 943 76 72 73. Mizpildi 8. 943 76 12 32. BERGARA

**GURIA**  
*Taberna*

Bidekurutzeta 5  
BERGARA  
943 76 20 34

**BEHEKO  
TABERNA**

Menestra  
eta untxia dira  
gure berezitasunak

ANGIOZAR  
Tel.: 943 76 55 74

PINTXOAK eta  
OGITARTEKOAK  
SEKULAKO MARTXA!!

**EUXEBIO II**

Irala z/g  
Bergara  
943 76 07 92

ITZIAR UGARTE

*optika*

# ORDAINKETA ERRAZAK

**6 hilabetetan  
ordaintzeko aukera.**

(N.A.N. eta zure kontu-korronte edo  
txartel zenbakiarekin bakarrik)

**INTERESIK GABE**  
**Galde iezaiguzu!!**

**0%**

**UDALA > GOBERNU BATZORDEA APURTUTA**

# Aralarko buru Xabier Sarasua Gobernu batzordetik botatzea erabaki du EAJk

Bere ordez Aralarko beste kide bat sartzea proposatu dio Arritxu Oliden alkateak Sarasuari

Taldean egiten dutela lan erantzun diote Aralarko kideek; hortaz, "Aralar bota duela ulertzen dute"

**MIRARI ALTUBE > ARETXABAleta**  
Astelehenen goizean iragarri zion Arritxu Oliden alkateak Xabier Sarasuari EAJren erabakia: Gobernu batzordetik bidaltzea. Era berean, Aralarko beste kide bat sartzeko aukera aipatu zion.

**ZERRENDA-BURUA**  
Xabier Sarasua izan zen Aretxabaletako Aralarko zerrrendaburua. Hiru zinegotzi lortu zituen alderdiak orain dela hiru urte, eta Gobernu batzordea osatu zuen EAJ eta Ezker Batuarekin. Kultura eta Euskara sailetako zinegotzia ere bada, eta egun erdiko jarduna dauka Udalean. Gobernu batzordeko buru Arritxu da eta Maitane Urrutia EAJko kideak egiten dio lagun. Aralartik Felis Beltran de Heredia dago Sarasuarekin batera eta Ezker Batuko Jaime Muxikak osatzen du boskotea. Sarasua, gainera, bigarren alkate-ordea da.

**EGOERA JASANEZINA**  
Alkateak adierazi du berea dela erabakiaren erantzukizuna, Aretxabaletako EAJko buru izanda. Bidaltzearen arrazoia da "egoera egonezina da Gobernu batzordean eta ezin da jasan". Eta egoera jasanezina jarrera pertsonalek sortu dutela argitu zuen.

Agintaldi hasieran hirukotea osatu zutenean gogoz ekin ziotela lanari adierazi du Arritxuk, baina gero ez duela funtzionatu Gobernu talde gisa, eta "Xabierrek interes partikular batzuen alde-edo egin du", gaineratu zuen. Dena dela, aurrezantzean bakarrik geratu barik elkarlanean jarraitu gura du: "Ezker Batuarekin eta batez ere Aralarrekin lanean jarraitu gurako genuke Gobernuan bertran". Eta horregatik Aralarko beste kide bat sar daitekeela esan zion Sarasuari.

**ERANTZUN GOGORRA**  
Eguaztenean egindako prentsurrekoarekin eman zion erantzuna Aretxabaletako Aralarrek EAJri eta Sarasuarekin batera hain-



BABESA Aretxabaletako Aralarko kideek Xabierrekin bat eginda eman diote erantzuna prentsurrekoan EAJk hartutako erabakiari.

M.A.

## KONTUAN HARTZEKO

### Hiru alderdik eta bost lagunek osatu dute orain arte Gobernu batzordea

Aretxabaletako udalbatzarra 13 lagunek osatzen dute. 2003an hasitako agintaldia EAJ-EAREN eskuetan geratu zen -nahiz eta EAko zinegotzirik ez egon- eta sei zinegotzi ditu, bat legez kanpo utzitako Aretxa plataformak ateratakoak. Aralarrek hiru ditu, Ezker Batuak, PPk eta PSE-EEK bana, eta hamahirugarren aulkia hutsik dago, Aretxak ezin duelako hartzeta.

Gobernu batzordea Aralar eta Ezker Batuarekin osatu zuen EAJk, eta bost kide daude: EAJko bi, Aralarko bi eta Ezker Batuko bakarra. Quorum osatu eta bilerak egin ahal izateko gutxienez hiru lagun behar dira batzordean; hortaz, Aralarrek alde eginda ere ez litzateke arazorik egongo. Hala ere, alkateak ahalmena dauka bere edo beste alderdi bateko kideren bat sartzeko. Kontuan hartu behar da, gainera, organo aholku emailea dela batzordea, eta erabakiak alkatearen bitartez hartzen direla. Bestalde, osoko bilkuretan aztertzen dituzten gai batzuek gehiengo absolutua behar dute onartzeko, eta horretarako zazpi aldeko boto behar dira.

bat kide elkartu ziren. Erabakien zergatia ez dutela ulertzten adieraziz hasi zuten, hainbat interes egon daitezkeela atzean, eta Aralarko ordezkari eta zerrrendaburuaren aurka egin gura izan dutela. Aralarko kideek argi utzi gura izan zuten lantaldean egiten dutela lan; hortaz, "ordezkarri bat Gobernutik botatzea era baki badu, Aralar taldea bota duela ulertzten dugu".

Udalean egin duten lanari EAJk eman dion ordaina dela esan zuten prentsurrekoan. Eta lanaren jardunaz agintaldian lortu gura izan dituzten hiru kontu aipatu zituzten: batetik, osoko bilkura paraleloak sortzea herri plataformak Udalean parte har-


tu ahal izateko, nahiz eta gero ez jarri abian. Bestetik, Gobernu batzordeari eta sailen ardurak dituztenei erabakiak hartzeko ahalmena ematea. Eta hirugarrerenik, batzorde guztietan egingako lana azpimarratu zuten, "Udalean haien baino gehiago eragin dugu", esanaz.

EAJren "harrotasuna eta elkarlanerako gaitasunik eza agearian" geratu direla esanaz bukatu zuten, eta galdera bat jaurti zuten: "Beste inorekin kontatu gabe gobernatzea aretxabaletarrek onartuko dutela uste al dute?" Argi utzi gura izan zuten, gainera, Gobernuan edo kanpo herriaren eta herritarren aldeko lana ez duela inork oztopatuko.

**Mobiliario  
ARENZA**

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07  
ARETXABAleta



**Jauregi  
Okindegia**

Otalora 10  
Tel.: 943 79 57 47  
ARETXABAleta

EMAKUMEA > ERAKUSKETA

# Emakumeak euskal gizartean izan duen eragina ikusgai

Euskal Herriak Bere Eskolak antolatu du eta udaletxe zaharreko atartean egongo da apirilaren 12a bitartean

M.A.> ARETXABAleta  
*Euskal Herriko emakumeak iraganetik geroa landuz izeneko erakusketa jarri du EHBEk udaletxe zaharrean. Emakumeak gizartean izan duen eta duen paperaren garrantzia jabetzeko erakusketa da.*

**EMAKUMEA EZKUTUAN**  
EHBEk euskal curriculuma sortzeko prozesua abian jarri zueanek ekarpenak jaso zituen herriz herri, ikastetxe eta era-gileek egindako ekarpenak izan ziren. Ondoren, hausnarketa egiterakoan konturatu zen hutsune asko zituela oraingo hezkuntza ereduak, eta hutsuneetako bat emakumearen gai-neko da. EHBEko kideen esanetan, ikastetxeetan ezkutuan geratu izan da sarri emakumeek gizartean izan duten eta duten garrantzia, eta horixe era-kutsi gura du antolatutako erakusketak. EHBEk lantaldeak dituen herrietara eramango

dute lehenengo, eta datorren eguztenera bitartean izango dute ikusgai aretxabaletarrek.

## LAU IZEN ETA ZORTZI TALDE

Hamabi argibide-taula jarri dituzte udaletxe zaharrean, eta bakoitzak emakumearen gaine-ko errealityate bat jasotzen du. Lau argibide-taula izen propiodun emakumeei eskaini diete: etxe-ikastolen bultatzalea izan zen Elbira Zipritiari; PCEko idazkari Dolores Ibarriari; mugimendu ekologista-ko kide Gladys del Estal donostiarri; eta 2004ko abenduan senide presoa bisitatzera zihola- la istripuan hil zen Karmele Solaguren Barañaingo amari.

EHBEko kideek badakite, baina, izen propiodun emakumeekin batera beste askok egiten dutela lan isilean. Horien guztien lan eta nekeak ere jaso gura izan dituzte, eta dagokion garrantzia eman. Hala, zortzi talde daude: antzinako ohituren zaindari izandako sorginak, herriko ekonomiaren sustatzale gisa arrantza portuetako emakumeak, baserri eta familia-ren bihotz diren baserritarrok, soldatapeko lanean jardundako emakumeak, neskameak, emaginak, abertzale antolatuak izan ziren Euzko Emakume Batza eta gaurko errealityate diren emakume emigranteak.



URKULU Baimendu bako lekuetan ezin da ibili autoan; Goroetako bidegurutzetik aurrera, esaterako.

M.A.

UDALTZAINGOA > ASTEBURUETAKO ZERBITZUA

# Udaltzainak asteburuetan lanean Urkulu zaintzeko

Bihar, zapatua, hasi eta uda osoan jardungo dute lanean asteburuetan udaltzainek; asmoa da Urkulu urtegiko zirkulazioa zaintzea

MIRARI ALTUBE > ARETXABAleta  
Udaltzaingoak erabaki du zerbitzua zabaltzea uda partean. Hala, aste bukaera honetan hasi eta guztietan izango ditugu kalean, eta bereziki Urkulun.

## IZENDATUTAKO APARKALEKUAK

Zerbitzua zabaltzearen helburua da Urkulu urtegi ingurua zaintzea. "Eguraldiak onera egin ahal aho gero eta lagun gehiago hurreratuko da urtegira eta zirkulazio arazorik sor ez dadin zainduko dugu", dio Martin Garai udaltzain-buruak, eta gaineratu du: "Era berean, autoak izendatutako aparkalekuetan bakarrik dau dela ziurtatuko dugu".

Urkulura doan erabiltzaileak lau aparkaleku ditu autoa uzteko: Bainuetxe industrialdean –gero bidegorrian gora urtegira

igotzeko; Otalaran; Etxaluze baserriaren azpiko aldean, baina ezkerreko aldean bakarrik; eta Areantzaroko bidegurutze inguruaren dagoen iturri parean. "Eta beste inon ezin da aparkatu, nahiz eta lekua egon", dio Martinek.

## ALDE ETA AURKA

Aparkatzeko jarri duten irizpidearen aldeko eta aurkako iriztziak daude kalean. Batzuen esanetan, bada garaia Urkulu behar bezala zaindu eta auto kopurua murrizteko. Arrantza egitera joaten direnak, ostera, ez daude gustura erabakiarekin, eta ez dute ulertzen zergatik ezin duten autoa gura duten aldean utzi, lekua egonda.

Urtegi ertzean ezin da aparkatu, ezta autoan ibili ere baimendu bako lekuetan. Hala, Goroeta

auzoko bidegurutzean zutoinak daude ez pasatzeko eta Etxaluze baserri azpiko aparkalekutik aurrera ezin da joan. Horregatik, autoan doan edonori galdeztuko diote ea baimenik baduen.

Gainera, sasoi honetatik aurrera ohiko da lapurretak iza-tea aparkatutako autoetan. "Joan zen astean bertan jaso genuen salaketa bat. Eta urtegira sarriago joanda gutxitu egingo direla pentsatzen dugu", dio Martinek.

## UDA PARTERAKO ZERBITZUA

Asteburuetako zerbitzua bost udaltzainen artean emango dute, eta dagoeneko egin dituzte txandak. Zerbitzua, baina, ez da Urkulu zaintzeko bakarrik. Herrian bertan ere ibiliko dira, eta asteburuetan sortzen diren arazoak konponduko dituzte.

Oraingo hilabete batzuetarako zerbitzua da, bost lagunekin ezin dutelako gehiago luzatu. Horren haritik, aurten seigarren udaltzaina hartzea aurreikusita dauka Udalak.

## > EDADETUAK Aretxabaletako hiru lagun joaten dira Aita Mennik asteburuetan ematen duen zerbitzura

Aita Mennik Arrasaten duen eguneko zentroak asteburuetan ere ematen du zerbitzua, joan zen astea ezkerro, Leintz ibarreko edadetuan. 12 lagunendako tokia daukate Uribe auzoko zentroan, eta Aretxabaletatik hiru lagun hasi dira joaten. Udaleko Ongizate Sailak hautatu ditu hiru lagunok; izan ere, asteburuetan zerbitzua jaso gura duten herritarren zerrenda daukate, eta antzinatasunaren arabera aukeratuko dituzte, tokia izan ahala.

Aretxabaletan ez dago eguneko zentrork; bai, ostera, Eskoriatzan, eta hara joaten dira herriko hainbat edadetutu asteleheneitik egubakoitzera bitartean. 15 lagunendako tokia daukate Eskoriatzan eta gure herritik zazpi joaten dira.

# ERAIKUNTZA ETA INDUSKETAK

Obra eta projektuen kudeaketa integrala

Zuzendaria:  
Lyonel Arquero

Dekorazioa:  
Soraya Arquero

**CONSTRULAN S.L.**  
ARQUERO

**K21**  
KALITATEA  
Ingeniería Aplicada S.L. 2/05/043  
2 M a i 1 m

Basabe poligonoa 4, EQ-11 ARETXABAleta  
Tel.: 943 79 01 51 / 608 77 28 67 / 679 45 57 64  
construlan@euskalnet.net www.construlansl.com

## mingainari tiraka

Nerea Arrese &gt; Euskal Herriak Bere Eskolako kidea

# "Ez da euskararen ezagutza bermatzen"

MIRARI ALTUBE &gt; ARETXABAleta

Orain dela hiru urte sortu zuen EHBEk lantaldea Aretxabaletan, eta hango kide da ordutik hona. 24 urte egingo ditu laster, eta *Bai eskolak euskalduntzeari!* kanpainarako dabil lanean orain.

**Zeintzuk zaudete EHBEko lantaldean?**

Ikastetxeetako ordezkarriak, herritarrak, ikasleak eta gurasoak. Azken horiek implikatza batzuetan kosta egiten da, hezkuntza ikastetxeen kontua dela uste dutelako.

**Euskal curriculuma lantzen zabiltzate?**

Bai, artxibo erraldoi bat ibili da herriz herri ekarpenak jasotzen eta Aretxabaletara iritsi zenean ikastetxeek egindakoak jaso genituen. Horiekin batera, taldeek ere egin zitzuten ekarpenak: Loramendi EEK eta Gazte Ekimenak beste batzuen artean.

***Bai eskolak euskalduntzeari!* kanpainarako zabiltza lanean.**

Bai, Euskalgintzak eta hezkuntzako 16 eragilek bultzatutako kanpaina da, tartean Kontseiluak eta EHBEk.

**Zein helburu du kanpaina horrek?**

Indarrean dauden legeak gainditu eta euskararen ezagutza bermatzea eskola bidez, hau da, eskola bidez euskalduntzea.

**Eta herritaren laguntza izango duzue?**

Bai, horixe; otsailetik maiatzera bitartean landuko dugu eta herritarrei dei egin genien lana antolatzeko. Sinadurak batzen gabiltza orain, eta maiatzean, Euskararen Egunean, kalejira egingo dugu.

**Euskararen geroa dago jokoan?**

Bai, ezingo garelako euskaraz bizi. Izan ere, hirutik bi ikasle ez da eskola bidez euskalduntzen, eta datuok Jaurlaritzako ikerketatan oinarrituta daude.

**Baina ikasle gehienak D ereduan daude matrikulatuta, ezta?**

Bai, baina D ereduko %32 ez dira gai euskarazko azterketa gainditzeko. Horrek esan gura du indarrean dagoen hizkuntza politika ez dela egokia, eskolak ez duelako euskaldunten, ezta euskararen ezagutza bermatzen ere.

> EUSKARA  
**Euskal film laburrak ikusgai eta Ane Muñoz solaskide**

Gaur, egubakoitza, euskal film laburren emanaldia eskainiko du Loramendi EEK, Topaguneak antolatuta. Bost film emango dituzte, udaletxe zaharrean, 21:30ean hasita: Asier Altuna eta Telmo Esnal-en *Txotx eta 40 ezetz*, Beatriz de la Vegaren *Sarabe*, Bego Vicarioren *Haragia* eta Inaz Fernandezen *Hauspo soinua*.

Emanaldiaren ostean, hainbat sari jasotako Ane Muñoz zuzendaria izango dute ikusleek solaskide, eta film laburren gaineke galderak erantzuteko gertu etorriko da.

> LAGUNAK  
**Meza Luis Guridi eta gainerako hildakoen alde bihar, 12:30ean**

Aretxabaletako Lagunartea koadrilak meza antolatu du biharko, apirilak 8. Oraintsu hil den Luis Guridiren eta koadrilan hildako guztien aldeko meza izango da. Frantziskotar batek esango du Agustindarren komentuan, 12:30ean, eta antolatzaileen esanetan edozein herritar hurrera daiteke meza entzuttera. Hainbat adinetako herritarrak daude Lagunartea koadrilan, batzuk umetako lagunak eta beste batzuk oraintsu elkartutakoak.

> BATAIOAK  
**Apirilean bataiatuko dituzten umeen gurasoek batzarra**

Azken hilabeteotan jaiotako umeak bataiatuko dituzte Pazko Gaubeilan, hau da, apirilaren 15ean eta apirilaren 23an. Ume horien gurasoek, baina, prestatu egin beharko dute lehenengo, eta parrokiako kideek bilera bi egingo dituzte haietan. Astelehenean eta martitzenean izango dira bilerok, 19:00etan, parrokiako lokaletan. Martitzenean, bestalde, elkarteko adiskidetze sakramentua egingo dute, 19:00etan, parrokiian.

**Beldurraren gainean egin dute aurten Irakurketa Astea Basabeazpi gunean**

Joan zen domekan, apirilak 2, izan zen Haur Liburuaren Nazioarteko Eguna. Hori horrela, Irakurketa Astea egin dute Basabeazpi gunean. Beldurra hautatu dute gai eta horren inguruan egin dituzte ekitaldi guztiak: ipuin kontaketak, antzerkiak, txotxongiloak... "Jolas eran irakurketara hurbilketa izan da, eta beldurra azaleratzeko modua", dio Vanessa Gonzalez irakaslek. Hala, Marti magoaren bisita jaso zuten joan zen astean, eta astelehen goizean Debagoieneko *sorgin* guztiak elkartu ziren ikastolan, akelarrea egiteko. Edari magiko eman zieten probatzeko umei, eta benetan goxoa zegoen.



M.A.

**TABERNA**  
**TARLUTZ**  
MITARTE, 16 • ARETXABAleta • TEL. 943 79 32 34

**ARTZUBI ELEKTRAGAILUAK**  
**ARTZUBI ETXETRESNA ELEKTRIKOAK**  
ACTIVA

**Iparragirre kalea 4**  
**ARETXABAleta**  
**Tel.: 943 53 31 86**





## GAZTEAK

# Debara eta Pagoetara irteerak apirilean

Pazko astean zabalik egongo da gaztelekua, eta ekintzaz gainezka

**MIRARI ALTUBE > ARETXABAleta**  
Gertu daukate Atxagazte gaztelekuo gazteek apirileko egitaraua. Aste Santuko jaieguna itxita egongo da, baina ez Pazko astean.

**IKASTAROAK ETA IRTEERAK**  
Malabarismoen gaineko bigarren ikastaroa egingo dute asteburu honetan; diaboloarekin jolas egiten eta monozikloan ibiltzen irakatsiko diente oraingoan.

Apirilaren 18an, martxoz, bitxi tailerra daukate; 19an, egurrezko egutegia egin eta frontonisean jardungo dute; 20an, gimkana jolasean arituko dira; eta 21ean, egubakoitza, grafitiak egiten. Hilaren 22an, Deba eta Zumaia aldera joango dira egun-pasa, eta 29an Aiako Pagoeta parkera.

## Espinet katalanaren erakusketak ikusmina sortu du herrian

Joan zen zapatuan zabaldu zuen erakusketa Xavier Espinet katalanak eta datorren martitzena bitartean egongo da ikusgai Iralabarri plazako 12. atartean. Egurra da nagusi eskultoretan, zizelkatutako egurra, eta harea erabili du batzuetan egurrari lagun egiteko. Koadroak ere egurrezkoak dira asko, bolumena dutenak, eta

beste hainbat akrilikoekin margotutakoak. Afrika, sateliteak, geometria irudiak... Gai asko ukitu ditu aurkeztutako lanetan, baina era berean bakarra, oroimena; horrexegatik *Memoria Materica* izena. Ikusmina sortu du erakusketak eta oraindik zabalik dago 18:00etatik 20:00etara, apirilaren 11 bitartean.

M.A.

## Marrazki bizidunak

### POPEYE, CARDCAPTOR ETA SNORKDANCE

Astelehenetik egubakoitzera  
13:20ean eta 20:15ean

Zapatuan eta domekan  
08:00etatik 11:00etara





UDALEKO TALDEAK Argazkian, jardunaldiak antolatzeko elkarlanean ibili diren Udaleko hainbat sailetako ordezkari eta arduradunak.

IKER BARANDIARAN

KULTURA &gt; LIBURUAREN EGUNAREKIN LOTUTA, 'KATAIA ETEN BARIK' JARDUNALDIK

# Kulturen eta belaunaldien arteko ezagutzak elkartrukatzeko ekimena

Hilaren 29an, Liburu Azokaz gain, atzerriko hizkuntzetan irakurketak herriko plazan

Herriko gaztetxoak eta aitona-amonak batuko dituzte, ezagutzak transmiti daitezen

**IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA**  
Udaleko Kultura eta Euskara sailek eta bibliotekak jardunaldi ikusgarriak antolatu dituzte hilabete bukaerarako. Hilaren 2an ospatu zen Haur Liburuaren Nazioarteko Eguna eta hilaren 23ko Liburuaren Eguna abiaipuntu hartu dituzte jardunaldi horietarako. Are gehiago, halako sasoieta ohikoak diren liburuuen elkartrukea eta irakurzaletasuna bultzatzeaz gain, munduko hizkuntzak eta generazioen arteko elkartrukea ere landuko dituzte.

## LIBURU AZOKA 29AN

Hilaren 29an Liburu Azoka egingo dute herriko plazan, 17:30etik 21:00etara bitartean. Hala ere, 18:30ak arte liburuak ikusi ahal izango dira, baina ezingo dira eskuratu.

Azokarekin lotuta, antolatzaileek dei egin diete herritarrei gura ez dituzten liburuak

azokara eramateko. Baldintza bakarra da liburuak egoera onean egotea eta azoka egin aurrelik eramatea. Dagoeneko eraman daitezke bibliotekara edo ikastetxeetako biblioteketara.

## '1 EKARRI, 2 ERUEN'

Emandako liburu bakoitzeko bi txartel emango dizkiete trukean, eta txartel bakoitzeko liburu bana eskratu ahal izango dute 29ko azokan. Dohaintzez gain, bibliotekatik liburu gehiago eramanago dituzte fondoak egiteko.

## MUNDUKO HIZKUNTZAK EZAGUTU

Azokaren egun berean, hilaren 29an, *Munduko hizkuntzak batuz* ekimena egingo dute, 19:00etan, herriko plazan. Hain zuzen ere, kanpoko jatorria duten baina Eskoriatzan eta inguruatan bizi diren hamaika bat lagunek irakurketak egingo dituzte, nork bere hizkuntzan. Besteak beste, Japoniako, Bosniako eta Pakistango

lagunek esku hartuko dute ekitaldian. Aurkezle batek eta bi musikari lagunduta jardungo dute.

"Esku hartzeo eskatu diegun etorkinek oso ondo hartzute ekimena. Iniziatiba ona iruditu zaie eta proposamenak ere egin dituzte", azaldu zigun Euskara Saileko Mari Carmen Arrietak. Horrekin lotuta, antolatzaleek inguruatko herritarrei ere egin diete gonbidapena 29an Eskoriatzara joan daitezen.

## UMEENDAKO IRAKURKETAK

Umeak ere ez dituzte ahaztu, eta eurendako berezko ekintzak antolatu dituzte. Hilaren 25ean eta 27an, bibliotekako arduradun Iñaki Agirianok ipuin irakurketak egingo ditu bibliotekan. Bi egunetan 18:00etan izango dira irakurketak.

Umeak etorkizuna direla aintzat hartu dute antolatzaleek, baina horrekin lotuta garrantzi handia ematen diete nagusienen esperientzia eta irakaspenei. Horregatik, *Asko ikusitakoak, asko ikasitakoak* ekimena ere egingo dute. Horren bitartez, herriko ikastetxeetako 6. mailako neska-mutikoak eta herriko aitona-amonak elkartuko dituzte hainbat egunetan.

Bibliotekan izango dira topaketa horiek. Lehenik eta behin,

adinduek bibliotekakoek egin-dako galderai erantzun beharko diete. Horren ostean, gaztxoekin taldeka banatuko dira. Horren helburua da nagusienen

bizimodua, balioak, euskalkia eta esperientzia jasotzea.

Bide batez, ekimen horiekin guztiekin lortu gura dute bibliotekara nagusiak ere hurbiltzea.

## Jardunaldien egitaraua

### 25, martxena

18:00 Umeendako ipuin irakurketak bibliotekan.

### 27, eguna

18:00 Umeendako ipuin irakurketak bibliotekan.

### 29, zapatura

17:30etik 21:00etara Liburu Azoka, 1 ekarriz 2 eruen herriko plazan. Lehenengo orduan ikusteko barrik; 18:30etik aurrera, liburuak hartzeko aukera.

19:00 Munduko hizkuntzak batuz, katala sortuz ikuskizuna. Hamaika herrialdetako lagunek irakurketak egingo dituzte euren hizkuntzetan, musikariekin lagunduta.

### Hilabete osoan

Asko ikusitakoak, asko ikasitakoak ekimena, adinduen eta umeen generazioen arteko elkartrukea egiteko jardunaldi

## Udaleko hiru zerbitzuren arteko lankidetza

Eskoriatzako Udaleko Kultura eta Euskara sailek eta bibliotekak aspalditik zeukan elkarlanean jardunaldiren batzuk antolatzeko asmoa, baina ez zuten horretarako une ezta ekintza aproposik aurkitzen.

Orain dela pare bat hilabete, baina, hiru zerbitzuetako arduradunak batzarrak egiten hasi ziren eta *Kataia eten barik* egitasmoa sortu zuten.

Bibliotekako arduradun Iñaki Agirianok azaldu zigun "uste baino errazago" batu dituztela bakoitzak buruan zituen ideiak. Are gehiago, "erraztasun handia izan dugu guztia antolatzeko. Elkarlana egiteko sailakerak merezzi duela ikusi dugu jardunaldi hauek antolaterakoan. Ea bide honetan jarraitzen dugun, gauza gehiago antolatzeko".

UDALA > OHIKO OSOKO BILKURA

# Frankismoak eragindako sarraskia gaitzestu dute

Fusilatuen aldeko atxikimenduaren, Arratzu-Ubarrundia alboko mugen eta eskola kirolaren gainean jardun zuten

**IKER BARANDIAREN> ESKORIATZA**  
Ohiko osoko bilkura egin zuten udaletxeen, eta hainbat gai izan zituzten berbagi.

Ezker Batua taldeak, Deba-goieneko fusilatuen senitarteko eta lagunen batzordeak esku-tuta, mozio bat aurkezu zuen. Frankismoak eta erregimen hark eragindako sarraskiak gaitzesteaz gain, ekainaren 11n Arrasaten egingo den omenaldi-rako Udalak dirulagunza ematea eskatu zuen. PSEk ezezko btoa eman zuen eta Elizateetako ordezkarria abstentu egin zen. EAJ-EAk eta EBk, berriz, baietz bozkatu zuten. Hortaz, mozioa onartu egin zuten. Horrez gain, PSEk mozio alternatibo bat aurkezu zuen, dirulagunza bera aldarrikatuz, eta talde guztiek aho batez onartu zuten.

**ESKOLA EUSKALDUNDU**  
Bestalde, alkateak, Kontzejupe plataformak eskatuta, eskola euskalduntzeko mozio bat aur-

kezu zuen. Mozio horren aurrean PSEk beste alternatibo bat aurkezu zuen, eta azken hori aho batez onartu zen.

#### ESKOLA KIROLAREN GAINLEAN

Aldundiak eta Jaurlaritzak kirol talde eta federazioekin aspaldian duten ika-mika ere izan zuten berbagi. Bi erakunde horien asmoa da gaztetxoeneak hainbat kirol modalitate praktikatzea. Federazioek, berriz, gaztetxoen espezializazioa gura dute. Horren aurrean, Udalak erakunde aldeko jarrera hartu du, "umeek kirol desberdinak egitea" hobesten dutelako. Hala erabaki zuten, nahiz eta Eskoriatzan une honetan ez izan hala-korazorik.

#### MUGARRIENA, MAIATZERAKO

Udala Arratzu-Ubarrundiako Udalarekin harremanetan jarri da bi udalerrien artean mugitu beharreko mugariak zehazteko. Arabarrek esan dute apirila ez dela hilabete egokia, eta gerorako uzteko eskatu dute.

Horren harira, Udalaren asmoa da maiatzean data bat zehaztu, arabarrei dei egin eta Udaleko ordezkarriak mugara joatea. Han akta jasoko dute eta, arabarrak agertuko ez balira, Udalak akta hori Jaurlaritzarra bidaliko luke, Gasteizko Gobernuak mugariak aldatzeko lana har dezan.

#### > KULTURA

## Sagardotegira irteera eta 'Pirena'-ren gaineko argazki erakusketa, Aitzorrotzen eskutik

Aitzorrotz kultura elkartek besta hainbat ekitaldi antolatu ditu datozen egunetarako. Hilaren 29an sagardotegira irteera egingo dute, eta autobusean joango dira. Txartelak Inkernu tabernan dau-de salgai 35 eurotan.

Horrez gain, Inkernu tabernan Itoitz Armendariz eskoriatzaren Pirena ekimenaren gaineko argazki erakusketa jarriko dute. Erakusketa hori hilabete osoan egongo da ikusgai.

#### > INFORMATIKA

## Irudi digitalen tratamendua egiten ikasteko eskolak emango dituzte KZgunean

Hilaren 21ean eta 28an irudi digitalen tratamendua irakasteko ikastaroa egingo dute KZgunean. Egun bakoitzean bi saio egingo dituzte, mailaren araberakoak. 17:00etatik 18:00etara lehenengoa eta 18:00etatik 20:00etara bigarrena. Eskaneatutako, argazki makin-a digitalen bidez egindako eta Internetetik jaitsitako irudiak hobetzen ikasiko dute. Horrez gain, aerografoa ere erabiltzeko auke-ra izango dute. Argazkigintza digitala eta irudien hobekuntzara-ko tratamenduetan interesatuta daudenei dei egin diete.



BI HAMARKADA Eskoriatzako Musika Eskolako Bandak 20 urte beteko ditu aurten.

GOIENKARIA

**MUSIKA > MUSIKA ESKOLAKO BANDAREN EMANALDIA**

# Domekan, Musika Eskolako Bandaren kontzertua plazan

Domekako ikuskizunean, Mozart, Barker, Gomez Gartzia, Serrano, Cebrian eta bestelako konpositoreen piezak joko dituzte herriko plazan

#### I.B.-> ESKORIATZA

Etzi, domeka, Musika Eskolako Bandak udaberriko kontzertua egingo du herriko plazan. 13:15ean izango da, eta hainbat musikari esku hartuko dute.

Urteroko hitzordua da udaberriko kontzertua, eta herritardezen batzen dira emanaldia ikusi eta entzuteko.

Emanaldiak ordubete inguru iraungo du eta honako piezak eskainiko dituzte: Eugenio Gomez Gartziaaren J.A. Gomez Garrosa, Amadeus Mozarten Las bodas de Figaro, J.A. Serranoren Alma de dios, James Hornerren Music from Braveheart, Emilio Cebrian Ruiz Una noche en Granada eta Warner Barkerren Chu chu cha cha, hain zuzen ere. Mota askotako musika entzuteko aukera izango da emanaldian, pasodobleetatik, epiko eta klasikoagora artean.

Kontzertu borobila egiteko, bandako lagunek eguztenero eta egubakoitzero entseatzen dute. 20:15etik 21:15era bitartean ibiltzen dira Musika Eskolan duten gela egokituan, jo beharreko piezak gainbegiratzen.

#### BANDAK 20 URTE AURTEN

1986an Angel Bañaresk Musika Eskolako Banda fundatu zuen, eta zuzendari ardura hartu zuen. Oraindik eutsi egiten dio eginkizun horri eta aurtengo irailean 20 urte beteko ditu bandak. Hala ere, bandako arduradunen asmoa da 25. urteurrena "behar den bezala ospatzea", eta dagoeneko, nahiz eta denbora luzea falta, hasi dira ideia batzuk aztertzen.

Hala ere, ez dute ahaztu banda horren aurretik herrian beste bat izan zela. Gonzalo Encina izan zen haren zuzendaria, baina 70eko hamarkada hasieran

taldea desegin egin zuten. Ia bi hamarkada geroago Bañaresk hartu zuen lekukoa. Orangoa ez da Udal Banda, baizik eta Musika Eskolarena.

#### MUSIKARI GEHIAGOREN PREMIAN

Gaur egun 32 musikari daude bandan. Gazteenak 12 bat urte ditu eta nagusienak 34 bat. Horrez gain, badago aurreko bandan (Encinarenan) ibilitako beste lagun nagusiagoaren bat ere.

Bandako arduradunen esan-tan, instrumentu jotzaile batzuen premian daude. Hain zuzen ere, "batez ere, tronpa, tuba eta tronboi jotzaileak lortzea oso mesedegarria izango litzateke, horien gabezia daukagu-eta", azaldu zigu-tzen bandakoek.

#### EKITALDI UGARI URTEAN

Urtean herriko hainbat ekitaldi garrantzitsutan esku hartzen dute: Santa Zezilia egunean, Gabonetan, bi danborradatan, San Pedrotan... Horrez gain, urtero Errioxara, Donostiako Danboradarra eta beste hainbat hitzordu-tara joaten dira.

**Villar  
Ile apaindegia**

Olazar auzoa 9  
Tel.: 943 71 50 42  
ESKORIATZA

**DE LA TORRE  
igeltserotza**

*Erreformak orokorrean  
Gremioen koordinazioa*

Intxaurtxeta 7 2-D  
20540 Eskoriatza  
Tel.: 943 71 52 64 / 639 76 29 27



**INGURUMENA > SAGASTIKO BERDEGUNEA**

## Palmondo bat, hagin bat eta beste 12 zuhaitz landatu dituzte Sagasti auzoko berdegunean

Sagastiko projektua aspaldikoa bada ere, etxeak amaitu bitartean zain egon dira berdegunea egokitzeko

**IRATI AGIRREAZALDEGI > ANTZUOLA**  
Sagasti auzoko berdegunea pixkanaka itxura aldatzen ari da. Etxeen arteko lur zatian berdegunea ipintzeko asmoa aspaldikoa da, baina etxeak amaitu arte ez dituzte egokitze lanak egin.

Hasieran 12 zuhaitz sartzear asmoa, baina horietaz gain beste bi arbola ere landatu dituzte: palmera bat eta hagin bat.

### BIRLANDATUTA

Palmondoa Kalebarrrenean, Martin okindegiazen aldameneko Zubian zegoen, baina errekkako obrak direla-eta kendu egin dute handik eta bota beharrean Sagastin birlandatzea erabaki dute. Palmondoa nahiko bitxia da, eta, era berean, bitxi egiten du orain artean zubi gainean landatuta egon izanak berak.



PALMONDOA Martin okindegiazen osteko Zubian zegoen palmondoa sartu dute. I.A.

Hagina, berriz, Lizarraga auzoko Ugarte Torre baserriaren ondotik kendu dute, han zenbait lan egiten hasi direnean, eta hura ere Sagastin birlandatzea erabaki du Udalak.

### ESPAIOIA

Sagastiko berdegunearen proiektua aspaldikoa da eta gutxi falta da dena gertu izateko. Oraingoz ez da beste inolako osagarririk

ipiniko han. Hala ere, berdegunearen haren aldamenean espaloia konpontzeko daude oraindik. Izan ere, bi espaloien arteko etena zegoen eta oinezkoek nahiko oztopo izaten zuten han ibiltzeko. Bestalde, Sagastiko beste berdegunean egingo duten kultura eta gizarte etxearen proiektua ere aurrera doa, eta behin egindakoen, eraikinaren inguruan ere egongo da berdegunea.

## Ongi-Etorri jatetxea berriz ere zabalik

Jabeek erretiroa hartu zutela-eta iazko urtearen amaieran itxi zuten Ongi-Etorri jatetxea. Hala ere, ez da denbora luzez itxita egin. Izañ ere, joan zen astean zabaldu zituen berriz atea. Tabernari berriak daude han: Maria Dolores eta Andres Arbuluk hartsi dute jatetxearen ardura. Egunero menuak emango dituzte, eta asteburuetan bazkariak, afariak zein plater konbinatuak. Hala, taberna batzuk zabaldu eta beste batzuk itxi; izan ere, plazako Surpe taberna itxi egin dute.



I.A.

## ANTZUOLA

Apaintekat eta isolamenduak  
Pladurrezko dibisioak

Kalegoi 21 ANTZUOLA  
676 997 400  
Biltegia: 943 78 70 40



INDUSTRI MANTENIMENDUA

*Jose  
Gomez  
Abad*

Errekalde 6, 4-B.  
Antzuola  
943 76 60 19  
943 76 60 43  
Faxa:  
943 76 60 19

## GAILUR

taberna eta  
gozotegia

Buztinzuri 13 ANTZUOLA  
Tel.: 943 78 70 32

## LARREA

### TABERNA

Kalebarren 17  
ANTZUOLA

### > MUSIKA

#### Bergarako Musika Eskolako orkestra gaur parrokiian

Gaur, egubakoitza, kontzertua izango da 20:00etan parrokiian. Bergarako musika eskolako akordeoi orkestrak jardungo du lehenengo Marije Ugalderen esanetara. Ondoren, orkestra entzungo dugu Andoni Sierra zuzendari dueña; eta Antzuolako ikasleek abestu egingo dute.

### bere ustez



Kontxi Laskurain

## Kristau elkarteeetan erreboluzioa?

Antzuolako eliza kontzentzuko batzorde bat martxan dagoela jakin dudanean poztu egin naiz, eta horren harira, gogoeta batzuk hemen azaldu nahi nituzke:

ΣUste dut, obrak egiterakoan, kontuan edukiko dute la laster abaderik ez dela eongo, eta abade etxea ere beste eginkizun batzuetarako erreformatu beharko dela. Kris-

### > MENDIA

#### Arrolak mendi irteera antolatu du domekarako

Arrola mendizale elkartea antolatuta irteera izango da apirilaren 9an, domekan. Goizez egingo dute ibilaldia helduek zein gaztetxoek. 08:00etarako Sagastin ipini dute hitzordua eta handik Lizarrustira abiaturiko dira; handik Lareon barrena Ataunera iristeko.

### > PILOTA

#### Mendizabal eta Azkarate txapeldun Udaberri Sarian

Egubakoitzean zuten Mendizabalek eta Azkaratek Udaberri Sariko junior mailako finala. Aurkariak ez ziren azaldu; beraz, jokatu gabe irabazi zuen lehiaketa Olaldeko bikoteak. Bestalde, Aitor Mendizabalek Elgetako lau t'erdiko txapelketako lehen kanporaketa apirilaren 13an du.

### > IKUSKIZUNA

#### Pailazoak izango dira astelehenean eskolako aretoan

Umeak Aste Santuko oporretan badaude ere, ez dute aspetzko astirik izango. Astelehenean, 18:00etan, 4 urtetik gorakoendako pailazo ikuszkizuna izango da eskolako aretoan. Bartzelonatik etorrako pailazoek Cirket Confetti lana eskainiko dute.

### "Elizak, eraikinak, berrikuntza behar badu, baita gure kristau elkartea berak ere"

tauok gero eta gutxiago izango garenez, eliza praktikoagoa beharko dugula, baita multifuncionala ere.

Elizak, eraikinak, berrikuntza behar badu, baita gure kristau elkartea berak ere.

Kristautasun eklesiastikoan, hierarkia klerikalarekin egituratua eta zuzendua, gainbehera doa, desagertu arte.

Kristau elkartea maitatzen ikasteko eskolarik garrantzitsuena izan behar luke, abegikortasuna eta bizi-kidetza bultzatzat. Baita demokratikoa ere, emakumezkoen eskubideen berdintasuna bultzatzat, beste sinismeneko irekia eta elkarrizketaren bultzatzalea, premia sozialen defendatzaile sutsua, Jaungoikoa ulertzeko modu berriak landuko dituena, etab.

Halako mugimenduak egon badaude, eta gure herrietako bizitzaren "iraultzaren" hazioa izango diren esperantzat nago.

KULTURA > ESPALOIAN EKITALDI UGARI ASTEBURUAN

# Ipuin kontalariak, Kokeinen kontzertua eta 'El florido pensil' antzezlana bihar eta etzi

Kokein musika talde eibartarrak kontzertu akustikoa grabatuko du DVDa ateratzeko

Tantaka konpainiak hamar urteren ostean *El florido pensil* ekarri du berriz taula gainera

IRATI AGIRREAZALDEGI > ELGETA  
Datozen hiru hilabeteotarako programazioa gertu du Espaloia. Besteak beste, magia mostra, ipuin kontalariak, kontzertuak, antzerkia eta moda desfilea daude iragarrita.

Asteberu honetan bertan izango dira ipuin kontalariak, Kokein taldearen kontzertuak, akustikoa eta *El florido pensil* antzezlan sonatua.

## IPUINAK ETA MUSIKA

Bihar, apirilak 8, Aragoiko Mari-kuela eta Valentziako Felix Albo ipuin kontalarien saioa izango da, 18:00etan.

Gauean, 22:30ean, Eibarko Kokein musika taldeak hartuko die lekukoa. Intentsitateak eta



AKUSTIKOA PiLT taldeko laguntzaren grabatutako CDko abestiak joko dituzte kontzertuak.

GOIENKARIA

soinu eta giro lasaiak bat egiten dute Kokeinen kantuetan. Zalaren ahotsak egungo rock musikarik garaikideena ekarririko digu. PiLT taldeko partaideen laguntzarekin grabatutako CDa erakutsiko dute. Kontzertuak akustikoa egingo dute eta grabatu, ondoren DVD bat ateratzeko.

## ANTZERKIA

Bestalde, domekan, 19:30ean, Tantaka konpainiak *El Florido Pensil* antzezlana eskainiko du. 10 urteko etenaren ostean, berriz bueltatu dira taula gainera. Garai bateko eskola umore zorrotzez eta gupidarik gabe satirizatzen da lan horretan.

Ekainera bitartean bestelako ekitaldi mordoa ere izango da: era-kusketak, *Sarean* film laburraren estreinaldia, II. Magia Mostra, Pantxoa eta Peioren kontzertua, *Elgeta* trikitilarri omenaldia, bluesa eta pop emanaldiak, herriko musika eskolako saioak eta desfilea, besteak beste.

KIROLA > PILOTALEKUAREN INAUGURAZIOA

# Pilota jardunaldiak bihar, berritutako frontoiaren inaugurazio ekitaldian

Umeendako joko garbi, sare eta esku pilota jokoak; eta nagusiek joko garbi, pala motz eta esku pilota partiduak

ko pilota federazioetako lehen-dakari Luis Mari Telleria eta Txema Aldamiz, hurrenez hurren; Juan Luis Ubera, Ozkarbi elkarteko pilota saileko arduraduna; eta Foru Aldundiko Kirol diputatu Fernando Tapia, teknikari Iñaki Ugarte-buru eta Diputatu nagusi Joxe Juan Gonzalez Txabarri.

## PARTIDUAK

Inaugurazioaren ondoren hiru partidu ikusteko aukera egongo da. Lehenengoa, joko garbi partidua; Alejo I.a-Sanchez bikoteak AlejoII.a-Mitxelena bikotearen aurka jardungo du. Pala motzean, Zabaltza eta Txiki, Mena eta Edortaren aurka.

Luntxaren ostean, esku pilota partidua izango da, 19:45ean. Mikel Goñik eta Medinak osatutako bikoteak Ubera elgetarraren eta Zezeaga uberraren aurka jokatuko du.

Pilotalekuaren antzina joko-rako erabiltzen ziren materialak egongo dira ikusgai.

HIRIGINTZA > KARTELAK ETA PINTADAK

# Alkatea kexu da, kartelak edonon ipintzen dituztelako

## I.A. > ELGETA

Otsailean pintadak azaldu ziren herriko hormetan; eta martxoan Udalak pintada horiek guztiak garbitu zituen. Bada, lanon kostua 1.334 euro izan da.

Bestalde, Udalak banda kaleratu du fatxadetan ipintzen diren kartelen gainean. Azkenaldian arkupeetako zutabeetan ez ezik fatxadetan, baita margotu berrietan ere, kartelak ipini dituzte,

horretarako kola erabilita. Alkateek kexu agertu du "kartelak edozein lekutan jartzeagatik". Alkatearen esanetan, "itxura antiestetikoa emateaz gain, kalteak sortzen dizkie administrazioari eta norbanakoei". Beraz, eskatu du "pintaketarik ez egitea eta kartelak jarri aurretik arreta handia ipintzea, estetika gordezko eta kalteak eta kostuak saihesteko asmoz".

## PARTIDUAK

Inaugurazioaren ondoren hiru partidu ikusteko aukera egongo da. Lehenengoa, joko garbi partidua; Alejo I.a-Sanchez bikoteak AlejoII.a-Mitxelena bikotearen aurka jardungo du. Pala motzean, Zabaltza eta Txiki, Mena eta Edortaren aurka.

Luntxaren ostean, esku pilota partidua izango da, 19:45ean. Mikel Goñik eta Medinak osatutako bikoteak Ubera elgetarraren eta Zezeaga uberraren aurka jokatuko du.

Pilotalekuaren antzina joko-rako erabiltzen ziren materialak egongo dira ikusgai.



RECYDE, S.A.

Pagotza pol. ind. 20690 ELGETA, Gipuzkoa

Tel.: zentrala: 943 78 80 00. Faxa: 943 78 90 10

Posta elektronikoa: [recyde@recyde.es](mailto:recyde@recyde.es)



Enresa  
Erregistratua

ER-0182/2/95

ISO 9002

QS 9000

ISO/TS 16949

> BERTSOLARITZA  
Bertso ikastaroan izena emateko epea zabalik dago

Udaleko Euskara batzordeak bertso ikastaroa antolatu nahi du. Izena emateko epea zabalik dago eta apirilaren 28ra arteko da; interesatuek udaletxera jo beharko dute. Behin epea amaituta eta zenbateko taldea osatu den iksita, eguna, ordutegia, leku... zehazteko bilera egingo dute izena ematen dutenekin. Bestalde, aurreratu digute ekainaren 9an, barikuau, bertso afaria egingo dutela Ostatu jatetxeen. Bertsolariak Amets Arzallus eta Joxe Agirre izango dira.

> ZERGAK  
Ibilgailuen zergak ordaintzeko epea maiatzaren 31ra arte

Jabeek maiatzaren 31ra arte izango dute ibilgailuen gaine-ko zergak ordaintzeko. Helbiratuta dutenei bankutik kobrautuko diete maiatzean barrena; gainontzekoek, ordainagiriarekin banketxe-an egingo dute ordainketa. Erroldaren arabera, guztira 724 ibilgailu daude Elgetan. Horietatik gehien 12 eta 14 zaldi fiskal arteko autoak dira: 338, hain zuzen ere. 9 zaldi fis-kaletik 12ra bitartekoak, berriz, 187 dira.

> SUKALDARITZA  
Pintxo eta kazuelatxoek ikastaroa maiatzean

Pintxoak eta kazuelatxoak egiten ikasteko aukera egongo da Udalaren eskutik. Izan ere, 25 urtetik gorakoendako ikastaroa antolatu dute. Maiatzaren 3tik 29ra bitartean astelehenean eta eguztenetan izango dira saioak, 19:00etatik 21:30era. Izena emateko udaletxera jo behar da eta hamar euro ordaindu. Taldea osatzenko gutxienez hamar lagun behar dira eta 18 onartuko dituzte gehienez. Izena emateko ordena errespetatuko dute.

BERTSOLARITZA &gt; ARABAKO BERTSO TXAPELKETA 2006

# Bihar, zapatua, Iker Agirre lehiatuko da Aramaion

Arabako Bertso Txapelketako bigarren kanporaketa jokatuko dute bihar Uribarri elkartean, 20:30ean

Bertso afaria antolatu dute, baina aukera dago bertso lehiaketa ikustera joateko bakarrik, afalostean

**UBANE MADERA > ARAMAIO**  
 Lierni Altuna aramaioarra gai-jartzaile dutela, honako lehiakideek jardungo dute biharko saioan: Alberto Martinez *Beitto* (Gasteiz), Hodei Lopez de Arkauta (Gasteiz), Iker Agirre (Aramaio), Izar Mendiguren (Laudio), Lanlder Meaza (Amurrio), Xabier Lasas (Durana) eta Ainara Balantzategik (Gasteiz). Egin beharrekoa, berriz, honako hau: binaka, gaia emanda bina bertso zortziko handian; binaka, gaia emanda bina bertso zortziko txikian; bakarka, lau oinak emanda bertso bana zortziko txikian eta bakarka, hitza emanda bertso bana zortziko handian.

**PUNTUAZIOA ETA SAILKAPENA**  
 Lehen esandako moduan, saioa Uribarri elkartean jokatuko dute, afalostean. Antolatzaillek



LAUDIO Andere Arriolabengoa, Felipe Zelaieta, Jagoba Apaolatza eta Naroa Sasieta, Laudioko kanporaketan. BERTSOZALE ELKARTEA

eta Aramaixoko Bertso Eskola-koek gonbidapen zabala egin gura diete herrikideei, afarira ez bida, "kafea hartu eta saioa ikus-tera behintzat joateko". Bestalde, jakinarazi digute Arabako Bertso Txapelketa jokoan izateaz gainera, Aramaixoko Bertso Eskolak saria emango diola ikus-leen boto gehien jasotzen dituen bertsolariari.

Arabako Bertso Txapelketa-ri dagokionez, berriz, Aramaio-ko saioan irabazten duenak finaldirako pase zuzena lortuko

du. Gainontzeko dagokienez, Laudion aurreko asteburuan lehiatu ziren bertsolariek parekatu eta guztien artean puntu gehien eskuratzentzituzten lau bertsolariak pasako dira finalerdira. Eta finalerdian jardun beharko dute iaz finalera iritsi ziren bertsolarietan; hor izango da Manex Agirre aramaioarra.

**ANDERE ARRIOLABENGOA ERE BAI**  
 Arabako Bertso Txapelketa aurreko zapatuan hasi zen, Lau- dion. Han ere sei bertsolari ibili

ziren lehian, tartean, Andere Arriolabengoa aramaioarra. Puntuen arabera, hirugarren postua eskuratu zuen hark. Ruben Sanchez (139,5 puntu) izan zen lehena; beraz, hark zuzenean jardungo du finalerdian. Gainerako-en artean, Rikardo Lopez de Duranak (138,5 puntu) eta Andere Arriolabengoa (137 puntu) esku- ratu zituzten punturik gehien, hurrenez hurren. Beraz, bihar Aramaion gertatzen denaren arabera jakingo dugu zeinek lortzen duen finalerdira iristea.

ZERBITZUAK &gt; GUTXIENEKO SOLDATARA IRISTEKO

## Laguntzak emango dituzte, parekatzeko

Gutxieneko soldata baino kotizazioeko pentsio txikiagoa dutenendako deia egin du Diputazioak

baldintzetan zenbait aldaketa egin dituztela-eta, berriro egin dute deialdia. Hala, apirilaren 23a arte dago orain laguntzak eskatzeko. Aramaioko Udalera jo beharra dago.

### BALDINTZA BERRIAK

Honako baldintzak bete behar dira prestazio hori lortzeko: 2005ean gutxieneko soldata baino pentsio txikiagoa kobratzea; Arabako udalerriren batean erroldatuta egotea eskaera aurkeztu aurreko 12 hilabeteetan eta 45 urte beteta izatea 2005eko abenduaren 31rako.

Diputazioak urtean 100 eta 600 euro arteko paga bakarrean emango du dagokiona.

**U.M. > ARAMAIO**

Gutxieneko soldata (511 euro) baino pentsio txikiagoa jasotzen dutenei laguntza emango die Diputazioak. Edozein motatako pentsioa jasotzen dutenendako deia da. Pertsona horien bizi kalitatea hobetza da helburua.

Laguntza mota horiek eskratzeko deia iazko azaroa inguruau argitaratu zuten, baina

ZERBITZUAK &gt; UDAKO EGONALDI LABURRAK

## Nagusiak zaintzen dituztenendako deia

Ongizateko Foru Erakundeak pertsona nagusiendako 5.520 plaza prestatu ditu, uztailletik irailera

**U.M. > ARAMAIO**

Zaitasun fisiko edo psikikoak dituzten pertsona nagusieizuzendutako egonaldiak eskatzeko epea zabaldu du Diputazioak. Hain justu ere, uztailaren 1etik irailaren 30era bitarteko egonaldiak eskatzeko epea zabaldu dute. Hala, interesa duenak apirilaren 12a baino lehen egin behar du eskaera, Ongiza-

te Foru Erakundearen bulegoetan (Diputazio kalea 13, behea).

Asko jota 30 eguneko egonaldiak egin ahal dira. Egun bakoi-za 15,27 euro kostako da.

### ZAINTAILEEK ATSEDEN HARTZEKO

Halako plaza bat eskuratzeko honako baldintzak bete behar ditu eskatzaleak: 60 urte beteta izatea; Araban erroldatuta ego-tea azkeneko hiru urteotan; ogasun kontuak ere Arabako lurraldean erroldatuta izatea azken bi urteotan eta dagokion sailaren aldeko txostena aurkeztea.

Zerbitzu hori dago bideratuta etxeen pertsona nagusiak zaintzen dituztenek atseden hartzeko aukera izan dezaten.

## LIBRUAREN EGUNA

# Apirilaren 29an egingo dute liburu azoka

Libruaren Eguna, apirilaren 23a Pazko Astea denez, azoka atzeratu egin dute

### U.M. > ARAMAIO

Bigarren urtez egingo du libruaren azoka Aramaio Tro-pikaleko Gazte Asanbladak (ATGA). Iaz moduan, aurten ere herritarren parte-hartza eskatu dute gazteek. Hala, norbaitek libruak soberan baditu edo libururen bat eman nahi badie azokan ipintzeke, udaletxera (goizez) edo liburutegira (arratsaldez) era-man ditzake. Gero, liburu horiek salgai ipiniko dituzte azokan, lehen esandako moduan, apirilaren 29an. Libruaren Eguna opor sasoian dela ikusita, nahiago izan dute azokaren eguna apurtxo bat atzeratu.

### DIRUAREKIN ZER EGIN

Liburuek izango duten prezioari dagokionez, jakinarazi digute aurten, gutxienez, euro bat kostako dela liburu bakoi-tza eta hortik aurrera, libruaren egoeraren arabera ipiniko dituztela prezioak.

ATGAko kideak eztabai-datzen dabilta diru horrekin gero zer egingo duten. Bi auke- ra dabilta aztertzen: gazte tal-dearendako hark (ekintza kulturalak egiteko) edo, iaz moduan, gobernuz kanpoko erakunderen bat eman.

### > GAZTEAK

## Auzolandegietara joateko izenemate epea zabaldu dute

Apirilaren 11ra arte dago uztailletik urriira arte egingo dituzten auzolandegietarako izena emateko. Eskabideak aurkezteko derrigorrezkoada 20 urte baino gehiago iza-tea eta 2006ko abenduaren 31ra arte 31 urtetik behera iza-tea; 2006ko urtarriaren 1a baino lehen EAEn egoitza iza-tea edo bestela euskal izaera politikoa izatea eta jarduera egingo den herrialdean era-biltzen duten hizkuntza jaktea (Amerikan, Asian eta Afrikan egiten dituzte).

Euskadiko Gazteak Lankidetzan da programaren izena; helburua, berriz, gazteen elkartasuna eta sentsibilizazioa piztea. 100 gaztek parte hartuko dute programan. Informazio gehiago behar due-nak: [www.gazteakera.net](http://www.gazteakera.net).

GARRAOA > BALORAZIOA

## 'Badator autobusa' aldarrakatu gura du Garraio batzordeak

Aldundiak hartutako bidea begi onez ikusi du batzordeak, eta jarraipena egingo dio autobusa ahalik lasterren izateko

MIRARI ALTUBE > LEINTZ GATZAGA Aldundiak garraioaren gainean emandako azken berriak pozik hartu ditu Garraio batzordeak. Autobusa gero eta hurrago ikusten du, eta horren alde jarraituko du lanean.

ESKERRAK HERRITARREI Behin markesinak jarrita –lanak hasita daude–, horren ostean

autobusak etorri beharko due-la dio Garraio batzordeak. Gau-txoria ere gero eta hurrago dago, Pesarekin lotu nahian dabilela-ko Aldundia; hortaz, hartutako bidea begi onez ikusi du batzordeak. Eman beharreko hurren-go pausoetan jarraipena egingo diete batzordeko kideek, eta Aldundiari beste idatzi bat bida-liko diote hainbat kontu zehaz-teko. Era berean, esan gura die-te Aldundiko kideei Debagoie-nean egingo diren hurrengo proiektuetan, tranbia esaterako, kontuan hartze Gatzaga.

Bukatzeko, herritarrei eske-rak eman gura dizkiete Garraio batzordeko kideek, egindako deiei–osoko bilku-ra joateko eta sinadurak batze-ko– gogoz erantzun dietelako.



MARKESINA Ostatu jatetxetik gora jarriko dute geltokia. GARRAO BATZORDEA

## Giro bikaina izan zuten Gureleko 21 lagunek Urbasan

Urbasara egin zuten udaberriko irteera joan zen zapatau Gurel elkarteko kideek. 21 lagun joan ziren, 11 ume eta 10 nagusi, eta eguraldia lagun izan zuten mendi buelta egiteko. Kanpinaren inguruan automobia utzi eta Santa Marina ermitaraino joan zen Gatzagako koadrila. Kanpinean baziaketa eta arratsaldea hantxe pasatu zuten ume eta nagusiek, beste koadrila batzuen arrimuan. Ez ziren, gainera, esku hutsik itzuli: zaldi zaharren baten hezurak aurkitu zituzten eta ume gehienek ekarri zuten hezurren bat oroigarri gisa.



EDORTA ARANA



PILOTARIAK Martitzen eta eguenetan entrenatzen dira 7 eta 11 urte bitarteko gaztetxoak Belokirekin.

M.A.

PILOTA > ESKORIATZAKO JAIALDIRA GAUR ILUNTZEAN

## Herriko gaztetxoek Eskoriatzako jaialdian jokatuko dute gaur

Jose Ignacio Belokirekin entrenatzen dira hamar gaztetxo martitzen eta eguenetan, eta gogoz daude gaur arratsaldeko erakustaldirako

M.A. > LEINTZ GATZAGA Gaur arratsaldean Eskoriatzako pilotaleku egingo duten pilota jaialdian Gatzagako gaztetxoek jokatuko dute, beste batzuen artean. 17:00etan da hitzordua.

MIKEL GOÑIREN ERAKUSTALDIA Sortu berri duten Onbide taldeak antolatu du jaialdia, eta autobideak kaltetutako lurren jabeak

daude tartean. Ingurumena zain-tzearen eta autobide hobea baten aldeko aldarrikapena egingo dute, eta administrazioari hitza betetze-ko eskatu. Hainbat pilotarik jar-duno du ekitaldian, gehienak eskoriatzarrak, eta partidurik garrantzitsuena Ordago enpresako Mikel Goñik eta Lazkanok Ubera II.aren eta Medinaren aurka jokatuko dute, 21:30ean.

### BELOKIREN ESANETARA

Gatzagako pilotariak martitzen eta eguenetan entrenatzen dira Jose Ignacio Beloki entrenatzai-learen esanetara. 7 eta 11 urte bitartean dituzte eta hamar bat mutil elkartzen dira. "Txapelketetan orain artean ez dugu joka-tu, gaztetxoak ere badira eta; horregatik, gogoz hartu dute Eskoriatzako jaialdia", dio Belokik.

Eskoriatzarrekin batera joka-tuko dute, eta helburu bakarra dute: ondo pasatzea. Horrekin batera, erakustaldi polita eginez gero, pozik itzuliko dira gaur ilun-tzean guztiak etxera.

### > INGURUMENA Osoko bilkuran onartu dute Agenda 21eko ekintza plana

Debagoieneko gainerako herriean bezala, Gatzagan ere Agenda 21 lantzen dabil-tza azken urtean. Ingurune enpresaren aholkularitza izan dute orain arte eta biforo egin dituzte hainbat herritarren parte-hartzearekin.

Martxoaren 30eko osoko bilkuran ekintza plana onar-tu zuen udalbatzarrak, eta hemendik aurrera Udalak egin beharko du lan herritarrekin batera: "Orain arte aholkularitza zerbitzua izan dugu, baina hemendik aurre-ra geuk jarraitu behar dugu lantzen. Ekintza plana nahi-ko orokorra da, eta herriko kontuetara ekarri beharko dugu. Hortaz, ea urte erdira-ko batzarren bat antolatzen dugun", dio Joxerra Perez alkateak.

ESKOLA KIROLA &gt; EREDUAREN GAINeko HAUSNARKETA

# "Haurrak kirolaren bidez garatzeko eskubidea du"

Ibarreko ikastetxeek bat egin dute Eskola Kirolak izan behar duen ereduaren hausnarketan

Eskola Kirolaren ereduak bat egiten du ikastetxeetan eman gura duten heziketarekin

XABIER URTZELAI &gt; ARRASATE

Eskola Kirolaren gainean berba egiteko elkartu gara Bergarako Udaleko teknikari Unai Asurmendiarekin eta Aranzadi ikastolako Damaso Gallastegirekin. Ibarreko ikastetxe guztietako ordezkariak bat egin dute Eskola Kirolaren ereduaren gainean hausnarketa egiteko, eta eguztenean eman zuten hausnarketa horren emaitza, prentsurrekoan. Horren gainean egin dugu berba bi ordezkariarekin: "Jende asko zeibilen Eskola Kirolaren gainean berbetan: komunikabideak, kirol taldeak... Guk, baina, oraindik ez dugu ezer esan, eta bazen ordua gure ikuspegia zein den azaltzeko".

Eta, prentsurrekoan azalduko ikuspegiaren gainean egin dugu berba: "Eguaztenean batuginen Udaletako ordezkariak eta ibarreko ikastetxe publiko eta

pribatuak denok batera indar egiteko, hau da, Eskola Kiroleko eredu hezigarria bultzatzeko. Azken baten, haurrak kirolaren bidez garatzeko eskubidea due-la uste dugu". Hala, ikastetxeek Eskola Kirolak dituen lau zutabeak azpimarratu gura izan zituzten: kirolak hezigarria izan behar du, guzti partea-hartzea bermatu behar du, eta kirol aniztasunaren alde egin behar du. Amaitzeko, gazteengana kirol-kultura sustatzea du helburu, helduaroan osasuna eta ongizatea bermatzeko lagunduko du-eta.

#### NON DAGO EZTABAJDA?

Eskola Kirolekoek multikirolean sinisten dute: "Hainbat kirol praktikatuz neska-mutikoek abi-zeiak, trebetasun motorrak... landuko dituzte. Batzuk, baina, ez daude horrekin ados, eta uste dute gaitasuna duen gazteak



KIROL ANIZTASUNA Horren alde egiten dute Eskola Kirolean. Erretratu, Unai Asurmedi eta Damaso Gallastegi. XABIER URTZELAI

hasieratik hasi behar duela kirol bakarra lantzen. Hala, argi utzi gura dugu Eskola Kirola ez dagoela futbolaren kontran, ezta gutxiago ere. Baina, uste dugu adin jakin batera arte gaztea ez dela kirol bakarrera mugatu behar". Eskola Kirolaren aldeko apustua egin dutenek argi dute eredu horrek ez diola errendimenduzko kirolari kalte egiten: "Profesionala izateko ez dago zer-

tan sei urtetatik kirol bakarra egiten ibili behar, eta hainbat kirol eginda gazteak gaitasunak hobetu landuko dituela uste dugu".

Prentsurrekoan hainbat eskaera egin zituzten: "Hasteko, haurraren inguruau dauden era-gileei elkarlana eskatu gura diegu: gurasoak, eskolak, kirol elkar-teak... Horrekin batera, adminis-trazio publikoa gehiago inplikatu beharko litzateke, Hezkuntza,

Kultura eta Osasun sailak, batez ere. Eta, Debagoieneko herriarrei konfiantza eskatu gura diegu, gure kirol hastapen eredua su motelean egosten den proze-sua da-eta. Uste dugu gure ereduak ikasle guztiak integratzen dituela, bai egun batean goi mai-lan ibil daitezkeenak, eta baita gainontzeko guztiak ere. Horre-tarako, baina, ezinbestean behar dugu gurasoen konfiantza".

## ASPEPELOTA Goi mailako pilota ikuskizuna

**Titin III - Goñi III / Mtz de Irujo - Laskurain**

**Lasa III / Peñagarikano**

**Larralde - Galarza VI / Apezetxea - Arizmendi**

- **Eguna:** igandea, apirilaren 9a.
- **Ordua:** 17:00etan.
- **Lekua:** Bergarako Udal Pilotaleku.

  
aspapelota.com

**Erreserbak** baita interneten ere: [www.aspelota.com](http://www.aspelota.com)



BATERA Eskola Kirolaren ereduaren alde eguztenean egindako prentsurrekoan.

GOIENKARIA

## Ikastetxe publiko eta pribatuak Eskola Kirolaren ereduaren alde

Eguazteneko prentsurrekoan ibarreko ikastetxe guztiak batera izan ziren. Eskola Kirolak ez du gauza makala lortu, eta indarrak bateratu egin behar diren horretan ikastetxeek eman dute lehenengo urratsa. Erretratu,

Aritz Fernandez (Ikastetxe erlijiosoak), Jon Ibabe (Oñatiako Eskola Kirola), Unai Asurmendi (Bergarako Eskola Kirola), Eva Agirre (Eskola publikoak), Aintzane Gardoki (Ikastolak) eta Andoni Ruiz de Azua (LEK).

Iker Elortza > Kitmar Ordizia errugbi taldeko jokalaria

# "Jokalariok beti gura dugu gehiago jokatu, baina aukerak ondo aprobetxatu ditut"

XABIER URTZELAI > ARRASATE  
Arrasateko taldean zortzi urte egin eta gero, 21 urteko Iker Elortzak bi denboraldi daramatza Ordizian. Joan den urtean igo ziren Estatuko maila gorenera, Ohorezko Mailara, eta joan den astean, Madril-en, lortu zuten mailari eustea.

Jardunaldi baten faltan eutsi diozue kategoriari.

Bai, lortu dugu helburua, Ohorezko Mailan geratzea. Eta egia esan, azkeneko momentura arte sufritu egin badugu ere, uste baino hobeto bete dugu helburua. Denboraldi hasieran uste genuen askoz ere gehiago kostatuko zitzagula, baina partidu txukunak egin ditugu, eta maila polita erakutsi. Adibidez, joan den urteko txapeldunak puntu bateko aldeagatik irabazi zigun etxe-an. Hori bai, egin behar ez diren akats tontoak ere egin ditugu, eta garesti ordaindu dugu hori.

Pen a azken jardunaldia ez duzuela etxe-an jokatuko.

Bai. Zaleei eskerrak emateko modu ona izango litzateke, baina Katalunian jokatuko dugu azken partidua. Bi urte hauetan harrituta geratu naiz Goierrin errugbiak hartu duen indarrarekin. Gure partiduetan mila lagun inguru izaten dira taldea animatzen, eta giro paregabea egoten da. Egia da, baita ere, inguruko herrietatik ere jende asko gertuzten dela gu ikustera.

**Bigarren urtea duzu hau; gus-tura Axio Araña entrenatzai-leak emandako aukerekin?**

Egia da jokalariok beti gura dugula jokatzen duguna baino gehiago jokatu, baina uste dut izan ditudan aukerak ondo aprobetxatu ditudala. Hasierako bost jardunaldieta titular jokatu nuen, eta, bat-batean, bi nor-gehiagoka egin nituen konbokatu barik. Horrelakoetatik ere ika-si egiten da, eta ordutik hona minitu asko jokatu ditut, batzuetan titular eta beste batzuetan bigarren zatian zelairatuta.

**Zer moduz moldatu zara mai-la gorenean jokatzen?**

Ondo, uste baino hobeto. Hasieran errespetua ematen du, baina jokatzen hasita berehala konturatutu nintzen ez dela aparteko ezer. Beharrezko da indartsu egotea, eta alde nabarmenna jokoaren azkartasunean dago; askoz ere dinamikoagoa da. Bes-

**"Kitmar Ordiziak mailari eusteko egin behar du lan, Liga irabazteko diru asko behar da-eta"**

**"Beteranoei begira egoten naiz, dakitena ikasteko: hobeto kokatzen, defendatzen..."**



"Etxean jokatzerakoan igarri egiten da zaleen berotasuna", dio Ikerrek.

talde, taktikoki jokaldiak ere askoz landuagoak dira.

**21 urterekin, izango duzu oraindik zer ikasi.**

Asko, oraindik asko. Taldean badaude jokalari beteranoak, eta eurei begira egoten naiz, dakite-na ikasteko. Gauza asko daude: zelan kokatu, hobeto defendatzen ikasi... Haiek txakur zaharrak dira, eta haiengandik ikas-ten da gehien.

**Eta datozen hilabeteotan, zer?**

Oraingo asteburuan amaituko dugu Liga, eta Santboiana talde kataluniarrari ezustea eman gura diogu, Liga Txapelketa dute-eta jokoan. Etxean tanto bakarra-gatik irabazi ziguten, eta erreban-txa gura dugu. Gero, Koparako sailkatu ez garenez, torneo eta lagunartekoekin osatuko dugu denboraldia.

**Zein izango da taldeak dato-ren urtean izango duen hel-burua? Eta zeurea?**

Taldeak Ohorezko Mailari eusteko egin behar du lan, Liga irabazteko dirua behar delako. Azken batean, talde sendoek atze-rritar askorekin jokatzen dute, eta guk nahiz eta mailaz igo ez dugu taldea aldatu. Hori bai, urtetik urtera mailari eustea errazagoa izan dadin egin behar dugu lan. Eta niri dagokidanez, ikasten jarraitu gura dut, eta, noski, aha-lik eta gehien jokatzen.

## Edozein premiatarako:

- Antzutasuna
- Erditzeak
- Antisorgailuak
- Menopausia
- Ekografiak (4D)
- Titietako gaixotasunak
- Minbi ziaren diagnostiko goiztiarra
- Hezur dentsitometria

## Zure zerbitzura:

- Antonio Estomba
- Fernando Cristobal
- Alfredo Otalora
- Jose M. Gomez
- Maite Albizu
- Domingo Murgiondo
- Miguel Gabarain
- Maria Jose Ruiz
- Fatima Azkue
- J. Rodriguez
- Mikel Gorostidi

**CG**  
**CONSULTORIO**  
**GINECOLOGICO**



**ARRASATE**  
**Zerkaosteta 17**  
**943 79 20 18**

Donostia: 943 30 82 08  
Eibar: 943 12 10 2  
Irun: 943 61 78 88



Policlinica Gipuzkoa

**asteburuko hitzorduak****FUTBOLA**

Gazte mailako Euskadiko Liga Aloña Mendi - Añorga Domeka: 16:30. Azkogaia.

Preferente maila Mondra - Allerru Zapatua: 16:30. Atxabalpe. Irun - Aretxabaleta Zapatua: 17:30. Gal. Hernani - Aloña Mendi Zapatua: 16:30. Zubipe.

Lehen erregionala Urola - Bergara Zapatua: 17:00. Zumarraga.

Bigarren erregionala, igoera fasea Aretxabaleta - Munibe Domeka: 16:30. Ibarra.

Ohorezko mailako gazteak Mondra - Union Txiki Zapatua: 11:00. Atxabalpe. Sto. Tomas L. - Aretxabaleta Domeka: 17:30. Berio. Hondarribia - Bergara Zapatua: 15:45. Ondartza.

Lehen mailako gazteak Burumendi - Bergara. Eguena: 17:30. Mutriku. Bergara - Segura Zapatua: 17:00. Ipintza. Arizmendi Aretx - Ilintxa Zapatua: 16:30. Ibarra. Burumendi - Antzuola Zapatua: 17:30. Mutriku.

Bigarren mailako gazteak, igoera fasea Beasain - Arrasate Zapatua: 15:45. Igartza.

Kadeteen ohorezko maila San Inazio - Bergara Zapatua: 10:30. Donostia. Aloña Mendi - Lagun Onak Zapatua: 11:00. Ibarra.

Kadeteen lehenengo maila Euskalduna - Arizmendi Are. Zapatua: 11:00. Andoain. Beti Ona - Arrasate Zapatua: 17:15. Errenteria.

Kadeteak, igoera fasea Billabona - Arizmendi Aretx. Zapatua: 17:00. Billabona. Behobia - Bergara Zapatua: 13:00. Irun.

Ohorezko mailako infantilak Eibar - Aloña Mendi Zapatua: 10:30. Unbe. Arizmendi Aretx - Lengoko. Zapatua: 12:00. Aretxabalet.

Infantilen lehenengo maila (igoera fasea) Lazkao - Arrasate Zapatua: 11:00. Lazkao. Hondarribia - Bergara Zapatua: 12:00. Ondartza.

  
Gipuzkoako ligako senior maila (gizonezkoak) Internacional - Candy BKE Zapatua: 19:30. Donostia. Aloña Mendi - Alde Zaharra Domeka: 12:00. Zubikoa.

Gipuzkoako ligako junior maila (emakumezkoak) Mugarri Alkasa - Aloña Men. Zapatua: 12:00. Musakola.

Gipuzkoako ligako kadete maila (gizonezkoak) Zarautz - Aloña Mendi Zapatua: 16:00. Zarautz. San Patricio - Eskoriatza Zapatua: 12:15. Donostia.

Eskoriatzan, 'Autobide hobe baten alde'-ko pilot jaialdia Gaur: 21:30. Udal Pilotalek. Zabala - Heriz vs Herrarte - Iñurriategi 22:00etan: Mikel Goñi - Lazcano vs Übera II - Medina

Eskoriatzan, Debarro Txapelketa Zapatua: 18:00. Udal Pilot. Eskoriatza - Elgoibar Eskoriatza - Antzuola.

Elgetan, pilotaleku inaugurazio ekitaldia Zapatua: 16:00etan aurrera: umeendako pilot joko, joko garbi partidua, pala motzeko partidua.

19:45ean, Mikel Goñi - Medina vs Übera - Zezeaga

**Infantil txiki (txapeldunen fasea)**

Kostkas - Arizmendi Aretx. Zapatua: 10:30. Donostia.

**ESKUBALOIA**

Euskadiko senior maila, igoera fasea

Bergara - Anaitasuna

Domeka: 18:00. Ipintza.

Añorga - Arizmendi Aretx. Zapatua: 16:00. Donostia.

Allerru - Mondragon

Zapatua: 12:30. Lezo.

**Lehenengo eta bigarren territorial maila, Kopa**

Bergara - Urola

Domeka: 12:15. Labeg.

Arrasate - Leizaran

Domeka: 11:30. Iturripe.

**Gazte mailako Gipuzkoako Txapelketa**

Gatz Museoa - Aitzuri

Zapatua: 16:00. Iturripe.

Aloña Mendi - Tolosa

Zapatua: 17:30. Zubikoa.

Bergara - Pneumax

Domeka: 10:30. Labeg.

**Gipuzkoako kadete maila, Udaberri Txapelketa**

Euskalduna - Gatz Museoa

Zapatua: 11:00. Zarautz.

**Gipuzkoako kadete maila, azkeneko fasea**

Aloña Mendi - Bidasoa Irun

Zapatua: 16:00. Zubikoa.

**ARETO FUTBOLA****Gipuzkoako Liga**

Bilbao Leg. - Aloña Mendi

Zapatua: 17:00. Legorreta.

**Hirugarren maila**

Zaldibi - UDA Mercedes

Gaur: 22:30. Zaldibia.

**SASKIBALOIA****Lehen maila**

Ocaso Berrio. - Mugarril Alk.

Zapatua: 19:30. Santutxu.

**Gazteak**

Durango - Arrasate

Zapatua: 11:30. Durango.

**PILOTA****Elgetako Lau t'erdiko Txapelketa**

Gaur: 21:15. Aramaio.

23 urtez azpikoaren hiru norgehiagoka.

Domeka: 11:00. Elgeta.

Kadete mailako partidua bat,

eta 23 urtez azpikoaren hiru norgehiagoka.

**Udaberriko Txapelketa, finalak**

Bergarako pilotariekin

seniorretako lehenengo eta

bigarren mailako finalak jokatuko dituzte.

Gaur: 19:00etan. Udal Pilotalek.

**Debarro Txapelketa, Bergaran**

Domeka: 11:30. Bergaran

Udal Pilotalekua.

Gazte mailan:

Bergara II - Elgoibar

Seniorretan:

Bergara II - Elgoibar

Bergara I - Aretxabaleta I

**Debarro Txapelketa, Arrasaten**

Gaur: 21:00. Uarkape.

Kadete mailan:

Arrasate - Aretxabaleta

Gazte mailan:

Arrasate - Bergara

Senior mailan:

Aretxabaleta.

**Eskoriatzan, 'Autobide hobe baten alde'-ko pilot jaialdia**

Gaur: 21:30. Udal Pilotalek.

Zabala - Heriz vs

Herrarte - Iñurriategi

22:00etan:

Mikel Goñi - Lazcano vs

Übera II - Medina

**Eskoriatzan, Debarro Txapelketa**

Zapatua: 18:00. Udal Pilot.

Eskoriatza - Elgoibar

Eskoriatza - Antzuola.

**Elgetan, pilotaleku inaugurazio ekitaldia**

Zapatua: 16:00etan aurrera:

umeendako pilot joko, joko garbi partidua,

pala motzeko partidua.

19:45ean, Mikel Goñi -

Medina vs Übera - Zezeaga

MENDIKO LASTERKETAK > LEHEN PROBA, MEXIKON

# Ezpeletak Munduko Txapelketan parte hartuko du aurten

Zuhaitz Ezpeletarekin batera, Euskadiko selekzioan 12 lagun ari dira; Asier Lasa eta Rosa Lasagabaster dira hautatzaileak

Beste sei probak osatzen dute zirkuitua. Azkena Malasiako, urrian. Ezpeletarekin batera, Euskadiko selekzioan 12 lagun ari dira. Rosa Lasagabaster eskoriaztarra eta Asier Lasa senar-emazteak ari dira hautatzaile lanetan.

**EUSKAL HERRIKO KOPA**

Era berean, Euskal Herriko Koparen berri eman dute gaur, Eskoriatzako Ibarraundi jauregian egindako ekitaldian. Bost lasterketa jokatuko dira: Beran (apirilaren 23an), Aloñan (apirilaren 30ean), Pagoetan (ekainaren 4an), Zallan (uztailaren 23an) eta Bajgorrin (irailaren 23an). Euskal Herriko txapelketa Izaban izango da, uztailaren 2an.

**MENDIA**

## 'Hiru haundixeek hiru egunetan'

**E.M. > ARRASATE**

Arrasateko AED elkartearren eskuistik *'Hiru haundixeek hiru egunetan'* egiteko aukera izango da apirilaren 29tik maiatzen 1era. Ohikoa denez, Aizkorriko, Anbotoko eta Gorbeiako gailurretatik iga-roko dira partaideak. Irteera apirilaren 29an egingo dute 07:00etan Arrasatetik, eta hiru egunetan ehun bat kilometro egingo dituzte.

**IZENEMATEA ZABALIK**

Izenematea zabalik dago apirilaren 25era arte. AEDko baziakideek 35 euro eta gainerakoek 50 euro ordaindu beharko dituzte. Argibideak AEDn, 943 71 21 17 zenbakian.



GOIENKARIA

### Eskola kiroleko piraguismo txapelketa zapatuan Bergaran

Bergarako Beti-Busti piraguismo elkartek antolatuta, Karmelo Iturrospe Memorialaren V. ekitaldia jokatuko da bihar, zapatua, Bideberrin, 16:00etan hasita. Eskola kiroleko txapelketa izango da biharkoa eta 8 eta 12 urte bitarteko 50 gaztetxo inguru arituko dira lehian. Debagoienean dagoen piraguismo elkartea bakarra da Beti-Busti; horrez gain, Irungo Santiagotarrak, Donostiako Fortuna eta Atletico San Sebastian eta Pasaiako Koxtape taldeek ere hartuko dute parte zapatuan.

# Zotz jatetxea

- Eguneko menua
- Ogitartekaoak
- Hamarretakoak
- Menu bereziak egubakoitz eta zapatuetan
- Igandeetan itxita



Zubillaga auzoa 1 / OÑATI 943 78 35 45

# Hemen GARBIKETAK

Garbiketetan profesionalak gara

[www.hemen-garbiketak.com](http://www.hemen-garbiketak.com)

Intxaurtxueta 16 beheha  
ESKORIATZA  
Tel.: 943 71 48 45  
Fax: 943 71 30 58

Fermin Etxegoien eta Arkaitz Villar oñatiarrek musika saio bana gidatzen dute

Hirugarren denboraldia egiten ari dira biak

'Ekaitz perfektua' aste barruan emititzen da eta 'Elektroradiograma', asteberuetan

#### EDU MENDIBIL > BILBO

Fermin Etxegoien eta Arkaitz Villar oñatiarrek musika saio bana gidatzen dute Euskadi Gaztean: *Ekaitz perfektua* eta *Elektroradiograma*. Hirugarren denboraldia egiten ari dira biak eta Euskadi Irratiak Bilbon dituen estudioetara bisita egin diegu.

Aurretik Bilbo Hiriak irratian ibilitako da Fermin Etxegoien: "Kultura magazina egiten nuen han, arratsaldez, *Ziutatzaz* izenekoa. Ondoren, Euskadi Gaztean hasi nintzen; Edurne Ormazabal zuzendaria aspaldiko laguna eta garai bateko lan-kidea da, telebistan elkarrekin lanean ibili ginen-eta, *Katu kale* saioan. Hark askotan eskaini dit irratian zerbait egitea, eta Bilbo Hiritik irtendakoan, animatu nintzen".

*Coffee station, Kaleko legea* eta *Norabide guztiak* irratsaioak egin ondoren, *Elektroradiograma* saioa gidatzen du orain Arkaitz Villarrek. "Txikitik izan dut musikarako zaletasuna. Oñati gaztelekuak kontzertuak antolatzent ibili naiz, Radiation sustaztiale enpresan ere bai..., Nolabait, beti ibili naiz lanean musikaren inguruan".

#### FORMULATIK KANPO

Ferminen irratsaioa, *Ekaitz perfektua*, aste barruan entzun dai-teke, 20:00etatik 21:00etara. "Jendea telebista ikusten hasten da ordu horretan eta irratia gutxi entzuten omen da. Baino nireta-ko ez da arazo hori, abantaila baizik. Posible da normalean entzuten ez diren, formulatik kanpo diren musikak eta kantuak entzun ahal izatea, badakizula-ko ez duzula uxatuko jende askorik... Oso ordu hiritarra, urba-noa da, jende asko autoan doa..."



#### > 'AFRIKA' IKUSKIZUNA

Lausardiren eskuak, zapatuak, Arrasaten > 45



#### > ARKAITZ ZUBIAGA

Blogosfera astindu duen webgunea sortu du > 51

#### > UNAI IPARRAGIRRE

Arrasatearra Londresen bizi da azken zazpi hilabeteotan, eta Discovery Channel telebistan egiten du lan, promozio sailan. Berarekin hitz egin dugu > 50



# Bi oñatiar, Euskadi Gaztean



ESATARI OÑATIARRAK Arkaitz Villar eta Fermin Etxegoien, Euskadi Irratiak Bilbon dituen estudioetan.

EDU MENDIBIL

Kantuen puzzle moduko bat egiten duela dio: "Gidoia asko lantzen dut eta helburua zera da: entzuten duzun kantu batek hurrengorako gogoa piztea eta entzuten ari zaren kantu horrek ere aldez aurretik entzun duzun kantuaren zaporea hobetzea. Harremana egotea. Ez argumen-tu lotura: batzuetan lotura sortzen

da kontrastez, askotariko erritmo-ak nahastuz, estiloekin jolastuz. Eta horretan *hiperzabala* naiz: sartzen dut inork ezagutzen ez duen New Yorkeko talde abango-ardista bat eta gero sartzen dut Luz Casal, tarteak Su ta Gar... Neure mugak eta aurreiriztiak ere badauzkat: death metalak ez dut sartzen... Bestalde, informazioa

ez da oso importantea nik egiten dudan programan: askotan kantuaren edo diskaren izena ez dut esaten, beti esaten dut, noski, nor ari garen entzuten, baina igual interesanteagoa da estiloari buruz edo artistaren jatorriari buruz zerbait esatea, edo artista horrek izan duen eraginari buruzkoa... Hamabost bat kantu-

ko sesioa da, baina komentatua. Eta saioa ez da tematikoa izaten. Saitzen naiz, gainera, onartuz mundu anglosaxoia dela nagusi, gehiengo horretatik aldentzen, Frantziako, Kataluniako edo Italiako musika jartzan".

Arkaitzak pop musika eta elektronikoa tartekatzen ditu *Elektroradiograma-n*, zapatu eta dome-

**"Teknologia berriak direla eta, musika entzuteko modua aldatzen ari da"**

Arkaitz Villar

**"Ahal dela, saiatzen naiz nagusi den musika anglosaxoitik aldentzen"**

Fermin Etxegeoen

ketan, 18:00etatik 21:00etara. "Heldurua zen pitin bat eskaintza aukera bat estilo elektronikoari, eta, aldi berean, hemengo DJ, talde edo areto programatzaleen eszena erakustea. Saitzen naiz programa zabala eta atsegina egiten, eta denetariko kantuak dauude, denetariko estiloak. Informazioa ematen saiatzen naiz, eta hiru ordu direnez, *klimax* egoearri eustea zailagoa da. Ez naiz denbora guztian hitz egiten egoten. Bi edo hiru kantu segidan jarri, gero komentatu... Entzulearekiko lotura sortzea da importantea, ez igual hitzen bidez...".

Biek ere zera diote: askatasun osoa daukatea nahi duten musika jartzeko. Ferminek argi dauka musika tendentziak industriak markatzen dituela: "Sormena industriatik kampo dago. Sorkunta hutsa gauza euskan daiteke industrian eragiteko... Baino berehala industria dator eta industriak dauka bitartekoak bere gain hartuz hori bilakatzeko kontsumituko den musika... Euskadi Gaztea horren adibide, erakusgarri da, baina nik uste dut ez dela zuzena Euskadi Gazteari -eta ez nabil gure programei buruz, formulari buruz baizik- leporatu izan zaiona, anti-euskalduna izatea, alegia. Esan daiteke Euskadi Gaztean entzuten den kanpoko musika *hortera* dela, eta industriari mesede egiten dio la eta ez industriatik kampo



ELEKTORADIOGRAMA Asteburuetan da Arkaitzen saioa.



EKAITZ PERFEKTUA Kantuen puzzlea egiten du Ferminek.

dagoen sorkuntzari. Baino euskal musikari dagokionez, formulak berak euskal produkzioari ematen dion tratamenduaren parekorik ez dago; hori Espainian aurkitzea, irratii publiko batean, ezinezkoa da. Euskadi Gaztean irteera ematen zaio euskal produkzioari %99an, kendu-

ta estiloan oso-oso muturrean diren gauzak. Eta horiek ere sarzten dira normalean...".

#### TEKNOLOGIA BERRIAK

Internetetik musika jaitsi ala ez, zera diosku Ferminek: "Irratian bidez zabaltzeko baldin bada, ez naiz errrudun sentitzen". Musi-

ka entzuteko modua aldatzen ari dela dio Arkaitz: "Lehen, disko osorik entzuten genuen eta goitik behera ikasi; orain, disko batetik bispahiru kantu aukeratzen dituzte belaunaldi berrieik. Disko osoaren formatu hori desagertzen ari da. Disko osoa entzuten hazi gara gu, baina orain auke-

raketa bestelako da... Single formatuaren antzoko zerbaiz".

Teknologia berriak eskura izan arren, hainbat herrialdetan egiten dena jakitea zaila da. Ferminen hitzetan, "zerdakigu Errusian egiten den musikaz? Ezagutzen dugu Errusiako Dylan? Franzisko musikari buruz gero eta gehiago dakigu, baina ziurrenik ez dakigu gure gurasoek zekiena baino gehiago. 60ko hamarkadarekin, poparen estandarrekin eta rock-and-rollarekin hasten da mundu anglosaxoiaren nagusitasuna. Kolonizatuta egotearen beste adibide bat abestien hitzak dira. Ulertu barik ere, *guay* dela esaten dugu. Horri oraindik ez zaio buelta eman, baina elektronikaren bitartez gehiago demokratizatu da. Adibidez, inork ez du jarri Poloniako datorren pop kantu bat hemen. Aldatz doa hori. Joan den astean, esaterako, suedieraz egiten duen Suediako talde bat jarri nuen. Bazen ordua!".

Arkaitzak dioen bezala, musika elektronikoan espektroa zabalagoa da. "Pentsa, aurreko urtean gehien harritu ninduen disko elektronikoa finlandiar batena zen". "Alemania eta Austria ere potentziak dira elektronikan", gaineratzen du Ferminek.

#### EUSKALDUN PRODUKZIOA

Kosta egiten zaie biei talderen bat nabarmentzea: "Horrenbeste urtean musikan zabiltzanean... Nire kasuan, behintzat, erlatibizatu egiten dira musikak eta kantuak". Eta Arkaitz: "Egoerak asko markatzen du. Momentu baten punk disko bat entzuten duzu gustura, hurrengoan popa... Oso aldakorra da hori".

Euskaldun produkzioaren gainean zera dio Ferminek: "Euskaldun izatea ez da balio bat. Zirkunstantzia bat, zoria da. Bainan hori eramatzen badugu eremu kulturalera, bada balio bat. Horren aldekoa naiz ni. Bainan importanteena iruditzen zait hori inork ez igartzea, jendea ez kontratzea... Ez dut kuotetan sinisten, sinisten dut euren burua ezkutatzent duden kuotetan. Kuota bati jarraitzeak kalte baino ez dio egiten euskal produkzioari".

## Musika zainetatik uhinetara plazaratzen

Belaunaldi ezberdinekoak dira Arkaitz Villar (27 urte) eta Fermin Etxegeoen (39 urte). Euskadi Gaztean euren gune propioa izatea lortu dute biek. Musika tendentziekin egunean egoteko aldzikarietara, lagunengana edo beste hainbat irratsiotara jotzen dute. "Erredakzioan bertan egoteak ere asko laguntzen du. Hona ailegatzen dira nobedade asko eta gertuan dauzkat, esaterako, *La jungla sonora*-ko lagunak...", dio Ferminek. Azkenaldian egondako kontzertuen artean Drive-by Truckers taldearena nabarmenzen du.

Arkaitz, berriz, iazko Primavera Sound jaialdia hautatzen du. "Eskaintza ezberdina duen jaialdia da eta *flipatu* egin nuen...". *Entzun!* eta *Debalde* aldzikarietako kolaboratzailea da Arkaitz, eta Publizitate ikasketak egiten dabil Leioan. Irratiko lanaz gain, Fermin Etxegeoenek egunero idazten du *Berria-n*. Argia saria eskuratu berri du. Eta apirilaren 26an ETB-1en estreinatuko den *Kalaka* saioan gidoilarri lanak egingo ditu. Xabier Euzkitzak aurkezturiko solasaldi saioa izango da, eguzaten gauean emitituko dena.

# Batxilergoak-Heziketa Zikloak-Ikastaroak

**Matrikulazio epea: Apirilaren 24tik maiatzaren 5era**

- TEKNOLOGIA
- NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
- GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK
- PRESTAKUNTZA BATXILERGOA (GMHZtara bideratuta)

- MAKINEN ETA LINEA EROANBIDEEN MANTENIMENDU
- ELEKTROMEKANIKOA
- NATUR INGURUNEAN KIROL EKINTZEN GIDARITZA
- MEKANIZAZIOA

**Langileentzako ikastaroak: CNC Tornua, 50 ordu (2006/05/02-2006/05/25) Plano irakurketa 50 ordu (ekaina)**  
**Eguzki Energia fotovoltaikoa ikastaroa: 40 ordu (2006/04/24-2006/05/10)**



Tel.: 943 78 21 50



www.onati.net



onatikobhi@goieskola.net



MUSIKA > LAUSARDI ABESBATZA SINFONIKOAK 'AFRIKA' IKUSKIZUNA EGINGO DU

# Ahotsak eta perkusioa batzen dituen ikuskizuna

Tribuetako musika, bluesa, funkya eta beste doinu batzuk batzen dituzte 'Afrika' emanaldian

**IKER BARANDIARAN > ARRASATE**  
Bihar, zapatua, Lausardi abesbatza sinfonikoak eta perkusio taldeek *Afrika* ikuskizuna egingo dute Amaia Udal Antzokian 20:00etan. Emanaldi horrekin bukaera emango diote Udaberriko II. Musikaldiari.

Lausardi abesbatza Bergarako Orfeoiko eta Arrasateko Goikobalu abesatzako lagunek osa-

tzen dute, eta 2000. urtean hasi zirenetik maila handiko ikuskizunak egin izan dituzte.

## BLUESA, FUNKYA...

*Afrika* ikuskizuna 2004an estrenatu zuten. Lizarran, Bergaran eta beste herri batuetan egin dute. Gaur, egubakoitza, Andoainen egingo dute eta biar Arrasaten, lehenengo aldiz.

*Afrika* Donato Goienetxek perkusio eta abesbatzaren idatzitako lana da. Ikuskizunak 80 minuto inguru irauten du, eta 18 piezaz osatuta dago. Abeslariek denetariko kantuak eskainiko dituzte: tribuetako kantuak, bluesa, funkya, eta abar.

Lausardiko arduradunen esanetan, ikuskizunean kultura afroamerikarrari gainbegiratua egiten diote, eta emanaldi oso modernoa da, "Afrikako lehenengo musika adierazpenak eta azkeneko tendentziak batzen dituena".



LEHENENGKO ALDIZ Honako hau da *Afrika* Arrasaten egingo duten lehenengo aldia.

GOIENKARIA

MUSIKA > KURAIA ETA DEADLINE

## Punk-rocka eta doinu gogorrak Kuraiaaren eta Londresko Deadlinen eskutik

Kuraia Arrasateko gaztetxearen urtemugan joko du

### I.B. > ARRASATE

Gaur, egubakoitza, Johnny Gerri-welt eta Londresko Deadline taldeek kontzertua egingo dute Arrasateko 3.60 aretoan, 23:00-

etan. Deadline taldea 2000. urtean sortu zuten, Londresen, Gundog punk-oil taldeko eta Knuckle-dust hardcore taldeko kide batzuek. Orain arte Europari lau bira eman dizkiote, AEBetan beste bat egin dute, eta hiru disko kaleratu dituzte. Liz abeslariaren ahots paregabeak gidatzen ditu punk eta hardcore estiloen arteko kantuak, eta emaitza txukuna da, indartsua eta aldi berean melodikoa.

### GAZTETXEAREN URTEMUGAN

Bihar, zapatua, berriz, gaztetxea izango da ekintza-gunea. 15. urtemuga ospatzen hasi dira *4 pauzoz 11 amets* lelopean, eta horren harira kontzertu interesgarria antolatu dute. Santanderko Kloakao eta Bidasoaldeko Kuraia taldeak izango dira taula gainean 22:30ean.

Kloakao taldeak punk-rock musika egiten du, eta Kuraia hard-rocka eta punk-rocka uztartzen ditu. *Piztu da piztia* iraupen laburreko diskoa kaleratu zutenetik Kuraia taldea gutxitan iku si ahal izan dugu areto itxietan. Biharkoa izango da horretarako aukera aproposa.

## GIARTZU DERMOESTETIKA ZENTROA

Espainiako Azaleko Estetika Konpontzailearen Taldeko kide Azalaren zahartzearren kontrol zientifikoaren unitatea.

Boni Laskurain 3 BERGARA

943 76 35 71

ESTETIKA PROFESIONALEKO KONTSLTA



## Zimurrak kentzeko aukera ezberdinak daude

**5** 6 urte ditut, baina 200 ditu dala ematen du, ez dut nire burua atsegin. Arazoren bat daukat. Ekonomikoki ez daukat arazorik, baina nire aurpegia eta lepoa zimurrez josita daude. (batzuetan isipili aurrean jartzen naiz, zenbat zimur dauzkadan ikusteko eta ez zait batere gustatzen ikusten dudana). Batzuetan Kalkutako Ama Teresa ematen dut (zoritzarrez fisikoan bakarrik) eta negargura sartzen zait. Nire itxura hobea balitz nire arima-egoera ere hobea izango litzateke. Inoiz ebakuntzaren bat egitea bururatu izan zait, baina ze ebakuntza egin ere ez dakit. Gorputz guztiko ebakuntza egin beharko nuke. Senarrak utzi zidan gauza on bakarra dirua izan zen. Nire buruan inbertitzeko diru pixka bat bidaukat, behintzat (hori eginda, agian, senarra hildakoen artetik piztuko litzateke niri errieta egiteko). Ez dakit nondik hasi, ebakuntza gelak beldurra ematen dit. Zure iritzia jakin nahi dut.

Lehenengo, zu ikusi beharko zaitut, benetan nola zauden jakiteko. Zure arima-egoera ez da onena izango eta ziurrenik zaude na baino okerrago ikusten duzu zure burua. Zure itxura erreala ikusita eta azalaren egoera ikusita, itxura fisikoa aldatzeko aukera asko ikusten ditut, eta ondoren azalduko dizut nola:

Lehenengo, azala oso ondo tratatu behar da hainbat azidorekin, 4-6 saioko tratamenduarekin. Hasieran kontzentrazio baxu (bidea zabaltzen joateko geruza sakona-goetara, han gertatzen da-eta zelulen biderkatzea eta birsorkuntza) eta graduatua jarriko diogu, eta aza-

**0 km**  
- Mondeo TDCi – 130 ZP  
- Focus TDCi – 115 ZP  
- Focus TDCi – 136 ZP  
- C-Max TDCi – 115 ZP  
- C-Max TDCi – 136 ZP

**Aukerako ibilgailuak**  
- 4x4 Nissan Pafainder Dci – 174 ZP  
- 4x4 Toyota Land Cruiser D4D – 163 ZP  
- 4x4 Toyota Land Cruiser HDJ-100 – 204 ZP  
- 4x4 Toyota Rav 4, 3 ate SP D4D – 110 ZP

**MUGARRI**

Araba Etorbidea, z/g  
ARRASATE  
www.mugarri.es

**Ford**

gozatzeko pentsatua  
irauteko eginak

**Maria Isabel Hurtado**

Dermatizista

e-maila: mi.hs@euskalnet.net

**IRAGARKI SAILKATUAK**

**ETXEALDIAZKAK SALGAI**

Bergara:  
 • Duplexa. Masterreka. 180 m<sup>2</sup>.  
 • Duplexa. Ortuibar. Oso ondo.  
 • Bidekurutzea 66 m<sup>2</sup>. Oso ondo.  
 • Ibarraiai 106 m<sup>2</sup>. Oso ondo.  
 • Espolioa 156 m<sup>2</sup>. Oso ondo.  
 • Koldo Eleizalde 87 m<sup>2</sup>. Ondo.  
 • K. Eleizalde 90 m<sup>2</sup> + telatu azpia.  
 • S. Pedro 78 m<sup>2</sup>. Ganbara. Berriuta.  
 • Zabaltegi 50 m<sup>2</sup>. Oso ondo.  
 • I. Aranzadi 140 m<sup>2</sup>. Ondo.  
 • Boni Laskurain 90 m<sup>2</sup>. Garajea.  
 • Bidekurutzea 96 m<sup>2</sup>. Oso ondo.  
 • Faiskozeta 104 m<sup>2</sup>. Oso ondo.  
 • Ona 97 m<sup>2</sup>. Oso ondo.  
 • Iparagorri 75 m<sup>2</sup>. Ondo.  
 • Zubiaurre 80 m<sup>2</sup>. Ondo.  
 • Artelka 74 m<sup>2</sup>. Ondo.  
**ELGETA:**  
 • Salbador 80 m<sup>2</sup>. Berritzeko.  
**SORALUZE:**  
 • Gipuzkoako etorb. 80 m<sup>2</sup>. Oso ondo.  
**ANTZUOLA:**  
 • Duplex berria erdialdean.

**Antzuola:**  
 • Eguizai auzoa 84 m<sup>2</sup>. Eguzkitsua.  
 • Duplexa. Erdialdea. Oso ondo.  
 • Sajasti 90 m<sup>2</sup>. Eguzkitsua.  
**Elgeta:**  
 • San Roke. Ondo.

**DEBA GARAIA INMOBILIARIA**

Telesforo Aranzadi 2  
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37  
Zarugade 1 Arrasate  
T: 943 77 13 02 F: 943 73 12 40

**BERGARA:**  
 • Ibarraiai 118 m<sup>2</sup>. Oso ondo.  
 • San Anton Abad. 75 m<sup>2</sup>. Oso ondo.  
 • Erdialdea 110 m<sup>2</sup>. Oso ondo.  
 • Aranerreka 75 m<sup>2</sup>. Oso ondo.  
 • Zubiaurre 60 m<sup>2</sup>. Oso ondo.  
 • Matxitegi 80 m<sup>2</sup>. Ondo.  
 • Madura 51 m<sup>2</sup>. Berriuta.  
 • Zabaltegi 80 m<sup>2</sup>. Oso ondo.  
 • Iparagorri 165 m<sup>2</sup>. Berritzeko.  
 • Artelka 74 m<sup>2</sup>. Ondo.  
 • Angiozar bi solairuko etxea. Berritzeko.  
 • Masterreka 87 m<sup>2</sup>. Oso ondo.  
 • Martoko 45 m<sup>2</sup>. Ondo.  
 • Simon Arrieta 89 m<sup>2</sup>. Berritzeko.  
 • Ozeta 74 m<sup>2</sup>. Ondo.  
**ELGETA:**  
 • Salbador 80 m<sup>2</sup>. Berritzeko.  
**SORALUZE:**  
 • Gipuzkoako etorb. 80 m<sup>2</sup>. Oso ondo.  
**ANTZUOLA:**  
 • Duplex berria erdialdean.

<b>1. ETXEBIZITZAK</b>	<b>3. LOKALAK</b>	<b>5. IRAKASKUNTZA</b>	<b>7. ANIMALIAK</b>	<b>9. HARREMANAK</b>
101. SALDU 102. EROSI 103. ERRENTAN EMAN 104. ERRENTAN HARTU 105. ETXEAK OSATU 106. BESTELAKOAK	301. SALDU 302. EROSI 303. ERRENTAN EMAN 304. ERRENTAN HARTU 305. BESTELAKOAK	501. JASO 502. EMAN 503. BESTELAKOAK	701. SALDU 702. EROSI 703. EMAN 704. BESTELAKOAK	901. AGURRAK 902. HARREMANAK 903. DEIAK 904. BESTELAKOAK
<b>2. GARAJEAK</b>	<b>4. LANA</b>	<b>6. MOTORRA</b>	<b>8. DENETARIK</b>	<b>10. RELAX</b>
201. SALDU 202. EROSI 203. ERRENTAN EMAN 204. ERRENTAN HARTU 205. BESTELAKOAK	401. ESKAINTZAK 402. ESKAERAK 403. BESTELAKOAK	601. SALDU 602. EROSI 603. ALOKATU 604. KONPONDU 605. BESTELAKOAK	801. SALDU 802. EROSI 803. EMAN 804. HARTU 805. TRUKATU 806. GALDU 807. AURKITU 808. BESTELAKOAK	

Eguazten eguerdia arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrak iragarri ditugu.

# 943 25 05 01

sailkatuak@goiiena.com

PARTIKULARREN IRAGARKIKA DOAN JARRIKO DITU. GAINERAKOAK, 17 € (+BEZ) ORDAINDU BEHARKO DITUZUE MODULUKO.

GOIENKARIK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**ENTORNOS INMOBILIARIOS URBANISTICOS**

INMOBILIARIA  
T: 943 698404

**BERGARA:**  
 • 109 m<sup>2</sup>, 3 logela.  
 • 97 m<sup>2</sup>, 3 logela, 2002. urtekoa  
 • 65 m<sup>2</sup>, 3 logela, 217.675 euro  
 • Duplexa, 105 m<sup>2</sup>, 3 logela, garajea  
 • 82 m<sup>2</sup>, 3 logela, berriuta. 210.995 €  
 • 104 m<sup>2</sup>, 4 logela, egongela haundi, 366.617 euro  
 • Martoko. Bi urte dela berriuta.  
 • S. Anton Abad. Bi urte dela berriuta.  
 • Ibarraiai 80 m<sup>2</sup>. Bi balkoi.  
**ARETXABALETA**  
 • 60 m<sup>2</sup>. Berriuta, 2 logela,  
 • 85 m<sup>2</sup>, 3 logela, jantzia  
**ARASATE**  
 • 109 m<sup>2</sup>, 4 logela, terraza, 2 komun  
**ANTZUOLA**  
 • 51 m<sup>2</sup>, berriuta, 167.000 euro  
 • 90 m<sup>2</sup>, 3 logela, terraza  
 • 77 m<sup>2</sup>, berriuta, 217.674 euro  
**ANGIOZAR**  
 Baseria

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Antzuola.** Etxebizitza ia berria. 90m<sup>2</sup>. Hiru gela, egongela-jan-gela, sukaldea, bi bainugela; hala, despentsa eta bi balkoi. Trastelekuia. Erdi-jantzia. Eguzkitsuia. 655 70 97 14.

**Antzuola.** Etxebizitza salgai. 73 m<sup>2</sup>. Bilogela, bibainugela. Egoera onean. Jantzia. Bergara. 660 70 04 48.

**Arrasate.** Bizkaia etorbidean etxe salgai. Lau logela, 86 m<sup>2</sup>. 943 79 95 49.

**Arrasate.** Etxebizitza egin daitenean 82 metro koadroko loka-la. Baien guzteriekin, Gazte-kuondon. 652 76 21 63.

**Arrasate.** Etxebizitza salgai. 90 m<sup>2</sup>. Hego-mendebaldean. Eguzkitsuia. 82 metro koadro. 637 83 18 47.

**Arrasate.** Etxebizitza salgai. Zerrajera kalean. 110 metro koadro. Hego-mendebaldean begira. Bi garaje ditu. 660 70 13 80.

### 103. ERRENTAN EMAN

**Capbreton (Landak).** Home-mobila bat ematen da errentan, bi logela dauzka. Hondartzatik gertu. Pazko astea eta uda. 665 73 40 09.

**Conil (Cádiz).** Apartamentua errentan. 615 75 11 47.

**Conil.** Cádiz. Apartamentua errentan. Guztiz jantzia. 680 44 26 68.

**Costa Sancti Petri-Chiclana (Cádiz).** Apartamentua errentan, La Barrosa hondartzatik oso-oso gerto. Deitu gauez. 616 14 65 54 edo 678 78 39 10.

**Pefiscola.** Pazko astea eta uda. Urbanizazio pribatua. Igerilekuia.

### 104. ERRENTAN HARTU

**Aretxabaleta** edo Eskoriatzan etxebizitza aloratzan da. Guztiz jantzia. Igerilekuarekin. 657 73 94 25.

**Arrasate.** Logela ematen da errentan, sukaldea erabilizko eskubidearekin. 400 euro. (Dorleta). 696 11 01 94 edo 943 77 16 73.

**105. ETXEAK OSATU**

**Arrasate.** Logela ematen da errentan, sukaldea erabilizko eskubidearekin. 400 euro. (Dorleta). 696 11 01 94 edo 943 77 16 73.

**106. BESTELAKOAK**

**Lursail** baten bila nabil Oñati edo Antzuola inguruaren. Egurrezko etxebizitza bat jarteko. 661 29 82 25.

### 101. SALDU

**Bergara.** Telesforo Aranzadi etxe salgai. 140 m<sup>2</sup>. 699 75 45 46.

**Eskoriatza.** San Pedro kalean etxebizitza salgai. 74 m<sup>2</sup>. Guztiz jantzia. 943 53 26 43.

**Hondartzatik** gertu. Telefonoa: 610 87 83 57.

**Salou.** Apartamentua errentan. Guztiz jantzia. 629 98 99 edo 943 81 42 38.

### 103. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Logela ematen da errentan, sukaldea erabilizko eskubidearekin. 400 euro. (Dorleta). 696 11 01 94 edo 943 77 16 73.

**104. ERRENTAN HARTU**

**Arrasate.** Logela ematen da errentan, sukaldea erabilizko eskubidearekin. 400 euro. (Dorleta). 696 11 01 94 edo 943 77 16 73.

### 105. ETXEAK OSATU

**Arrasate.** Logela ematen da errentan, sukaldea erabilizko eskubidearekin. 400 euro. (Dorleta). 696 11 01 94 edo 943 77 16 73.

**106. BESTELAKOAK**

**Lursail** baten bila nabil Oñati edo Antzuola inguruaren. Egurrezko etxebizitza bat jarteko. 661 29 82 25.

### 201. SALDU

**Aretxabaleta.** Garaje itxia salduko nuke erdialdean. 685 72 16 52 edo 665 73 40 09.

### 301. SALDU

**Arrasate.** Erdigunean lokal komertziala salgai. Leku eta egoera onean. 661 29 82 25.

### 304. ERRENTAN HARTU

**Bergara.** Lagun talde bateko lokal hartuko luke errentan, sca-lexicr eta antzerako jolasenak ibiltzeko. 635 74 59 94.

### 401. ESKAINTZAK

**Arrasate.** Pertsona bat behar da etxe batean lan egiteko, hiru orduz, gozten. 620 02 91 00.

### 402. ESKAERAK

**Arrasate.** Emakume bat gertu, haurrak eta pertsona nagusiak zainteko. Ordua. Ana. 649 59 86 04.

### 501. JASO

**Arrasate.** Gizon bat gertu, lore-zain lanak edo lurraldi lotutako lanak egiteko. Experiencia jardun. Carlos. 607 99 08 86.

### 502. EMAN

**Bergara.** Emakumea gertu etxetan lan egiteko manikendak lana edo pedikura egiten, ume-ei ilea moztzen, orrazkerak eta tintekat egiten... 606 64 16 09.

### 503. BESTELAKOAK

**Bergara.** Umeak zaintzeko neska. 657 99 37 63.

### 601. SALDU

**Arrasate.** Pertsona bat behar da etxe batean lan egiteko, hiru orduz, gozten. 620 02 91 00.

### 602. EROSI

**Debagoina.** Garbitasuneko lanak egiteko prest dago neska bat. Roxana Pardo. 662 08 22 03.

### 603. ALOKATU

**Debagoina.** Mutil bat gertu edozein lanetarako. Cristian. 662 08 22 03.

### 604. BESTELAKOAK

**Debagoina.** Mutil bat gertu edozein lanetarako. Cristian. 662 08 22 03.

### 605. ALOKATU

**Debagoina.** Mutil bat gertu edozein lanetarako. Cristian. 662 08 22 03.

### 606. BESTELAKOAK

**Debagoina.** Mutil bat gertu edozein lanetarako. Cristian. 662 08 22 03.

### 607. ALOKATU

**Debagoina.** Mutil bat gertu edozein lanetarako. Cristian. 662 08 22 03.

### 608. BESTELAKOAK

**Debagoina.** Mutil bat gertu



**Juan Miguel Andres eta Resu Arantzeta** oñatiarrak Arantzazun ezkondu ziren orain dela 25 urteko apirilaren 11n. Zilarreko ezteiak bete dituzten honetan ospakizun baziaria egin zuten apirilaren 2an Zelai-Zabal jatetxeen. Zorionak etxekoan eta lagunen partetik.



**Jabi Azkarate eta Mency Uriona** bergararrak bihar, zapatau, ezkonduko dira Garaiko udaletxean. Han egongo dira koadrila-ko lagunak egun berezi hau euren alboan pasatzeko. Ondoren, etxekoekin egingo du ospakizuna bikoteak Lekeitio. Zorionak, ondo-ondo pasa eguna eta besarkada handi bat bioi koadrila-koen partetik.



**Agueda Cendegui eta Doroteo Martinez** Urduñako Antigua elizan ezkondu ziren 1956ko apirilaren 9an. 50 urte elkarrekin pasa ostean, urezko ezteiak ospatzeko datorren domekan, apirilaren 9an, meza izango dute Arantzazun eta ondoren seme-alabekin eta bilobekin baziartzera joango dira. Zorionak bikote etxeko guztien partetik!

## hildakoak

• **Manuel Simon Nogales.** Aretxabaletan, martxoaren 29an. 55 urte.

• **Juan Ignacio Lopez Gomez.** Arrasaten, martxoaren 29an. 41 urte.

• **M. Carmen Peñagarikano Gisasola.**

Antzuolan, martxoaren 30ean. 65 urte.

• **Juanita Aranbarri Goñi.** Bergaran, martxoaren 30ean. 85 urte.

• **Luis Carlos Urrutia Rodriguez.** Bergaran, martxoaren 30ean. 61 urte.

• **Rosario Fuentes Zaida.** Eskoriatzan, martxoaren 31n. 84 urte.

• **Matilde Allende Alonso.** Arrasaten, apirilaren 1ean. 94 urte.

• **Francisco Juaristi Barrenetxea.** Bergaran, apirilaren 1ean. 74 urte.

• **Mario Sanz Gomez.** Bergaran, apirilaren 2an. 68 urte.

• **Arantzazu Unamuno Kerexeta.** Bergaran, apirilaren 2an. 70 urte.

• **Pablo Bengoa Argarate.** Eskoriatzan, apirilaren 2an. 85 urte.

• **Maria Asuncion Oianguren Arana.** Arrasaten, apirilaren 3an. 90 urte.

• **Florencia Zubillaga Zubia.** Arrasaten, apirilaren 3an. 88 urte.

• **Higinio Uzarraga Alberdi.** Arrasaten, apirilaren 3an. 91 urte.

• **Emiliano Alonso Gallo.** Antzuolan, apirilaren 3an. 86 urte.

• **Luis Barandiaran Eginoa.** Aretxabaletan, apirilaren 4an. 96 urte.

• **Jesus Mari Balantzategi Gallastegi.** Arrasaten, apirilaren 4an. 51 urte.

• **Maria Agirre Leturiondo.** Bergaran, apirilaren 4an. 93 urte.

• **Jose Luis Larrañaga Markiegi.** Bergaran, apirilaren 5ean. 55 urte.

Eskela, urteurren meza edo eskertzarik jarri nahi baduzu, etor zaitez GOIENKARIAren ordezkaritzetako batera.

## GOIENKARIA

Astero 18.500 etxetan.

Eskelen prezioa: 85 €.



### ESKELA

## Jose Luis Larrañaga Markiegi

Bergaran hil zen 2006ko apirilaren 5ean, 55 urte zituela.

*Labur egin du berea  
heriotz maltzurrak luzea,  
elkarrekin egindako bidea.*



Metagrako lankideak.  
Bergaran, 2006ko apirilaren 7an.

### URTEURRENA

## Donato Ormazabal Erostabarre

Lehen urteurreneko meza domekan, apirilaren 16an, 12:30ean, Bergarako San Pedro elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

### URTEURRENA

## Jose Mari Gallastegi Altube

Lehen urteurreneko meza domekan, apirilaren 9an, 11:00etan, Bergarako Santa Marina elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

### URTEURRENA

## Ignacio Albisu Zangitu

Lehen urteurreneko meza domekan, apirilaren 9an, 11:00etan, Bergarako Santa Marina elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

### URTEURRENA

## Jose Luis Aranzabal Eguren

Lehen urteurreneko meza domekan, apirilaren 9an, 11:00etan, Bergarako Santa Marina elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

### URTEURRENA

## Maria Pilar Iruin Garin

Lehen urteurreneko meza domekan, apirilaren 9an, 11:00etan, Bergarako Santa Marina elizan.



*Urte bat pasa da gure ondotik joan zinenetik  
baina inoiz ez zara joango gure bihotzetik*

### URTEURRENA

## Felix Lizarralde Bedia

Laugarren urteurrena

*Elkarrengandik urrun  
baina beti gogoan*



Zure familia

### ESKER ONA

## Higinio Uzarraga Alberdi

Bittori Gallastegiren alarguna

Arrasaten hil zen 2006ko apirilaren 5an, 91 urte zituela.



Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

Arrasaten, 2006ko apirilaren 7an.

### ESKER ONA

## Luis Carlos Urrutia Rodriguez

Bergaran hil zen 2006ko martxoaren 50ean, 61 urte zituela.



Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

Bergaran, 2006ko apirilaren 7an.

## bila-bila 7



## sudokua

			1	9		2		8
1	6							
	3		5	6				
7	5				9			
8		6		7			3	
	4				7		2	
		9	1		8			
5	9		3	4				


## hitz gezidunak

Ugaztun karraskari		Aldi, sasoi		Prezia		
Tuberkula		Pastel handiak		Gogo bizia izan		
Uztail						
Oker, bihurri						
Betidaniko	V	Nahi, desio	> V			
IRUDIKO HERRIA		Bat-batean				
	>			Jaurtiketa	>	
				Bi gehi bi		
Teilatuetako pieza	>		V		Kasik	>
Estakurua, desenkusa					Hiru	
	>					Zakur
Etxeko animalia	>			Arnas ezak hil	>	V
Irudi geometrikoa				Azkena		
	>			Dudarik gabe	> V	

LUMA

## hieroglifoa

Zer gertatu zaio sokari?



## hizki salda

Alaveseko bost jokalari

S	A	R	R	I	E	G	I	D
S	T	G	F	T	O	A	O	X
F	B	R	M	E	T	I	P	L
B	S	E	I	R	E	Z	I	P
O	M	N	R	R	R	B	D	M
N	Z	E	N	E	N	I	O	A
A	P	O	J	Z	F	A	B	Z
N	U	A	Z	T	N	J	R	O
O	L	L	I	D	U	T	S	A

## bono fotoa



**Leintz Gatzagan alokatzeko txabola edo bungalow moduko batzuk dude. Nola du izena txabola horiek dauden tokiak?**

Argazkia eta galdera > Jose Felix Diaz de Tuesta

**Super BM**

Super BMk emandako  
**50 euroko erosketa-txartela**

zozketatuko du GOIENKARIk asmatzaileon artean!

ERANTZUNA .....

IZEN-DEITURAK .....

TELEFONO... .

Ekari txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO  
Golenako edozein egoitzara

**Fairy Ultra garbigarria**

625 ml

**1,75 €** 291 pta.

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

**AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA**  
FELIX AIASTUIrendako izan da erosketa-txartela. Zorionak!  
Galderaren erantzun zuzena: 1629.



## umore giroan

Kike Amonarriz

## Aholkua

- Zer esaten zion amak Klaudio Landa gazteari, arratsaldero, kalera atera aurretik?

- Gauerdirako oheratu ez bazara..., itzuli etxera!

## Zer ikusi?

- Zer ikusten da Migelikori begietara zuzen-zuzen begiratzen zaionean?

- Kaskezurraren hondoa!




## Tolosarkeriak

- Zertan antzematen da jasotako faxa Tolosatik bidalia den ala ez?


- (!!)

- Zigilua erantsita daramalako.

## soluzioak



E Ten.  
Jergatikoa: Eten.



# Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK

## AKUPUNTURA

### INTEGU

Arrasate / Uarkape 18, behea, ezk / 943 77 13 34

### ETXEERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

## ALBAITARIAK

### ARATZ KLINIKA (LAZPIUR ROMAN)

Bergara / Zurradero 6, behea / 943 76 70 67 / 607 48 71 19

### ETXEERRIA JULIO (DEBAGOIENEKO ALBAITARI OFIZIALA)

Bergara / 609 54 16 13

## ANALISI KLINIKOAK

### LABORRA ISABEL

Bergara / Oxirondo 4-1B / 943 76 32 06

## BARNE MEDIKUNTZA

### IRIGOEN VICTOR

Bergara / Oxirondo 4-1B / 943 76 32 06

## DENTISTAK

### AGIRRE HORTZ KLINIKA

Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

### ARANBURU HORTZ KLINIKA

Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

### ARRASATE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

### ARREGI HORTZ KLINIKA

Arrasate / Zerkaosteta 19, behea / 943 79 71 90

### ASTIAZARAN SOLOZABAL

Bergara / Iparragirre 1, behea / 943 76 27 95

### BENGOA SAN MIGUEL ANGEL

Aretxabaleta / Durana 14, 1. / 943 79 05 57

### BERGARA HORTZ KLINIKA

Bergara / Bidekurutza 36, behea / 943 76 05 77

### CAVIGLIA SILVANA

Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

### GOROSABEL J. ALBERTO

Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

### IRIARTE IRURETA AÑE MAITE

Arrasate / Iturriozt 7 – 1 / 943 79 69 45

### IRIARTE IDOIA

Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65

### LOPEZ DE GOIKOETXEA

Arrasate / Alfontso X. Jakintza 5 / 943 79 17 74

### LORENZO MARTIN RAFAEL

Arrasate / Zarugalde 16-1. esk. / 943 77 12 63

### MAZMELA BOLINAGA ENRIKE

Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

### SAINZ MALKORRA ANA

Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

### TRIPALDI ENRIKE

Bergara / Justo Garate 1 / 943 76 70 76

## DERMATOLOGIA

### TAMAYO CONCEPCION

Arrasate / Munar 10 / 620 124 843

## DIETISTAK

### ALBERDI MIREIA

Bergara / Masterreka 11, behea / 943 76 33 99 / 646 43 34 58

## ENTZUMEN ZENTROAK

### GAES

Arrasate / Otalora Lizentziaduna 18 / 943 71 27 93

### INSTITUTO OPTICO – BIOACUSTICA

Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

## FISIOTERAPEUTAK

### ANDONI ETA MARIA BASTERRETXEA

Arrasate / Garibai etorbidea 6B / 943 77 03 96

### ARZAK MIREN

Bergara / Artekalea 1-1H / 943 76 43 71

### BASTERRETXEA MARIA

Bergara / Artekalea 1-1H / 943 76 43 71

### EKIN FISIOTERAPIA ZENTROA

Aretxabaleta / Belorrieta 6 – 7 / 943 79 95 64

### IONE MOÑUX FISIOTERAPIA ZENTROA

Bergara / Burdinalete 2 / 943 76 21 31

### NAREN FISIOTERAPIA ZENTROA

Aretxabaleta / Belorrieta 5 / 943 08 21 89

### ORMAZABAL FISIOTERAPIA ZENTROA

Bergara / Telleria 6 bis, 11 bulegoa Labagarieta ind. / 943 76 53 35

### UNZUETA IRENE. SAN MARTIN OSASUNDEGIA.

Bergara / Ramon Maria Lili 2 / 943 76 59 39

## KIROPRAKTIKA ZENTROA

### LARRAÑAGA ANDREA

Arrasate / Erdiko kalea 22, 3. esk. / 943 79 92 83

## LOGOPEDIA

### PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

## MASAJISTAK

### ABUIN JOSE LUIS

Arrasate / San Josepe 10, behea D – Kirolegian

943 77 01 33 / 943 77 16 77

### ARANTZABAL SAIOLA

Elgeta / Domingo Iturbe 10 / 646 50 00 29

### ARANTZETA JUAN MARI

Elgeta / Salbador 28 / 943 76 80 54

### AZPEITIA IRUNE

Bergara / Ibaragarai 44, behea / 943 76 73 43

### CASANELLAS JABIER

Bergara / Boni Laskurain 5-2E / 943 76 03 78

### ELORTONDO FLOREN

Aretxabaleta / Basabe industrialdea D, z/g / 629 77 85 84

### ETXEERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

### LASAI MASAJEAK

Aretxabaleta / Santa Kurtz 24 / 943 77 04 34

## OPTIKAK

### ARRASATE OPTIKA

Arrasate / Kontzezino 6 / 943 79 25 98

### BEGIONDO OPTIKA

Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

### INSTITUTO OPTICO

Arrasate / Kale Barria 32 / 943 71 82 88

### ITZIAR OPTIKA

Oñati / Kale Barria 32 / 943 71 82 88

### ITZIAR UGARTE OPTIKA

Arrasate / Arrasate Pasealekua 35-37 / 943 08 26 87

### MULTIOPTICAS LARRAÑAGA

Arrasate / J. Carlos Guerra 1 / 943 79 29 95

## PORTALOI OPTIKA

Arrasate / Erdiko kalea 10 / 943 79 65 56

## ORTOPEDIA

### ORTO LAGUN

Arrasate / Kontzezino 2 / 943 79 89 34

## OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

### UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA (ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)

Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

## OSTEOPATIA

### BENGOA NERA

Arrasate / Azoka kalea 4 / 659 58 66 89

### ETXEERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

## PODOLOGOAK

### AZPIAZU ARANTZAZU

Bergara / Herri Lagunak z/g / 943 76 41 32

### ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA

Arrasate / Erdiko kalea 54, behea esk. / 943 79 97 46

### IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA

Bergara / Ikerlek zeharbidea z/g / 943 76 07 84

### OINEZ PODOLOGIA KLINIKA

Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

## PSIKIATRA

### GALLASTEGI PABLO

Bergara / San Martin plaza 2-1. ezk. / 943 76 26 64

## PSIKOLOGOAK

### GALLASTEGI ANA - PSIKOTERAPEUTA INTEGRATZAILEA

Bergara / San Martin Plaza 3-4D / 669 42 68 11

### GARMENDIA LANDER

Arrasate / Obenerreka 2, 7H / 943 79 35 86

### NUÑEZ TXOMIN

Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

### PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

### PSIKOLOG

Unai Iparragirre > Telebista aurkezlea eta zuzendaria

# "Parrandan baino gaupasa gehiago egiten genituen Arrasate Telebistan"

Unai Iparragirre arrasatearra oso ezagun egin zen Euskal Telebistan. Aurkezle, gidoilarri eta

zuzendari lanak egin zituen hainbat saiotan, nahiz eta jende askok *Jaiak*-engatik gogoratu.

Azken zazpi hilabeteotan Londresen bizi da, eta Discovery Channel telebistan egiten du lan, bai-

na gustura egin du iraganera salto, eta Arrasate Telebistako oroitzenek hunkitu egin dute.

#### IKER BARANDIARAN > ARRASATE

Iparragirrek Arrasate Telebistan izan zuen eskola garrantzitsuena. Horrez gain, unibertsitateangoizez informatika ikasketak egin zituen, baina arratsaldeetako antzerkiak gehiago erakartzen zuen.

#### Zer izan gura zenuen nagusitan?

Irakasle, ikastolan oso giro ona zegoelako. Gerora konturatu nintzen telebistak asko erakartzen ninduela. Txikitán, lagunekin *Un, dos, tres* telebista saioa antzeztzen jolasten ginen eta neu aurkezlea nintzen.

#### Gaztetxotan, lagun talde bat Arrasate Telebistan saioak egiten hasi zineten...

ATB sortu aurretik telebistarako zaletasuna ez neukan non garatu eta ETB oso urrun gelditzen zen. Horregatik, ATB sortzean, Agustinek, Betirtzek, Aitorrek eta laurok eskaintza egin genion Joxe Arantzabali. Hark esan zigun zerbait grabatu eta berari eramateko. Umeendako saio bat egin genuen, eta gustatu egin zitzaien.

#### Handik aurrera, gau eta egun ibili zineten telebistan...

Bai, parrandan baino gaupasa gehiago egiten genituen ATBn. Guk eginen genuen guztia: argiztatu, grabatu, muntatu, aurkeztu, gidoiak egin... Askatasun osoa geneukan. Lehenengo saioa *Bapirulauke* izan zen. Haren ostean, *Kukaratzxa motel, Larrugorritan* eta beste hainbat etorri ziren.

#### Oroitzapen onak dituzu?

Oso onak. Telebistan bi urtez ibili eta gero ondo editatzen iksasi genuen. *Kukaratzxa...* egiten bezain ondo oso gutxitan pasatu dut. Umeei zuzenduta zegoen, baina jende askok ikusten zuen. Saio haren promobatekin sari bat jaso genuen. Parrokian grabatu genuen, eta hilkutxa baten hilda agertu ginan. *Kukaratzxa...* izan zen Arrasateko *La bola de cristal* antzeko bat. Adibidez, hilkutxan agertu ginan umeen saioan, ehorztxeko telefonoa eman genuen, zera esanez: "Badakizue edozein momentutan hil gaitezkeela; hortaz, apuntatu telefonoa". Umeen saio baten halakoak egitea pentsaezina zirudien...

#### Baina bestelako ikasketak egin zenituen, ezta?

Bai. Unibertsitatean Informatikako lau ikasturte egin nintuen. Hala ere, ikasgelako giroa



JOSETXO ARANTZABAL

#### PERTSONALA

**Herria:** Arrasate. **Adina:** 32 urte. **Ikasketak:** Informatika eta antzerkia. **Zaletasunak:** Musika entzutea eta lagunekin egotea. **Abesti bat:** Madonnaren *Like a prayer*. **Debagoieneko jairik onena:** San Juanak eta Maritxu Kajoi. Kanpoan ibili arren, ez dut

hutsik egiten. **Zure burua teknosexualtzat dauka-zu?** Zer da hori? Ez. **Zer filmetako protagonista izan-gozinateke?** Ewan McGregor *Moulin Rouge-n*. **Eske-lak irakurtzen dituzu?** Ez, baina lagun batzuek bai, eta ulertzten ez dudan zerbait da.

eta unibertsitatea ez zitzaidan gustatu eta arratsaldeetan antzerkia ikasten ibili nintzen. Hortaz, Antzerki Dramatizazioko diplomatura eskuratu nuen.

#### ETBn urte asko egin zenituen. Aldaketa handia izan zen?

Informatikako 5. maila hasi aurretik Maider Eguesek deitu zidan, eta esan zidan *Jaiak*-eraiko aurkezleak behar zituztela. Hala, 1997an hasi eta lau pabost urte egin nituen ETBn: *Jaiak, Superbat, Egun Ero, Galdestreet, El verano del siglo...* Lan egiteko moduan ez nuen aldaketa handirik igoari aurkezlea nintzelako, baina gogorra egin zitzaidan ezagun egitea; izan ere, orain dela gutxi Londresen ere bi lagun etorri zitzaiakidan *Jaiak*-eko nintzelako esanez.

#### ETBn egindako lanetatik, zeinetan ibili zinen gusturen?

Hainbatekin: eguerditan eginen genuen *Galdestreet* albistegi satirikoa, *Betizu*-ko galak eta *Superbat* ere bai. *Jaiak*-en aurkezle hasi nintzen eta zuzendari bukatu nuen. *Betizu*-n aurkezlea izateaz gain, gidoiak idatzi eta zuzendari lanak egin nituen.

#### Kamera aurrean ala atzean?

Unearen arabera. Orain ez daukat gogorik aurrean aritzeko. Zuzendari lana gustatzen zait. Baina aurkezle lana ere polita da, batez ere zuzenekoa.

#### Lehen parranda-zale samarra zinen. *Jaiak*-ekin ase egin zara?

Ez. Formaldu naiz orain dela zazpi hilabete Londresera joan naizenetik, baina etortzen naizenean parranda egiten dut. Oso gautxoria naiz.

#### Antzerkia egiteko aukerarik izan duzu?

Bai, diplomatura eskuratu ostean ikuskizun batzuetan lan egin nuen, baina utzi egin nuen, lanagatik. Eta orain dela hiru bat urte, Agerre taldearekin *Los niños no pueden hacer nada por los muertos* antzezlana egin nuen Estatuko hainbat hiritan.

#### Londreskoa zelan izan zen?

Lagun batek esan zidan Discovery Channelera curriculuma bidaltzeko, eta hartu egin ninduten. Sinistu ezinik nabil. Promozio sailaren arduradun lagun-tzailea naiz: ia mundu osoko ikusleen gaineko azterketak egin eta saioak iragartzeko bideoak diseinatzen ditut.



INFORMATIKARI GAZTEA Arkaitz Zubiagak Ingeniaritzako Informatikoa ikasi du Mondragon Unibertsitatean.

GOIENKARIA

INTERNET > WEB 2.0

## 'Zabaldu.com': albisteak elkarbanatzeko eta bozkatzeko webgunea

Internet erabiltzaileek interesgarriak iruditzen zaizkien albisteak webgunera bidaltzeko aukera daukate, gainerakoek ere horren berri izateko

**EDU MENDIBIL > ARRASATE**  
Euskal blogosfera astindu duen webgunea sortu du Arkaitz Zubiaga arrasaterrak. Interneten aurkitutako albisterik interesgarrienak konpartitzeko aukera eskaintzen du *zabaldu.com* webguneak joan den martxoaren 26a ezkerro. Internet erabiltzaileek interesgarriak iruditzen zaizkien albisteak webgunera bidaltzeko aukera daukate, gainerako irakurle euskaldunek ere haien berri izan dezaten. Eta beste irakurleek interesgarri iritziz gero, bota emateko aukera dago. Boto gehien jasotzen dituzten albisteak azaltzen dira azalean. Orain goz webguneak erregistratutako 70 erabiltzaile inguru ditu: era biltzaile bakoitzak *karma* bat du

bere parte hartze mailaren arabera (6 eta 20 arteko) eta *karma* altua dutenen botoek gehiago balio dute.

### 800 BISITA INGURU EGUNERO

Arkaitz Zubiaga Arrasaten jaio zen, 1982an, eta Ingeniaritzako Informatikoa ikasi du Mondragon Unibertsitatean. Karrera amaiariko proiektua egiten dabil, Ulman.

*Zabaldu.com* webguneari buruz zera diosku: "Ia-ia hasizirenetik irakurtzen ditut *Digg.com* eta *Meneame.net*-eko albisteak, eta, euskal blogosferan eragina izango zuelakoan, horrelako zerbaitek euskaraz abiarazteko asmoa nuen aspalditik. *Meneame.net*-eko Ricardo Gallik kodea denon eskura jarri zuenean,

proiektuari ekiteko unea iritsi zen. Kodean behar ziren aldaketa guztia egin eta euskarazko *klon* batera egokitu nuen".

Eguneko 800 bisita inguru izaten ditu webguneak lehen astean. "Harritu egin nau blogosferan horren azkar zabaltzeak eta webguneak izan duen oihartzunak. Denon artean egitea da helburua eta pozgarria da euskarak Interneten bere lekutxoa baduela ikustea" dio Arkaitz.

### EUSKARAZKO SOFTWAREA

Zubiagak web diseinua eta programazioa ditu gustuko, eta, bestetako beste, Berri Txarrak musika taldearen webgunearen arduradu 2002a ezkerro. Euskarazko softwarea erabiltzea gustatzen zaio eta zenbaitetan itzulpenak ere egin izan ditu, eMule eta WordPress 2.0 tartean. Era berean, euskarazko Wikipedian artikuluak idazten ditu.  
<http://www.zabaldu.com>

## Zure negozioaren erakusleihoa Interneten

[www.goiena.net-eko/blog\\_komertzialak](http://www.goiena.net-eko/blog_komertzialak)

- Zure negozioko eskaintzaren berri sarean
- Euskal merkeak
- Emaitzak onenak Google eta beste bilatzaileetan
- Erabiltzko erraza

**Goiiena.net**  
Debagoineko ataria Interneten

[www.goiena.net/blogak](http://www.goiena.net/blogak)  
/4quattro /joseba /gallastegi /merkeopari /pando /maulanda  
/argi-plastik /BZ-sistemas /garai /multiopticas /udalatx /mayte  
/aregi /dragon- /gutzizeder /ohiak /udalaitz /ganesh  
/atai /oriental /irudisport /okipark /gorkatxi  
/azkarate /ezkutuorly /korozabaleta /vitoria /elejalde

Prezioen eta ikastaroen gaineko informazioa:  
[www.goiena.net/blogak](http://www.goiena.net/blogak) ·  
[azabarte@goiiena.com](mailto:azabarte@goiiena.com) ·  
943 76 92 70

Eta baita ere:  
[www.aizue.com](http://www.aizue.com)  
[www.lilura.com](http://www.lilura.com)  
[www.baster-alde.com](http://www.baster-alde.com)  
[www.ehmff.com](http://www.ehmff.com)



## teknologia berriak

### > ARGAZKILARITZA

**Deiak egiteko, argazkiak ateratzeko eta hartutako irudiak inprimatzeko aukera, Vodafoneko eskutik**

Vodafone etxeak kaleratutako *pack* deigarria: deiak egiteko, argazkiak ateratzeko eta hartutako irudiak inprimatzeko. Poltsikoko telefonoa ZV10 modeloa da eta Samsung inprimagailuak kilo bat baino gutxiagoko pisua dauka, bidaietara-eta eramateko modukoa. 10x15 cm-ko neurri inprimatzzen ditu irudiak.



Argazkien kalitateari dagokionez, hazbeteko 300 puntuko bereizmena dauka. Telefonoak 50 MBko memoria dauka. [www.vodafone.es](http://www.vodafone.es)

### > TELEBISTA

**Telebista eta DVD erreproduzitzalea batera, bidaietan erabiltzeko aukera egokia**

Bidaia batek eskaintzen duen guztiaz gozatzeko aukera eskaintzen du Unimade etxeko KP-8800 erreproduzitzaleak. Kamera digitalarekin hartutako argazkiak erakustearaz gain, DVD erreproduzitzalea da eta telebista analogikoa sintonizatzeko aukera eskaintzen du. LCD pantaila panoramikoa 8,4 hazbetekoa da eta bideo irteerari esker beste logela baten DVD erreproduzitzalea moduan erabil daiteke.



[www.forumelectronics.es](http://www.forumelectronics.es)

### > ARGAZKILARITZA

**HP Photosmart 335: argazki digitalak paperean ateratzeko inprimagailua**

Minutu bat ere ez du behar HP Photosmart 335 inprimagailuak argazki digitalak paperean ateratzeko. 10x15 cm-ko neurri inprimatzzen ditu argazkiak eta irudiak memoria txarteletilik edo kameratik bertatik (USB bitartez konektatzen bada) irakurtzen ditu.



Era berean, LCD pantaila txiki bat dauka, inprimatu aurretik argazkiak ikusi ahal izateko. Erabiltzeko oso erraza omen da eta prezioari dagokionez 100 euro inguru dago. HP Photosmart inprimagailua. [www.hp.es](http://www.hp.es)

HP Photosmart delakoak 10x15 cm-ko neurri inprimatzzen ditu argazkiak.

**berriak**

> PROGRAMAZIOA  
**Euskarazko tokiko telebisten arteko elkarlana bultzatzen**

Goiena Telebista, Goierri Telebista eta Ttipi-Ttapa telebista ari dira elkarren arteko lana bultzatu guran. Horren haritik, udako programazioari begira elkarrekin zenbait saio egin nahi dute.

*Jaiak 2006* izan daiteke sor dezaketen aurreneko saioa. Besteak beste, Doneztebeko, Lesakako, Arrasateko, Bergarako, Beasaingo eta Ordiziako jaiak ikusteko aukera eskaini gura dute.

> PROGRAMAZIOA  
**Edertu altzari dendak babestuko du eguneko albistea**

Asko dira GOITB aukeratzenten duten dendari eta enpresaburuak euren komertzio eta enpresen gainekeo publizitatea egiteko. Oraingo astetik aurrera Bergarako Edertu altzari dendak eguneko albista babestuko du GOITBko albistegi guztietan. Albiste-gietan *Izenburuak* eta *Kirolak* tarteek ere badute babeslea eta aurrerantzean eguneko albiste garrantzitsuenaren babesle izango da Edertu.

> ARRASATE IRRATIA  
**Hip-hop mugimendua, besteak beste, ‘Asteko Gainbegiratua’-n**

Aste honetan ere makina bat gongidatu izan ditugu uhinetako autobusean; horien artean, Amaia Labaien eta Jaiotza Larrañaga hip-hop zaleak. Musika bakarrik ez, beste hainbat alor batzen dituen mugimendua dela azaldu digute.

Horretaz gain, *Asteko Gainbegiratua-n*, Udalak udarrako abian jarriko duen arreta bulegoaren gainean jasotako azalpenak ere entzungai.

> ARRASATE IRRATIA  
**107.7ko autobusak oporrak hartuko ditu egunean**

Aste Santuko oporraldia dela-eta, 107.7ko autobusak atseden hartuko du eta apirilaren 24an itzuliko da, indarberri-tuta, uhinetara. Horrek ez du esan nahi, baina, Arrasate Irratia isildu egingo denik, urtean egindako elkarritz-tekin osatutako bildumak prestatuko dizkizuegu eta.

Datorren asteko ibilbide-ten, berriz, oporraldirako hainbat proposamen interesgarri aurkituko dituzue Arrasate Irratian.

‘BEHAZULO’ > EGUBAKOITZA, 21:15

## Hezkuntza sistema eta Bologna Prozesua aztergai

Bologna Prozesuaren kontra itxialdia egin dute oraingo astean Eskoriatzako HUHEZIKo fakultateko ikasleek

GOIENKARIA > BERGARA

Bologna Prozesuaren gainean ariko da oraingo astean Goiatz Arana *Behazulo* saioan. Horretarako gonbidatuko du Ikasle Abertzaleak taldeko Pello Otxandiano. Kontua da oraingo astean IAk deitura itxialdia egin dutela Mondragon Unibertsitateko HUHEZIKo fakultatean.

Hitzaldiak, mahai-inguruak, kontzentrazioak, kontzertuak eta kafe tertuliak egin dituzte oraingo astean Eskoriatzan. Horren guztiaren gaineko ikuspegia eskainiko du *Behazulo*-k eta hezkuntza sistema ere izango da aztergai gaur gauean.



ITXIALDIA Bologna Prozesuaren kontrako itxialdia HUHEZIn. GOIENKARIA

> PROGRAMAZIOA > ASTE SANTUAN ETA PAZKO ASTEAN PROGRAMAZIO BEREZIA

## Bertsolaritza saioak, musika kontzertuak eta erreportajeak jaiegunetan

GOIENKARIA > BERGARA

Apirlaren 10etik 23ra bitartean programazio berezia izango da Goiena Telebistan. Eguna Santutik astelehenera ez da albiste-girik emitituko; baina, gainera-ko egunetan, ohiko ordutegian emitituko dira albistegiak.

Era berean, saio bereziak ere eskainiko ditu GOITBk. Besteak beste, Gipuzkoako Bertsolaritza Txapelketako zenbait saio eskainiko ditu eta Beran (Nafarroa) izandako beste saio bat izango da ikusgai. Horrez gainera, musika kontzertuak ikuste-

ko aukera izango da Debagoieneko telebistan; Kokein rock talde eibartarrak Elgetako Espaloia Kafe Antzokian eskainitako kontzertu akustikoa, hain justu ere. Ttipi-Ttapa telebistikak, Goierri Telebistak eta Goiena Telebistak grabatutako erreportajeak eta beste zenbait saio berezik osatuko dute Goiena Telebistako Aste Santuko eta Pazko Asteko programazioa. Apirlaren 10etik 12ra eta 18tik 21era Gaurkoak saioa eta Albistegiak izango dira, arratsaldeko zortziak laurden gutxitan.

**telebegi**

Unai Loidi

### Albistegiak

**E**spainiako 13 telebista kateren albistegiak aztertu ditu *Consumer* aldizkariak. Edukiak eta iturriak. Eta horien artean ETB-2koak. Jakina da-eta ETB-1ekoak ez direla importanteak. Sumatzen ziren joerak eta lehentasunak portzentajetan aurkeztu dituzte: kirola, politika eta makroekonomiatik asko oro har. Eta herritarren hurbileko gaietatik gutxi: kontsumoa, osasuna eta kultura.

Patroi bera betetzen ei dute ETB-2ko *Teleberri*-ek ere, gai sozial gehiagorekin. Baina agian ikerketa guztian daturik larriena albisteen jatorriari buruzkoa da. Energia sektoreko enpresa indartsu batek babesten duen *Teleberri* albistegian, berrien %47k instituzioetan daukate jatorria. Hauen artean zenbatuta egon behar dute, bateko lehendakariak Txilera edo besteko sailburuak Argentinara egindako bisitetatik iristen diren bideoek, garai bateko NO-DOen estiloa gogorarazten dutenak. Ariketa interesgarria benetan, albistegiak herritarren intereseko gaietatik hurbil ez badaude, noren interesetatik dauden gertu pentsatzen jartzea.

**arrasate irratia**

FM 107.7

### Zapatua

10:00 Asteko gainbegiratua.

Amaia Labaien eta Jaiotza Larrañaga, hip-hop zaleak; Ainhoa Guenagarekin, Arrasateko Udaleko idazkariarekin, arreta bulegoengainean; lorategiaren geltokian, ezkontzen gainean...

### Domeka

10:00 Asteko gainbegiratua.

**Astelehenetik eguztenera**  
10:00-12:00 Igo autobusera!  
Albistegia.  
Eguraldiaren iragarprena (Joxe Landa).  
Elkarritzetak.  
Zorion agurrrak.  
(parte hartzeko: 943 71 17 31).

12:05 Arrasate Irratiko albistegi laburra.  
12:20 Izarran ordua: abesti ezagunak.  
13:00 Euskadi Irratiko albistegia.  
14:00 Igo autobusera! (errepepiakapena)  
17:00, 19:00, 21:00, 23:00 Arrasate Irratiko albistegi laburra.  
17:15 Zorion agurrun tarte (errepepiakapena).

**Apirila 13tik Apirilaren 23arte**  
10:00 Elkarritzeta bilduma  
14:00 Elkarritzeta bilduma (errepepiakapena).

## GOITBko programazioa

### Egubakoitza, 7

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Berbaire. 14:15 Musika saioa. 14:30 M1: Eguraldia eta zerbitzuak. 14:35 Gezbideak. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:00 Iparorratza. 15:30 M1. 15:35 Sendabelarrak. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Didjerido. 16:15 Klip. 16:30 M1. 16:35 Gez-bideak. 16:45 Albisteak. 17:00 Berbaire. 17:30 Eltz beroa. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Ilunpean. 18:15 Teknopolis. 18:45 Albisteak. 19:00 Klipak. 19:15 Jazz mintegia. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak. 20:45 Albisteak. 21:15 Behazulo: Bologna prozesua. 21:45 Berriak. 22:15 Ilunpean: Paul Nicholson. 22:45 Albisteak. 23:15 16 mm: Iñigo Iruretagoiena eta Amaia Urtzelaren ‘mezularia’. 23:45 Berriak. 00:15 Amaiera.

### Zapatua, 8

08:00 Emisio hasiera. 08:05 Marrazki bizidunak bilduma. 11:00 Behazulo. 11:30 Ilunpean. 12:00 Eltz beroa. 12:15 16 mm. 12:45 Sustraia. 13:45 Didjerido. 14:15 Klip@. Musika taldeen bideoklipak. 14:45 Jazz mintegia. 15:15 MKT. 15:45 Saio berezia. Su-etenetako Itxaropena. 16:00 Behazulo. 16:45 Jazz mintegia. 17:00 16 mm: ‘mezularia’ Iñigo Iruretagoiena eta Amaia Urtzelai. 17:30 Marrazki bizidunak bilduma. 19:15 Eltz beroa. 19:30 16 mm. 20:00 Behazulo. 20:30 Zera dio eta Motzean. 20:45 Ilunpean. 21:15 Teknopolis. 21:45 Saio berezia. Su-etenetako Itxaropena. 22:00 Behazulo. 22:15 Elkartasun bideoklipak. 22:45 16 mm. 23:15 Erreportajea. 23:45 Emisio amaiera.

### Domeka, 9

08:00 Emisio hasiera. 08:05 Marrazki bizidunak bilduma. 11:00 Klip bilduma. 11:30 Iparorratza. 12:00 Didjerido. 12:30 Eltz beroa. 12:45 Erreportajea. 13:15 Munduari bueltaka. 13:45 Klip@. 14:15 Marrazki bizidunak. 15:15 MKT. 15:45 Ilunpean. 16:15 Behazulo. 16:45 16 mm. 17:15 Saio berezia. Su-etenetako Itxaropena. 18:00 Marrazki bizidunak. 19:15 Iparorratza. 19:45 Behazulo. 20:15 Zera dio eta Motzean. 20:30 Ilunpean. 21:00 Didjerido. 21:30 16 mm. 22:00 Saio berezia. Su-etenetako Itxaropena. 22:30 Didjerido. 22:30 Teknopolis. 23:00 Emisio amaiera.

### Asteleheneta, 10

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Behazulo: Bologna prozesua. 14:15 Eltz beroa: Izkokiak. 14:30 M1. 14:45 Gaurkoak. 14:47 Zera dio. 15:00 Munduari bueltaka: Indonesia. 15:30 M1. Eguraldia eta burtsa tarte. 15:35 Sendabelarrak. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Ilunpean: Paul Nicholson. 16:15 Klip. 16:30 M1. 16:45 Gaurkoak. 16:47 Eltz beroa. 17:00 Didjerido: Mikel Gallos. 17:30 Motzean. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Berbaire. 18:15 Sustraia. 18:45 Gaurkoak. 18:47 Danbaka. 19:00 Klipak. 19:15 16 mm. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak. 20:45 Berriak. 21:15 Harmailatik. 21:45 Berriak. 22:15 Harmailatik. 22:45 Berriak. 23:15 Jazz zikloa. 23:45 Berriak. 00:15 Emisio amaiera.

### Martitzena, 11

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Jazz zikloa. 14:15 Zera dio. 14:30 M1. 14:45 Gaurkoak. 14:47 Eltz beroa. 15:00 Elkartasun bideoklipak. 15:30 M1. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Harmailatik. 16:15 Klipak. 16:30 M1. 16:45 Gaurkoak. 16:47 Zera dio. 17:00 Jazz zikloa. 17:30 Denia. Danbaka saioa. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Erreportajea: Bertiz parkea. 18:15 Munduari bueltaka: Indonesia. 18:45 Gaurkoak. 18:47 Motzean. 19:00 Klipak. 19:15 Harmailatik. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak. 20:45 Berriak. 21:15 Ilunpean: Paul Nicholson. 21:45 Berriak. 22:15 Berbaire. 22:45 Berriak. 23:15 Behazulo. 23:45 Berriak. 00:15 Emisio amaiera.


### Eguaztenea, 12

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Berbaire. 14:15 Danbaka. 14:30 M1. 14:45 Gaurkoak. 14:47 Danbaka. 15:00 Teknopolis. 15:30 M1. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Behazulo. 16:15 Klipak. 16:30 M1. 16:45 Gaurkoak. 16:47 Eltz beroa. 17:00 Berbaire. 17:30 Motzean. 17:45 Gaurkoak. 17:47 16 mm: Iñigo Iruretagoienaren film laburra. 18:15 Teknopolis. 18:45 Gaurkoak. 18:47 Zera dio. 19:00 Klipak. 19:15 Didjerido: Mikel Gallos. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak. 20:45 Berriak. 21:15 Teknopolis. 21:45 Berriak. 22:15 16 mm: Ane Muñoz film laburra. 22:45 Berriak. 23:15 Erreportajea: Bertiz parkea. 23:45 Berriak. 00:15 Amaiera.

### Eguena, 13

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Erreportajea. 14:15 Motzean. 14:30 M1. 14:45 Gaurkoak. 14:47 Jazz mintegia. 15:00 Jaun eta Jabe. 15:30 M1. 15:35 Sendabelarrak. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Jazz mintegia. 16:15 Elkartasun bideoklipak. 16:30 M1. 16:45 Gaurkoak. 16:47 Eltz beroa. 17:00 Berbaire. 17:30 Motzean. 17:45 Gaurkoak. 17:47 16 mm: Iñigo Iruretagoienaren film laburra. 18:15 Teknopolis. 18:45 Gaurkoak. 18:47 Zera dio. 19:00 Klipak. 19:15 Didjerido: Mikel Gallos. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak. 20:45 Berriak. 21:15 Teknopolis. 21:45 Berriak. 22:15 16 mm: Ane Muñoz film laburra. 22:45 Berriak. 23:15 Erreportajea: Bertiz parkea. 23:45 Berriak. 00:15 Amaiera.

# Debagoieneko GREMIOAK



## AROZTEGIAK

### AZKARATE AROZTEGIA

Bergara  
• Ateak, leihoa, horma-armairuak, tarimak, parket flotatzaileak, sukaldeak  
• K-21  
Telleria 19 B02-B03  
T: 943 76 47 19 / 610 88 40 20  
[www.goiena.net/blogak/azkarate](http://www.goiena.net/blogak/azkarate)

### BIDABURU AROZTEGIA

Oñati  
• Era guztiako berrikuntza lanak, leihoa, neurri guztiako atariak, zoruak, eta abar.  
Zubillaga 20  
T: 943 78 35 00 / 627 48 58 13  
[bidaburu.h@euskalnet.net](mailto:bidaburu.h@euskalnet.net)

## ELEKTRIZITATEA

### AITZORROTZ ELEKTRONIKA

Aretxabaleta  
• Telebista, audio eta bideoa  
Salmenta eta konponketa  
• Instalazio elektrikoak  
• Atezain automatikoak  
• Antena kolektiboak  
Otalora 14  
T: 943 79 16 10  
F: 943 79 16 10

### ARANZABAL KOOP. E.

Arrasate  
• Instalazio elektrikoak  
• Antena kolektiboak  
Zerkaosteta 15  
T: 943 79 68 21 / 670 57 53 83  
F: 943 79 68 21

### ARETXARGI

Aretxabaleta  
• Instalazio elektrikoak  
Belorrieta 15 behea  
T: 943 532 628 / 645 734 032  
F: 943 532 629  
[aretxargi@euskalnet.net](mailto:aretxargi@euskalnet.net)

### BELLIDO ELEKTRIZITATEA

Oñati  
• Erreformak orokorean  
• Marka guztiako etxetresna elektronikoen konponketa  
Kale zaharra 60 - 3 erd.  
T: 943 78 23 10 / 615 74 94 94

### RELE

Eskoriatza  
• Instalazio elektrikoak  
Santa Ana 12 eta 17  
T: 943 71 41 65 / 943 71 41 12  
F: 943 71 41 65 / 943 71 41 12

## ERAIKUNTZAK

### ARRASATE ERAIKUNTZAK SL

Arrasate  
Meatzerreka auzoa  
T: 943 77 12 26 / 659 67 17 59  
[e.arrasate@euskalnet.net](mailto:e.arrasate@euskalnet.net)

### FRIXI ERAIKUNTZAK

Eskoriatza  
• Hormigoizko estrukturak eta urbanizazioak  
• Kontratak  
• Enpresen mantentze-lanak  
Aranburuzabala 56  
T: 943 71 55 15 / 629 51 39 22  
F: 943 71 55 15

### ZUTARRI SL

Arrasate  
Zerkaosteta 17, behea  
T: 943 79 67 78 / Faxa.: 943 77 10 09  
[zutarriz@infonegocio.com](mailto:zutarriz@infonegocio.com)

## ESKAIOLISTAK

### EMILIO ESKAIOLAK

Aretxabaleta  
• Eskaiolazko eta pladurrezko sabaien dekorazioa, sabai desmontagarriak  
Bedarretako San Miguel auzunea 14, behea D  
T: 943 79 60 65 / 675 70 25 12

## IGELTSEROAK

### DE LA TORRE IGELTSEROTZA

Eskoriatza  
• Barruko lanetan espezialitatea  
• Berrikuntza-obra orokorrean, azulejo-estaldura, aldaketak, gremioen koordinazioa  
Intxartxueta 7, 2D  
T: 943 71 52 64 / 639 76 29 27  
[Dela-torre@euskalnet.net](mailto:Dela-torre@euskalnet.net)

### G. IZCUE IRURZUN

Arrasate  
• Igeltserotza orokorra  
• Etxeen berrikuntza  
• Sukaldeak, komunak...  
Munar 6  
T: 943 77 04 77 / 607 87 91 66

## ITURGINTZA

### ARETXABAleta ITURGINTZA

Aretxabaleta  
• Sukalderako eta bainugelarako altzariak  
Santa Kurtz 24, behea  
T: 943 79 17 53  
F: 943 79 17 53

### EGIA ITURGINTZA

Arrasate  
Gipuzkoa etorbidea 39, behea  
T: 943 77 01 85

## IMANOL ITURGINTZA

Arrasate  
- Iturgintza  
- Berogailua eta gasa  
- Bainugelak  
Kale Txiki 9 behea  
Tel.: 943 79 05 95 / 609 67 96 15

### J.J. IRURE ITURGINTZA

Aretxabaleta  
• Ura  
• Gasa  
• Kalefakzioa  
Mitarte 15  
T: 943 793 187  
F: 943 793 187

### OYANGUREN ITURGINTZA

Eskoriatza  
• Iturgintza eta gasa  
• Berogailuak eta petrolio-produktuak  
• Klimatizazioa  
Aranburuzabala 15  
T: 943 71 47 14 / 606 007 369  
[f.oyanguren@ctv.es](mailto:f.oyanguren@ctv.es)

### TXORROTA

Arrasate  
• Berogailua eta gasa  
• Galdrak aldatzea  
• Obra integralak  
• Zaharberriitezak  
Bolibar doktorea 5, behea C  
Tel: 943 77 17 13 / 607 26 04 17  
F: 943 77 17 13

### URKO MANTENIMIENTO SL

Aretxabaleta  
• Instalazioen mantentze-lan guztiek  
• Berokuntza eta gasa  
• Aire girotua eta haizeztatzea  
Basabe industrialdea B-3  
T: 943 77 19 88  
F: 943 79 59 97

### VALES ITURGINTZA

Aretxabaleta  
• Hargintza lanak  
• Bainugelako altzariak  
• Berogailuak  
• Erretenak ipini eta garbitzea  
Santa Kurtz 7, 3. ezk.  
Tel.: 620 178 046

## LEIHOAK

### ARGI-PLASTIC

Arrasate  
• PVC leihoak  
• Aluminio termikoko leihoak  
• Poliuretanozko leihoak  
Zigarrola 1- 8 pab.  
Tel: 943 77 11 30 / 943 79 62 18  
F: 943 77 11 30 / 943 79 62 18

### ION LEIHOAK

Arrasate  
• Metal aroztegia, PVC eta aroztegia  
Debagoina Industrialdea 11. pabilioia  
T: 943 79 11 35  
F: 943 77 31 20

## LOREZAINZA

### MAKAI KOOP. ELKARTEA

Aretxabaleta  
• Barruko zein kanpoko lorenzaintza  
• Ureztatzeko sistemak  
• Loreontzi-euskarriak eta balkonerak  
Basabe poligonoa D-2-1  
T: 943 79 78 45 / 616 96 57 98  
F: 943 79 78 45

## MARGOAK

### APAIN MARGO ETA APAINKETA

Arrasate  
• Pintura orokorean  
• Pareztatzeak  
• Errrotulazioa  
Maitena 3-1.  
T: 943 79 61 56 / 689 04 91 17

### JOVI

Arrasate  
• 10.000 koloreko menua  
Ferrerias 36, behea  
T: 943 79 12 87

### L. GONZALEZ PINTURAK

Aretxabaleta  
• Pintura orokorra, pintura papereztaua  
Basabe poligonoa F-6  
T: 686 113 581

# Apirlak 7-14

## Kokein taldea Elgetan



ELGETA

### > Kokein taldeak kontzertu akustikoa egingo du, eta grabatu egingo da

Eibarko Kokein taldeak rock emanaldi akustikoa egingo du bihar, zapatua, Espaloia antzokian, 22:30ean. Kontzertu berezia izango da, DVDA prestatzen ari direlako eta emanaldia grabatu egingo dutelako.

## Hitzaldia, musika eta zinema



ARRASATE

### > 15. urteurrenean, agenda bete-betea prestatu dute AGAKOKO kideek

4 pausoaz 11 amets leloarekin, 15. urteurrena ospatzen ari dira gaztetxean. Askapena Kuna Yalara brigada 05 hitzaldia izango da gaur, 19:00etan; Kloakao eta Kuraiaren kontzertua bihar; eta *The Take* filma (irudian) domekan.

## Erramu Zapatuko Feria



BERGARA

### > Azoka egingo dute goiz osoan, eta baita ere trikitia, bertso jaialdia...

Erramu Zapatuko Feria izango da bihar, apirilak 8. Feria 09:30ean zabalduko dute eta, horrez gain, trikitillariak, txakur-leren erakusketa, txorimaloak, umeendako jolasak, bertso jaialdia... izango dira egun osoan.

## Antzerkia

ESKORIATZA

### > Los Poetas Rojos taldearen olerki errexitaldia

Ordubeteko errexitaldia izango da. Gaur, egubakoitza, Ibarraundi museoan, 19:30ean.

ELGETA

### > Bi ipuin kontalarik emanaldia egingo dute asteburuan

Maricuela eta Felix Albo ipuin kontalarien saioa izango da. Maricuela Aragoitik dator. Begirada poetikoa botatzen die gauza txikie, eta gorputzaz baliatzen da istorioak kontatzeko. Felix Albo valentziarra da, eta istorioak entzuleen begiei begira kontatzen ditu, emozioz betetako bidaian.

Bihar, zapatua, Espaloia antzokian, 17:30ean.

ELGETA

### > 'El florido pensil' antzezlana egingo dute Espaloian

*El florido pensil* antzezlana egingo du Ttanntaka Teatroa taldeak. Frankismo garaiko Espaniako ikasgela baten girotuta dago, eta, umore giroan, orduko irakaskuntza gogoratzen dute.

Etzi, domeka, 19:30ean.

## Musika

ARRASATE

### > Kainaberri Soinuak taldeak kontzertua egingo du

Kainaberri Soinuak laukoteak musika emanaldia egingo du, II. Udaberriko Musikaldiaren egitarauaren barnean.

Gaur, egubakoitza, San Juan Bataiatzailearen parrokan, 20:00etan.

BERGARA

### > Musika Eskolako ikasleek kontzertua egingo dute

Apirilean Musika zikloaren barnean, musika Eskolakoek honako kontzertua egingo dituzte: instrumentuen tайлerra (Munibe plaza, 16:30), Gazte Bandaren kalejira (17:30), gitarrak ikasleen emanaldia (eskolan, 18:00); eta akordeoi orkestra, orkestra sinfonikoa eta Antzuolako ikasleak

(Antzuolako Errukizko Amanren elizan, 20:00).

Kontzertu guztiek gaur, egubakoitza.

BERGARA

### > Mahaster River taldearen kontzertua Ziripoten

Mahaster River talde bergararrak kontzertua egingo du. Azkaiter Pelox musikarien proiektu berria da talde hori.

Gaur, egubakoitza, Ziripot tabernan, 22:00etan.

BERGARA

### > Bost diskos-jartzaileen emanaldia Tartufon

Gonzalo & Alain (Elektronische), Alkate & Kaitet (Klorofila) eta Fernando Carvalho (BI) diskos-jartzaileek Eletrokoro izeneko dantzarako musika jaialdia egingo dute.

Gaur, egubakoitza, Tartufo jatetxe, 01:00etan.

ARRASATE

### > Lausardi koro sinfonikoa eta perkusio taldea

Lausardi koro sinfonikoa eta perkusio taldeak *Afrika* delako lana taularatuko dute.

Bihar, zapatua, Amia antzokian, 20:00etan.

BERGARA

### > Tobaco Road taldearen kontzertua Tartufo jatetxean

Tobaco Road taldeak blues eta rock-and-roll estilo emanaldia egingo du.

Bihar, zapatua, Tartufo jatetxe, 23:30ean.

BERGARA

### > Erramu Zapatuko elektropop jaialdia Ziripot tabernan

DJ KRC (Ziripot Berg.) diskos-jartzaileak 80ko hamakadako musika ipiniko du.

Bihar, zapatua, Ziripot tabernan, 22:00etan.

## Ikuskizunak

ARETXABAleta

### > Euskal film laburren emanaldia egingo dute

Euskal film laburrak emango dituzte, Topagunearen eskutik. Tartean, Asier Altuna bergararraren *Txotx eta 40 ezet* emango dituzte. Bukearan, Ane Muñoz zuzendaria izango da, ikuslekin berriketaldia egiteko.

Gaur, egubakoitza, udaletxe zaharrean, 21:30ean.

OÑATI

### > 'Kristau elkarteak berritzen' leloa du Arantzazura igoerak

Joan Mari Uriarte Donostiarra gotzainarekin batera, fedearren eta bakearen alde Arantzazura erromesaldia egiteko aukera dago. Aurtengo leloa *Kristau elkarteak berritzen* da.

Debagoieneko erromes talde batzuk Soraluze hotel inguruan batuko dira 09:00ak aldera, eta ibilaldia 09:30ean hasiko da. Otoitzean, kantuan, gogoeta... egingo dituzte bidean, eta beste ekitaldi batzuk goian.

Erromesaldia 09:30ean hasiko da; hainbat ekitaldi goiz osoan.

## PROPOSAMENA



## ARRASATE

### > Kuraia taldeak kontzertua egingo du gaztetxean

Kuraia taldearen kontzertua izango da gaztetxean. Kloakao taldeak ere joko du. Sarrera 4 euro da.

Bihar, zapatua, 22:30ean.

## BERGARA

### > Techno jaialdia egongo da, hamahiru disko-jartzailekin

The Keep Sessions delako techno jaialdia egingo dute Euskal Herriko eta Espaniako 13 disko-jartzailek. Sarrera 22 euro da.

Bihar, zapatua, Jam aretoan, 23:00etan.

## OÑATI

### > Lagash taldeak estreinaldi diskoak aurkeztuko du

Oñatiako Lagash taldekoek *El sueño y la traición*, euren lehen diskoak, aurkeztuko dute. Aregrada taldeak ere joko du.

Bihar, zapatua, gazteleku, 23:00etan.

## ESKORIATZA

### > Musika Eskolako bandaren kontzertua berezia

Eskolako bandak udaberriko kontzertua egingo du.

Etzi, domeka, Herriko plazan, 13:15ean.

## Bestelakoak

### ARETXABAleta

### > '1, 2, 3... Inaxito!' bertso emanaldia egingo dute

1, 2, 3... *Inaxito!* delako bertso-antzerkia egingo dute, bereziki umeei zuzenduta.

Istori oxebreak dira nagusi.

Gaur, egubakoitza, udaletxe zaharrean, 17:00etan.

## OÑATI

### > II. Bizikleta Poteoa deitu du gazte batzarrak

Gazte batzarrak antolatu du, eta herritar guztienak da, berdin gazte batzarrean egon edo ez, helburua gazteen arteko harremana sendotzea delako. 20 tabernatatik pasatuko dira.

Bihar, zapatua, herriko plazatik abiatuko dira 12:15ean.

## ARRASATE

### > Gaztetxoendako doke txapelketa antolatu dute

Gaztetxoendako doke txapelketa antolatu du SUDC elkarteak. 14 urter artekoek parte har dezakete.

Etzi, domeka, Kondeku, 11:00etan.

## ARRASATE

### > I. Bertso Txapelketa eta afaria antolatu du MGEpk

I. Bertso Txapelketa antolatu du Mondragon Goi Eskola Politeknikoak. Lehenengo, afaria izango dute, eta gero, sei gazte bertsotan ibiliko dira.

Hilaren 11n, martxena, Uarkapen. Afaria 21:00etan, finala 22:30ean.

LEIRE KORTABARRIA  
Zuon ekitaldien berri iragarteko, bidali informazioa  
eguzateneko eguerdia baino lehen.  
Posta elektronikoa: [kultura@goiena.com](mailto:kultura@goiena.com)  
Tel.: 943 25 05 01 • Faxa: 943 25 05 13

## nire aukera



Alaitz Jauregi  
Gizarte laguntzailea  
Antzuola

### "Crash' filma ez zitzaidan batere gustatu"

O hiko plana hauxe da: zapatu goizean, lasai, etxeko lanak egiten eta. Bazkalostean, biziakletan ibilalditxoa egiten dugu arratsalde erdira arte; gero, erosketak egitera, zinemara, paseatzera edo ekitaldiren batera joaten gara. Adibidez, Zumarragako Erdi Aroko azokara joan izan gara.

Domekan, mendira joatea gustatzen zaigu. Joan den astean, Gaztelugain, Irimo eta Santa Barbara aldean ibili ginen. Arratsaldean, ikuszkizun batera joan, edo mahai-futbolean ibiltzen gara.

**Mahai-futbola gustuko duzu; eta 'zelai-futbola'?**  
Ez bereziki. Baina lagun guztiak Realzaleak direnez, ni Osasuneko, kontra egitearen!

**Arrasateko Erdi Aroko azokan ere ibili zinen?**  
Bai, eta Mundumira jaialdian ere bai.

**Debagoienean, zer bisita-tzea gomendatzen duzu?**  
Gatz museoa, Dorletako eliza edo Agarreko Garaia; hori oso-oso polita da.

**Boladan daudenetik zein film gustatu zaizu; zein ez?**  
*Brokeback mountain* gustatu zait; batere ez, ordea, *Crash*. Oso arraroa iruditu zitzaidan.

**Eta dantzan egiteko orduan, zein dantza duzu gustuko?**  
Sabel-dantza, adibidez. Hori ikasten ari naiz orain. Eta gaur egungo dantza, funkya.

**Gaueko giro onena, non?**  
Leku askotan: Urretxun, Gasteizen, Donostian, Beasain-nen ere...

# Zinema

#### ARAMAIO KULTURA ETXEA

Oliver Twist  
Egubakoitza: 22:00.

Herbie a tope  
Domeka: 17:00.

#### ARRASATE AMAIA ANTZOKIA

Brokeback mountain  
Egubakoitza: 22:00.  
Domeka: 19:30.  
Astelehen: 20:30.

Bambi 2  
Domeka: 17:00.

#### ELGETA ESPALOIA ANTZOKIA

Snatch, cerdos y diamantes  
Eguaztena: 21:30.

#### ÖÑATI KULTURA ETXEA

La pantera rosa  
Egubakoitza: 22:30.  
Zapata: 22:30.  
Domeka: 19:30, 22:30.  
Astelehen: 19:30.

Dick y Jane, ladrones de risa  
Zapata: 17:00.  
Domeka: 17:00.

#### EIBAR UNZAGA

Firewall  
Egubakoitza: 19:30, 22:15.  
Zapata eta domeka: 17:00,  
19:30, 22:15.  
Astelehen: martxtena eta  
eguztena: 19:30, 22:15.

#### RIALTO

Ice age 2  
Egubakoitza: 19:30, 22:15.  
Zapata eta domeka: 17:00,  
19:30, 22:15.  
Astelehen eta martxtena:  
19:30, 22:15.

#### Eska:\*

#### Baleko:\*\*

#### Ona:\*\*\*

#### Oso ona:\*\*\*\*

#### Bikaina:\*\*\*\*\*

#### GASTEIZ GURIDI

El caso Slevin  
17:30, 20:00, 22:30.

Lifting de corazón  
20:00, 22:30.

Otros tiempos  
17:30, 20:00, 22:30.

V de vendetta  
17:00, 19:45, 22:30.

Ice age 2  
Egubakoitza: 18:00, 20:15,  
22:30.

Zapata eta domeka: 16:50,  
18:45, 20:35, 22:30.

La última señal  
17:30.

Instinto básico 2  
17:00, 19:45, 22:30.

Crash  
Egubakoitza: 17:00, 19:45,  
22:30.

Zapata eta domeka: 19:45,  
22:30.

Syriana  
Zapata eta domeka: 17:00.

FLORIDA-GURIDI

La casa de mi abuela  
17:00, 19:45, 22:30.

El arco  
17:30, 20:00, 22:30.

Volver  
Egubakoitza: 17:30, 20:00,  
22:30.

Zapata eta domeka: 17:00,  
19:45, 22:30.

Tirante el blanco  
17:00, 19:45, 22:30.

Azul Oscuro Casi Negro  
17:30, 18:00, 22:30.

Bienvenido a casa  
17:30, 20:00, 22:30.

Aqua  
17:00, 19:45, 22:30.

YELMO CINEPLEX-GORBEIA

Date movie  
20:25, 22:25, 00:25.

Firewall  
18:25, 20:35, 22:50, 01:00.

Hostel  
18:05, 20:05, 22:05, 00:05.

La pantera rosa  
12:15, 16:30.

Ice age 2  
12:15, 16:15, 18:15, 20:15,  
22:15, 00:15.

Brokeback mountain  
22:25, 00:45.

Instinto básico 2  
12:15, 15:55, 18:10, 20:25,  
22:35, 00:45.

Memorias de una geisha  
21:30, 00:15.

#### ÁBACO-LAKUA ZINEMAK

La niñera mágica  
16:00, 18:00, 20:00, 22:00,  
00:30.

Thai dragon  
16:00, 18:00, 20:00.

El caso Slevin  
16:00, 19:00, 22:00, 00:30.

Ice age 2  
16:00, 18:00, 20:00, 22:00,  
00:30.

La última señal  
16:00, 18:00, 20:00, 22:00,  
00:30.

Hostel  
16:00, 18:00, 20:00, 22:00,  
00:30.

La pantera rosa  
16:00, 18:00, 20:00, 22:00,  
00:30.

Memorias de una geisha  
16:00, 19:00, 23:00.

Munich  
Egubakoitza eta zapata:  
19:00, 23:00.

Domeka: 18:45, 22:00.

Syriana  
Zapata eta domeka: 17:00.

FLORIDA-GURIDI

La casa de mi abuela  
17:00, 19:45, 22:30.

El arco  
17:30, 20:00, 22:30.

Volver  
Egubakoitza: 17:30, 20:00,  
22:30.

Zapata eta domeka: 17:00,  
19:45, 22:30.

Tirante el blanco  
17:00, 19:45, 22:30.

Azul Oscuro Casi Negro  
17:30, 18:00, 22:30.

Bienvenido a casa  
17:30, 20:00, 22:30.

Aqua  
17:00, 19:45, 22:30.

YELMO CINEPLEX-GORBEIA

Date movie  
20:25, 22:25, 00:25.

Firewall  
18:25, 20:35, 22:50, 01:00.

Hostel  
18:05, 20:05, 22:05, 00:05.

La pantera rosa  
12:15, 16:30.

Ice age 2  
12:15, 16:15, 18:15, 20:15,  
22:15, 00:15.

Brokeback mountain  
22:25, 00:45.

Instinto básico 2  
12:15, 15:55, 18:10, 20:25,  
22:35, 00:45.

Memorias de una geisha  
21:30, 00:15.

#### Crash

18:05, 20:20, 22:35, 00:55.

Volver

17:50, 20:10, 22:35, 00:50.

Tristán e Isolda  
12:15, 17:15, 19:45.

Zathura  
12:15, 16:25, 18:25.

El caso Slevin  
16:00, 19:00, 22:00, 00:30.

Ice age 2  
16:00, 18:00, 20:00, 22:00,  
00:30.

La última señal  
16:00, 18:00, 20:00, 22:00,  
00:30.

Hostel  
16:00, 18:00, 20:00, 22:00,  
00:30.

La pantera rosa  
16:00, 18:00, 20:00, 22:00,  
00:30.

Memorias de una geisha  
16:00, 19:00, 23:00.

Munich  
Egubakoitza eta zapata:  
19:00, 23:00.

Domeka: 18:45, 22:00.

Syriana  
Zapata eta domeka: 17:00.

FLORIDA-GURIDI

La casa de mi abuela  
17:00, 19:45, 22:30.

El arco  
17:30, 20:00, 22:30.

Volver  
Egubakoitza: 17:30, 20:00,  
22:30.

Zapata eta domeka: 17:00,  
19:45, 22:30.

Tirante el blanco  
12:15, 17:00, 19:45, 22:30,

00:50.

El guerrero sin nombre  
12:15, 16:10, 18:10, 20:10.

Syriana  
22:20, 00:45.

El castillo ambulante  
12:15, 15:30.

Gauerdiko saioak, egubakoitz  
eta zapata.

Eguerdiko saioak, domekan.

Astelehen, ikusleen eguna  
(jaiegunk izan ezik).

#### ÁBACO BOULEVARD

V de vendetta  
12:00, 17:00, 19:45, 22:25,  
01:00.

Tirante el blanco  
12:10, 17:00, 19:45, 22:20,  
01:00.

Bienvenido a casa  
12:00, 17:00, 19:30, 22:05,  
00:30.

Volver  
12:00, 17:00, 19:40, 22:10,  
00:45.

Syriana  
20:05, 22:30, 01:00.

Ice age 2  
12:15, 16:20, 18:

# Oñatik ere, Coelho bihotzean

**JARRAITZAILEAK** Idazle brasildarraren jarraitzaileek bete egin zuten Oñatiko kultura etxea liburu sinadurarako

**POZIK** Coelhok esan zuen "oso pozik" zegoela Oñatin egoteaz, eta Euskal Herriaren edertasuna goraipatu zuen

**LAGUNAK** 'Hitzen alkimista'-k lagun handiak ditu Oñatin, eta bigarren aldiz etorri da, berak hala erabakita

L. KORTABARRIA / G. ARANA > OÑATI "Oñatiaren gaineko liburua idatzi daukat bihotzean, oso liburu ederra". Hitz horiek esan zituen Paulo Coelhok martitzenean Oñatiko kultura etxera sartu aurretik, eta berak Oñati bihotzean badarama, Oñatik bera ere bihotz-bihotzez hartu zuen.

Idazle brasildar famatuak berotasun klimatikoa eta jendearen berotasuna jaso zituen kultura etxeen. Liburutegi nagusia bete egin zuten zaleek, Coelhok liburuak sina ziezazkien. Lehenengo Lourdes Idoiagari, alkateari, sinatu zion, hark ongiotorría eta Oñatiko liburua, DVDA eta domina eman ondoren. "Idazle handia eta pertsona ikaragarria" zela esan zion Idoiagak.

Gero, Coelhok sinadurari ekin zion. Oso modu atseginean hartu zituen irakurleak, bakotzari etortzeagatik eskerrak emana.

**LEKU ASKOKO ZALE LEIALAK**  
 Adin eta jatorri guztietako irakurleak ditu Coelhok, Oñatin



ARRAKASTATSU Oñatiko liburutegia bete egin zen Coelhoren liburu sinadurarako; idazlea ez zen lan barik egon.

ikusi zen moduan. Publiko kosmopolita batu zen: ibarrean bizi diren brasildar batzuk izan ziren, eta baita Italiako, Argentinako... zaleak ere. "Argentinan aspalditik irakurri ditut bere liburuak, eta orain, hemen bizi naizenez, asko gustatzen zait Donejakue Bideaz (Santiago Bidea) idazten duena irakurtzea, berak Bidea egin duela jakinda", dio Oñatin bizi den Emilia argentinarrak. Komunikabideen aldetik, ibarrekoez gain, Efe agentziarako eta Telemadrid katerako lan egiten zuen bikote bat etorri zen.

**SAN MIGEL TXIKI JAIETAN**  
 Juanita Uribetxeberria oñatiarra lagun handia du Coelhok, eta bere erabakia izan da Oñatira etortzea. Donejakue Bidea egiten ari zirela ezagutu zuten elkar, 1986an. Juanita ere, nola ez, kultur etxeen zegoen. Bitxikeria da Coelho 1996an izan zela lehenengoz Oñatin, eta gustura asko ibili ei zen San Miguel Txikitian; lasai asko ere, orduan oraindik ez zelako gurean ezaguna.

## ahobero

"Penaltiagatik protestatzen ari ginela, aulkian geundenoi iraindu egin zigun marrazainak. Hura ere kalera bota behar zuten"

Pablo Gartzia > Real Madrilekoa

Bartzelonaren eta Real Madriden arteko partiduak polemika piztu du berriz. Roberto Carlosen kaleratzearak kakaztu egin zuen derbia..., eta marrazainak tartean.

## iturri onetik

**Debagoieneko Trikiti Eguna ospatuko da Aretxabaletan, maiatzaren 6an**

Debagoieneko Trikiti Eguna Aretxabaletan ospatuko da maiatzaren 6an. Debagoieneko eta Euskal Herri osoko trikitilariak arituko dira goizetik, arratsaldean erromeria izango da eta gauean Kepa Junkeraren emanaldia. Jaia girotzeko maiatzaren 4an, trikitiaren gaineko mahai-inguruia izango da. Anjel Valdes, Josu Zubala, Joseba Tapia eta Maixa Lizarrabar arituko dira solasean.

## piperraутса

Mikel Irizar > www.goina.net/blogak/piperraутса

### Bakea negozio

Bakea negozio hasi besterik ez bada, iritsi dira lehen etekinak. Bilboko manifestazioan txalo beroenak joan zitzakion Reid abadeari. Bera izan da bitartekari eraginkorrena, gauden unera iristeko. Barnepozaz gain, herritarren esker ona jaso duzu, Sir Alec.

Ostalaritzak ere izango du negoziorik. Hoteletako gelak eta jatetxeetako mahaia samurrago saltzen dira. Industria suspertu bitartean, gaitzterdi zerbitzu sektoreak konpontzen badizkigu ekonomiaren zifra potoloak.

Eta argi dago bakeak etekin politikoa ekarriko diela hura gorpuzten dihardutenei. Aldiz, negozio txarra izango da gatazkan gizendu direnenetat. Hauek asko dute galtzeko eta pentsatzeko da saiatuko direla bidea oztopatzan. Zorionez, negozio honetan herritarroi dagokigu etekinak banatzea.

## ai, ene!



**Ukrainako politikariak, ziztu bizian**

Gureak baino modernoagoak dira politikariak Ukrainan? Hauteskunde kanpainako kartelak ikusgarriagoak badira behintzat...

<http://tinyurl.com/qqetd>

### Babes eta erosotasun handiagoa



Kanporako saretak

### Dekorazio aukera guztiak



Estoreak, errezelak eta saretak

### Eguzki babesia



Toldoak

**VELUX®**



**gelatuz**.es

Zubillaga auzoa 1

OÑATI

Tel.: 943 71 63 22

Faxa: 943 78 15 51